

Euskal lankidetzaren publikoaren azterketa 2011-2014

Lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat




EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Euskal lankidetza publikoaren azterketa 2011-2014

Lankidetza deszentralizatuari begirada bat



Argitaratzailea: Euskadiko Garapenerako GKEn Koordinakundea



www.ongdeuskadi.org

Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa
01001 Gasteiz
945 28 07 45
araba@ongdeuskadi.org

Erronda z/g (5. zenbakiaren aurrean), 3. oina. C bulegoa.
48005 Bilbo
94 415 03 00
bizkaia@ongdeuskadi.org

Iparragirre 8, behea
20001 Donostia
943 46 35 26
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org

Kanpoko taldea: Gorka Mola Landin
Maketazioa eta diseinua: Marra S.L.
Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak

Laguntzaileak:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetzeta Bulegoa
Negociado de Cooperación

Azterketa honetan parte hartu duten erakundeek eta, bereziki, haietan diharduten teknikarien laguntza biziki eskertu nahi dugu.

Aurkezpena

Garapenaren aldeko konpromiso publikoaren –gizartean partekatutako elkartasuneko eta justizia sozialeko ideiek sustatutakoaren– nazioarteko adierazpenetik sortutako lankidetzak azkenaldian aldaketa nabarmenak jasan ditu, eta aldaketa horiek nazioarteko lankidetzaren sistemaren eta garapen-agendaren konfigurazio berri bat sortzen ari dira. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren bilakaera hau testuinguru zail batekin tartekatzen da, neurri handi batean, sektore honi ere eragin dion krisialdi orokorreko egoerak baldintzatutakoa.

Aldaketen testuinguru honetan ezinbestekoa da euskal lankidetzaren deszentralizatuaren egungo egoeraren inguruko gogoeta egitea, sektorean lan egiten duten erakundeentzat nahiz erakunde publikoentzat baliagarriak izan daitezkeen gakoak lortzeko eta tokiko eremutik, elkartasuneko eta nazioarteko lankidetzako politikaren ildo nagusiak ezartzeko.

Azken urteetan Euskadiko GGKEen Koordinakundeak hainbat azterlan argitaratu ditu, azken bi hamarkadetan Euskadiko garapenerako lankidetzako politikak araudiaren nahiz aurrekontuen arloan izan duten bilakaera aztertuz, eta azterlan horien arabera heldutasun eta egonkortasun egoera batera iritsi gara.

2008-2010 aldiko lankidetzaren politikak aztertzen zituen azken argitalpenean krisiak euskal erakundearen lankidetzaren arloko aurrekontuetan izandako eragina aipatzen zen; alabaina, egoerarik okerrera iristear zegoen.

Oraingo honetan aurkezten dugun azterlanak 2011-2014 aldiko (krisiak eta murrizketek politika horietan indartsu eragin duten urteak) lankidetzaren politikak aztertzen ditu. Murrizketa-egoera horrek aurrez aurre dauka erakunde garrantzitsuenek araudi-esparruak indartzeko duten joera, eta ildo horretan kokatzen da ikerketa honen helburua, hain zuzen ere, euskal erakunde publikoetatik sustatutako garapenerako lankidetzaren ezaugarriak zein diren jakitea eta azaltzea, betiere krisiak arlo horretako politiketan eragin dituen ondorioak aztertuz.

Lan honen lehen hurbilketa kuantitatiboan garapenerako lankidetzarako zenbatekoak eta haien erabilera jasotzen dira. Aurretiazko azterketa honen ondoren, laguntza horren kalitatearen, koordinazioaren eta osagarritasunaren inguruko gogoeta egiten da.

Testuinguru honetan, Euskadiko GGKEen Koordinakundetik adierazi nahi dugu beharrezkoa dela elkartasunarekiko eta lankidetzarekiko konpromiso instituzionalari eustea eta konpromiso hori areagotzea, hain zuzen ere, lankidetzari buruzko Euskal Legetik hasita, indarrean dagoen araudia betez. Azterketa horretatik ondorioztatzen da lanarekin eta elkartasun-ahaleginarekin jarraitzearen aldeko apustu sendoa egon behar duela, eta kasu batzuetan badagoela. Honelako krisialdi-uneetan azaleratzen dira bultzatzen gaituzten balioak.

Garapenaren arloko arazoak aldatu egin dira azken urte hauetan, hau da, arazo desberdinak dira baina ez txikiagoak, beraz, aurre egin beharko zaie. Lankidetzaren ezinbesteko berrantolaketa funtsezko erronka bat da, eta erronka horri aurre egiteko lankidetzarekin konprometitutako erakundeen eta gizarte-sare aktibo eta parte-hartzailearen indarrak batu egin behar ditugu.

Ana María Arriola

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen presidentea

Aurkibidea

1. Sarrera	9
1.1. Aurrekariak eta helburuak	9
1.2. Metodologia	10
2. Garapenerako lankidetzak Euskadin	15
2.1. Lankidetzak deszentralizatuaren sormena eta bilakaera	15
2.2. Euskadiko garapenerako instituzio publikoak eta haien aurrekontuen bilakaera	17
2.3. Laguntza nola banatzen den	34
2.3.1. Laguntza nola kudeatzen den: zuzeneko lankidetzak eta zeharkako lankidetzak	34
2.3.2. Lankidetzak motak	39
2.3.3. Plangintza estrategikoa	45
2.3.4. Lankidetzaren jomuga: geografiaren eta arloen araberrako lehentasunak	54
2.4. Kalitate handiagoko lankidetzak politiketarantz	63
2.5. Generoaren ekitatearen aldeko konpromisoaren bilakaera euskal lankidetzan	67
2.6. Gardentasuna eta kontuen ematea	70
2.7. Pertsonen egungo egoeraren ondorioak	71
3. Konklusioak eta gomendioak	73
4. Bibliografia	89
5. Izendegia	91

Koadroen aurkibidea

1. koadroa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren aurrekontuen bilakaera 2008-2014	19
2. koadroa: Arabako Foru Aldundiaren garapenerako lankidetzaren aurrekontua	24
3. koadroa: Bizkaiko Foru Aldundiaren garapenerako lankidetzaren aurrekontua	25
4. koadroa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren garapenerako lankidetzaren aurrekontua	25
5. koadroa: Euskal Fondoaren aurrekontua 2011-2012-2013	26
6. koadroa: Garapenerako lankidetzeta motak 2013-2014	39
7. koadroa: Garapenerako lankidetzaren banaketa herrialdeen arabera 2014an	57

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren aurrekontuen bilakaera (2008-2014)	20
2. grafikoa: Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzara bideraturiko aurrekontuaren portzentajea	20
3. grafikoa: Foru Aldundien lankidetzarako aurrekontuen bilakaera	23
4. grafikoa: Hiru Foru Aldundien lankidetzarako aurrekontuen bilakaera	23
5. grafikoa: Euskadiko hiru hiriburuek lankidetzara bideratu duten aurrekontuaren portzentajea	30
6. grafikoa: Udalek 2015ean garapenerako lankidetzara bideratuko dituzten aurrekontu-sailen aurreikuspena	32
7. grafikoa: Krisiaren ondorioak Euskadin lankidetzara bideraturiko guztizko diru-kopuruan	33
8. grafikoa: Garapenerako lankidetzaren banaketa instituzioen arabera 2014. urtean	34
9. grafikoa: Lankidetzarako aurrekontu-saila kudeatzeko modua Euskadin (%)	37
10. grafikoa: Euskadiko zazpi instituzio publiko nagusien lankidetzarako aurrekontuen kudeaketa moduak (%)	38
11. grafikoa: Hiriburu ez diren udalerrien garapenerako lankidetzarako aurrekontuak kudeatzeko moduak	39

- | | |
|---|----|
| 12. grafikoa: Euskadiko garapenerako lankidetzaren banaketa geografikoa 2014an (%) | 56 |
| 13. grafikoa: Euskadiko 7 instituzio nagusiek garapenerako lankidetzari begira finantzatu ez dituzten proiektuei geografia-lurraldeen arabera dagokien portzentajea | 59 |
| 14. grafikoa: Garapenerako euskal lankidetzaren banaketa arloen arabera (%) | 61 |

Mapen aurkibidea

- | | |
|---|----|
| 1. mapa: Udalen lankidetzaren bitartez lagunduriko herrialdeak (kanpoan gelditu dira hiru hiriburuak) | 55 |
| 2. mapa: Garapenerako lankidetzaren % 54 bost herrialdeetara bildu izana azaltzen duen mapa | 58 |

1. Sarrera

1.1. Aurrekariak eta helburuak

Euskadiko Garapenerako GGKEen Koordinakundearen barruan (Euskadiko GGKEen Koordinakundea deituko diogu aurrerantzean), nazioarteko lankidetzak une hartan bizi zuen egoeraren gaineko hausnarketa-prozesua bideratu genuen 2005-2007 urteen bitarteko garaian, ustez eta baliagarria gerta zekiekeela arlo horretan ari ziren erakundeei eta erakunde publikoei, gure ekinak etorkizunean eduki lezakeen bilakaeraren mugarri nagusiak nolabait zehaztearren.

Xede horri begira eta Gipuzkoatik, bertako instituzio publikoek bultzaturik, Gipuzkoako lankidetzaren publikoaren azterketa 2005-2007: lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat izenburuko txostena prestatu genuen, lurralde hartatik bideratzen zen lankidetzaren zati garrantzitsu bat aztertuko zuen lana. Tokiko instituzioen mundutik nazioarteko elkartasun eta lankidetzari begira bultzat litekeen politika berri baterako ildo nagusien gaineko eztabaida zabala sustatu nahi izan genuen lan haren bitartez.

2010. urtean bururatu genuen Euskadiko lankidetzaren publikoaren azterketa: lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat 2008-2010 delakoa. Txosten hartan euskal instituzio publikoek nazioarteko lankidetzari egiten zioten eskaintzaren aurreko diagnostikoa egin genuen eta lankidetzaren atal desberdinetan aintzat hartzen diren definizioen konzeptualizazioa bereziki landu genuen.

Oraingo honetan, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak berriro ere bultzaturiko proiektuari segida emanez, Euskadiko lankidetzaren publikoak 2011-2014 bitartean eginiko bidearen azterketa eskaintzea da gure helburua. Kontuan hartu ditugu bereziki, haiei buruzko datuak ere badauzkagularik, hobetu egin daitezkeen atalak, eta gogoeta bideratu dugu, era berean, garapenerako lankidetzaren eta hartan parte hartzen dugun eragile eta instituzioen sektorean sumatzen diren joeren gainean. Kanpoko kontsultore batek bururatu du lana, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeko talde teknikoaren, Gobernu Batzordearen eta Eragin Soziala eta Politikoko taldearen laguntza jaso du prozesu guztian barrena.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen iritzia da garapenerako lankidetzaren egungo egoeraren eta bilakaeraren gaineko hausnarketa eta etorkizunerako sumatzen diren joeren azterketa guztiz baliagarria izan daitezkeela sektorean ari diren erakundeentzat eta lan honetan aztergai izan diren instituzio publikoentzat.

Azterketa honetan, Euskadin bideratzen den lankidetzaren zati bat baizik ez dugu landu, instituzio publikoek bultzaturikoa hain zuzen ere. Sustatu nahi izan dugu, horrenbestez, tokiko instituzioen mundutik nazioarteko elkartasun eta lankidetzari begira bultzat litekeen politika berrirako ildo nagusien gaineko eztabaida.

Aurrekontuen ikuspegitik, funtsean aldatu da azken urteotan Euskadiren lankidetzaren deszentralizatua, hazkunde eta zabalkunde urteen ondotik aurrera ezin egite, kasurik hoberenean, eta murrizte edo beheratze urteak etorri baitira. Aurrekontuen murrizte honen kontrakarrean dator, bestalde, instituzio nagusiek beren politiken orientaziorako esparruak plan zuzendari berrien bitartez sendotzeko erakutsi duten erabakimena. Halatan, paradoxazkoa da, gutxienez, egungo egoera: Euskadiko instituzio nagusiek historian orain arte ez bezalako araudi-esparru eta politika publiko sendoz hornituak badira ere, handiak dira aurrekontuetan bideratu diren murrizteak.

Horrexegatik saiatu gara garapenerako lankidetzari begira aurrekontu-sailen bat duten Euskadiko instituzio publiko guztiak azterketa honetan kontutan hartzen, zinez uste baitugu lurraldeko udal erakunde guztiak kontuan hartzeko ahalegin hori bera dela azterketa honen balio nagusietako bat.

Hainbat ataletan banatu da dokumentua: kuantitatiboa da haietako bat, hartan jaso baititugu garapenerako lankidetzara bideraturiko diru-kopuru errealek, laguntza bakoitzaren jomuga ondoan zehaztua. Eta kualitatiboa beste bat: hasierako analisi honi segida eman eta Euskadiko garapenerako lankidetzaren kalitate, koordinazio eta osagarritasunari buruzko gogoeta eskaini nahi izan dugu haren bitartez.

Biziki uste dugu, gainera, ikerketa honetan funtsezko proposamenak egin direla instituzio publikoek etorkizunean lankidetzarako bultzatuko dituzten politikei begira.

1.2. Metodologia

Metodologia kuantitatiboa bideratu dugu, alde batetik, Euskadiko instituzioek garapenerako lankidetzari eskaintzen dizkioten diru-kopuru errealek ezagutu ahal izateko, eta metodologia kualitatiboa, bestetik, politika publikoen eta instituzioen beren bilakaeraren alderdi garrantzitsu batzuk ezagutzeko, hala nola kalitatea, garapenerako lankidetzaren koordinazioa, eta abar.

Galdeketa baten bitartez bideratu dugu fase kuantitatiboa. Azterketari alde kualitatiboari ekiteko orduan, aldiz, berrikusi egin dugu dokumentazio guztia eta elkarrizketa sakonak bururatu ditugu Euskadiko lankidetzaren deszentralizatuaren eragile garrantzitsu batzuekin¹.

1 Juanma Balerdi (Euskal Fonda); Paul Ortega, Noemí de la Fuente eta Edurne Bengoetxea (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia); Pilar Dosal (Bizkaiko Foru Aldundia); Silvia Carballo eta Xabier Gainza (Donostiako Udala); Michel Sabalza (Hegoa); eta Miguel Pérez eta Idoia Uriarte (Bilboko Udala).

Galdeketa azken lau urte honetan² garapenerako lankidetzari, ekintza humanitarioari eta sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzari begira erreserbatu diren aurrekontu-sailen gaineko datuak aztertu dira nagusiki, baina kontuan hartu dira, halaber, instituzio bakoitzak lehenetsitako geografia-lurralde eta arloen gaineko datuak. Horrez gainera, instituzioek 2015erako aurrekontu-saila emendatzeko, bere horretan edukitzeko edo murrizteko duten asmoa edo joera ere jaso du galdeketa, bai eta proiektuak baztertzeko irizpide gisa generoaren ikuspegia aintzat hartu ote duten ere.

Garapenerako lankidetzari begira aurrekontu-sailak dituzten euskal instituzio guztiak aztertu dira lan honetan³. Aurrekontu-sail horien zenbatekoa kalkulaterakoan aurrekontu dagoeneko gauzatu lehenetsi da⁴. % 0,7arekiko konpromiso maila neurtzerakoan, nahiago izan dugu instituzioen aurrekontu osoa erabili, kontuan harturik, era berean, hiru Aldundien gestioari banan-banan dagozkien aurrekontu osoak.

Garapenerako lankidetzari begira aurrekontu-sailen bat duten euskal instituzio guztiak gonbidatu ditugu azterketa honetan parte hartzera. Gonbidaturiko instituzioen % 75ek hartu dute azkenean parte azterketan⁵:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia;
- Hiru Foru Aldundiak;
- Azken lau urte honetan garapenerako lankidetzari begira aurrekontu-sailen bat bideratu duten udalak.

Azterketan kontutan hartu diren instituzioen datuak aurrekontu-sail horien kudeaketaz arduraturiko pertsonen bidez eskuratu ditugu, eta horixe izan da gure informaziorako lehen

2 Euskal Fondoari 2011-2013 bitartean dagozkion kopuruak erakunde horrek berak emanak dira eta instituzioek eskainitakoekin kontrastatu ditugu. Ezin kontrastatu izan ditugu, ordea, 2014. urteari dagozkion kopuruak, azterketa hau bururatu den datan Euskal Fondoak guztiz eguneratu gabe zeuzkalako.

3 Azterketa honetan parte hartu nahi izan duten instituzio publikoen fitxak aurkeztu dira eranskinetan, 75 instituzio guztira.

4 Kasu gutxi batzuetan, 2014ko planean aintzat harturiko aurrekontua erabili da instituzio batzuen datuak prozesatzeko momentuan, azterketan ari ginen garaian gauzaturiko aurrekontuei buruzko daturik ez zegoelako.

5 Honako instituzio hauek hartu dute parte: Abadiño, Amurrio, Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Azkoitia, Balmaseda, Barakaldo, Beasain, Bermeo, Bilbo, Deba, Donostia, Durango, Eibar, Elgoibar, Erandio, Ermua, Errenteria, Eskoriatza, Galdakao, Gasteiz, Gernika, Getaria, Getxo, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte, Lazkao, Lemoa, Laudio, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Pasaia, Portugalete, Sestao, Tolosa, Urnieta, Urretxu, Villabona, Zaira, Zarautz, Zegama, Zuia, Zumaia eta Zumarragako Udalak; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

iturria. Galdeketa bana bidali zitzaion instituzioei eta berek bete dute betiere, zenbaitetan azterketaren prestaeraz arduraturiko taldearen laguntza jaso duten arren. Oso formatu errazean landu eta bideratu da galdeketa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren datuetara bezala udal txikien datuetara ere ongi egokitzeko.

Arestian aipatu dugun bezala, azterketa kuantitatiboa ez da azterketaren helburu bakarra izan. Helburu bati begira bideraturiko diru-kopurua bezain garrantzitsuak izan daitezkeen beste elementuen artean, azterketan gogoan eduki ditugu, halaber, lankidetzarako politikak diseinatzeko eta gauzatzeko formak, haien modalitateak, garapenerako politiken koordinazioa eta koherentzia, eta generoaren ikuspegiaren bilakaera.

Bestalde, plan zuzentzaileak, instituzio publikoen memoriak eta deialdietarako oinarriak ere aztertu ditugu.

Modu osagarrian, geografia-lurraldeen arabera aztertu ditugu Euskadiko instituzio publiko nagusiek finantzatu ez dituzten esku hartzeak, garapenerako lankidetzaren bete gabe uzten ari den hutsuneak zein diren zehaztu ahala izateko. Azterketa honetan, beraz, bereziki kontuan hartu dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, Foru Aldundiek eta hiru hiriburuetakoa udalek finantzatu ez dituzten proiektuak.

Azterketa honetan, lankidetzaren genero ekitateak eduki duen bilakaerari erreferentzia berezia egiten biziki ahalegindu gara, eta kapitulu zehatza eskaini diogu, horrenbestez, bilakaera horren alderdi garrantzitsuenak aurkezteko.

Azkenik, kapitulu berezi bat erantsi dugu lankidetzaren testuinguru berriak pertsonengan nolako eragina duen aztertzeko, eta nagusiki hartu ditugu aintzat hartan Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeetan (GGKE) diharduten pertsonak.

Ohar batzuk bideraturiko metodologiari buruz

Ondoren, metodologiari eta argitaraturiko datuak hautatzeko kontuan harturiko irizpideei inguruko zenbait gogoeta aurkezten ditugu:

- Instituzioek galdeketa erantzuteko hasieran aurreikusitakoa baino epe luzeagoa behar izanaz sorrarazi dituzte datuak biltzerakoan izan ditugun oztopo gehienak. Kontuan har bedi, gainera, haiek askok ez dituztela deialdien emaitzak argitaratzen.
- Halako inkoherentziak suma zitezkeen kasu batzuetan, galdeketa jasoriko informazioan (informazio-hutsuneak, zuzenean kudeaturiko lankidetzari zegozkion diru-kopuruak zehaztu gabeak, eta abar) eta, beraz, beste iturri batzuen bitartez saiatu gara osatzen eta zuzentzen: ebazpen ofizialak berrikusirik, argitara emanak baziren, beste administrazio batzuetako teknikariek kontsulta egirik, eta abar.

- Euskal Fondoaren erakunde bazkide askok kuotaren berri baizik ez dute eman, kontuan hartu gabe funts horretara egiten dituzten gainerako ekarpenak. Bete egin dira hutsune hauek, Euskal Fondoak emaniko datuen bidez. Berebat esan genezake Euskal Fondoari, haren bazkide izan gabe, ekarpenak egiten dizkioten instituzioez. Instituzioetako batzuek itunen eta zuzenean kudeaturiko proiektuen atalaren barrukotzat hartu dituzte fondoari eginiko ekarpenak; espresuki adierazten dute hori batzuek, horra Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
- Azterketak kontuan ere hartu ditu 2014ko datuak eta udal gutxi batzuek ez zituzten horiek prest azterketa egiten ari ginen garaian. Aurrekontuan aintzat harturiko datuak eman zituzten gehienek, baina kasu batzuetan aldea dago aurrekontuan kontutan hartu denaren eta egiaz izendaturiko aurrekontu-sailaren artean. Fitxaren balioztatze fasean zuzendu dute instituzio askok kontusailean gertaturiko mugatze hori.
- Arlo eta lurraldeen araberako banaketari dagokionez, irizpideak homogeneizatu beharra zegoela-eta, instituzio guztiak egokiro hartuko zituen formula soil baten aldeko apustua egin dugu. Geografia-lurralde eta arloen arabera bereizi eta aintzat hartu ditugu proiektuekiko datuak.

2. Garapenerako lankidetzak Euskadin

2.1. Lankidetzak deszentralizatuaren sormena eta bilakaera

Kontzeptuari zorrotz heldurik, tokiko administrazioek bideraturiko lankidetzari deitzen zaio lankidetzak deszentralizatua. Zentzu zabalagoan, ekimeneen eta Hegoarekiko harremanen deszentralizazioak, gizarte zibileko aktore berri askoren inplikazioak eta Hegoaldeko herrietako eragileak beren garapenerari begira erakusten ari diren parte-hartze maila handiagoak itxuratzen eta egituratzen duten lankidetzak molde berri bat adierazten du⁶. Estatuko politika eta administrazio sisteman, lankidetzak deszentralizatua da autonomia erkidego, foru aldundi eta udaletako gobernuak bultzaturiko lankidetzak.

1990eko urteen hamarkadan egin zituen erakundeen lankidetzak aurreneko urratsak, lankidetzak estatuetako gobernuetatik harantzko instituzioetara zabaltzea bidezkoa eta beharrezkoa zela jabetu ondoren, eta horrenbestez hasi zen udal, foru eta autonomia erakundeen parte-hartzea, gizarte zibil antolatua alde bat utzi gabe. Gizarte zibilaren lankidetzak antolatu hori dugu, hain zuzen ere, lankidetzak deszentralizatuaren ezaugarri nagusietako bat, administrazioetatik hurbilago egoteaz gainera, sendoagoa baita, herritarren ekimena gauzatzen ari den aldetik, haren osagarri aldarrikatzailea. Lankidetzak molde honen izaera hori dugu, hain zuzen ere, Estatuaren garapenerako lankidetzak beste estatu batzuenaren aldean guztiz berezi bilakatzen duen ezaugarria, guztiz zentralizatua izaten baita beste horien garapenerako lankidetzak mota.

Azken hogeita bost urte honetan, aldatuz joan da lankidetzak deszentralizatua Estatuan eta Euskadin, hala aurrekontuan nola politika publikoetan eta araudietan. Hala eta guztiz ere, orain berri bizi izan dugun epean desagertzeaz utzi ditu ia-ia politika horiek guztiak Estatuan bizi izan den atzerakadak: autonomia erkidego guztiak murriztu dute garapenerako lankidetzari begira zuten gastua, % 75etik gorako mailan haietako erdiek⁷.

Intermón Oxfam-en txostenaren arabera (2013), Estatuko lurralde guztiak murriztu dute garapenerako lankidetzari begira zuten gastua. Muturreko kasuetan, % 75etik gora murriztu dute gastu hori honako komunitate hauetan: Murtzia, Gaztela-Mantxa, Kantabria, Valentziako Erkidegoa, Aragoi, Errioxa, Kantabria, Balear Uharteak eta Kanariak.

Bereziki aipagarriak dira Murtziako kasua, hiru urte segidan (2012, 2013 eta 2014) ez baitu lankidetzarako aurrekonturik zehaztu, eta Gaztela-Mantxakoa, gobernu-aldaketa izan zenetik guztiz desegin baitu lankidetzarako konpromiso hartua zuen politika.

6 Pérez de Armiño, Karlos (koord.) (2001), Diccionario de acción humanitaria y cooperación al desarrollo. Icaria-Hegoa arg.

7 Intermón Oxfam (2013), Cooperación descentralizada; La realidad de la ayuda de las comunidades autónomas.

Datu guztiz negatiboa da aurrekontu-desoreka: autonomia erkidegoek plangintzan garapenerako lankidetzari begira kontutan hartu dituzten politiken eta politika horien egiatzko exekuzioaren arteko aldea. 2012ko aurrekontuetan aintzat hartu ziren 268 milioi euroetatik, % 62 baizik ez ziren exekutatu. Batera harturik, gastuen aurrekontuen % 0,1 baizik ez zen garapenerako lankidetzara bideratu. Agerikoa denez, oso urrun dago balio hori erreferentziatzat hartua den % 0,7tik.

Euskadin, berez aurrekontua murriztak erabiltzen dituzten tokiko erakunde txikien lankidetzak % 10,5 parte-hartze maila erdietsi zuen 2012an, euskal lankidetzaren guztizko % 100aren aldean. 2008an % 3,12koa zen balio hura. Albiste ona izatetik urrun, agerian uzten du datu honek erakunde publiko garrantzitsuenek bideraturiko murriztearen proportzio handia. Hegoaldeko herriekiko elkartasunaren aldeko konpromisoan eginiko bidea zapartarazi nahirik, krisi ekonomikoa baliatu nahi duen instrumentalizazio politiko baten lekuko gara, inolaz ere⁸.

1990. urteetan, lankidetzaren deszentralizatuaren aldeko prozesu bizi bati ekin zitzaion Euskadin eta udal gehienak batu ziren dinamika hartara, lankidetzarako berezko aurrekontu-sailak sorturik. 1996an sortu zen Euskal Fonda.

Gizarte zibil antolatuekin batera, 25 urtetik gora daramatzagu Euskadiko GGKEen Koordinakundearen instituzio publikoei % 0,7ko konpromisoa bete dezatela eskatuz. Nazio Produktu Gordinaren (NPG) % 0,7 nazioarteko lankidetzara bideratzeko konpromisoa honek Nazio Batuek 1970. urtean egin zuen XXV. Batzarren erabaki bat du jatorri. Estatu guztiek babestu zuten erabaki hura. Batzar hartan, ekonomian aurreratua ziren herrialde guztiek garapenerako egin beharreko lankidetzaren progresiboki handiago zezatela xedatu zen, zeinek bere NPGren % 0,7 xede horretara bideratzea lortu arte. Helburua lortzeko epea 1975ean finkatu zen eta NPG merkatuko prezioen arabera zehaztu zen.

Horrenbestez sortu zen % 0,7aren aldeko mugimendua, gure herrira 1994an, aurrekaririk ez zeukan herri-kanpaina batek bultzaturik hedatu zena. Kanpaina haren ondorioz –huraxe izan zen haren lorpen handiena–, ikusgarriro sortu eta emendatu ziren toki, foru eta autonomia gobernuek garapenerako lankidetzari begira bideratuko zituzten aurrekontu-sailak, eta horrenbestez sortu zen lankidetzaren deszentralizatuaren hartara zuzenduriko diru-kopuruak % 0,7ra iristen ez ziren arren.

8 Garapeneraren Aldeko Batzordearen datuen arabera, garapenera bideraturiko portzentajea Nazio Errenta Gordinaren (NEG) % 0,14koa da, eta ez % 0,17koa, Espainiako Gobernuak iragarri bezalaxe. Garapeneraren aldeko inbertsioak % 20,13 egin du behera Espainian, 2013ko datuen aldean. Aurkakoa da Europako joera: inbertsioak % 1,6 emendatu ziren 2014an eta bertako lurraldeen batez bestekoa NEGren % 0,42koa da. Greziak ere, krisiak erdiz erdi jo duen arren, % 6,3 handiagotu du lankidetzarako inbertsioa.

Egungo unean argi eta garbi mintza gitezke euskal lankidetzak politiken heldutasunaz, hartarako kontutan hartzen diren aurrekontuak geroz eta meheagoak diren arren, eta % 0,7aren aldeko konpromisoa betetzetik geroz eta urrunago gauden arren.

Koordinakundetik egin dugun eskarietako bat da, hain zuzen ere, euskal administrazio guztien artean adosturiko kalkulu-formula bat lortzea, administrazio publiko bakoitzak bideratzen duen diru-kopuruaren erreferentzia argia eta objektiboa edukitzeko eta banaketarako orduan guztien artean akordio batera iritsi ahal izateko. Aurrerapausoa handia litzateke, Euskadiko garapenerako lankidetzak BPGaren % 0,7ra iristeko bidean, Nazio Errenta Gordinaren (NEG) gaineko datuak eduki bitartean.

Ezinbestekoa da administrazio guztien artean kalkulurako formula bat adostea, administrazio bakoitzaren errealitateari legokiokeen portzentajearen aurrean diagnostiko argia egin ahal izateko. Errenta erreferentzia gisa harturik aldarrikatu ahal izango dugu, horrenbestez, aurrekontuaren % 0,7a, gogoan edukirik batera hartuz gero nazio errentaren herena baino zerbait gehixeago direla aurrekontu publikoak eta % 0,7a ekarpen publikoari dagokiola, gogoan eduki gabe kudeatzen duen administrazioa.

2.2. Euskadiko garapenerako instituzio publikoak eta haien aurrekontuen bilakaera

Lankidetzak deszentralizatuaren heldutasun-prozesua erakutsi dugu aurreko kapituluan. Hurbildu ere egin gara elkartasunera bideraturiko aurrekontuek aurrera nahiz atzera egin duten bilakaerara. Xeheki azalduko dugu ondoren Euskadin lankidetzarako politikak dituen instituzio publiko bakoitza. Oraingo honetan, instituzioen eta haien aurrekontuen bilakaera aztertuko dugu bereziki.

Eusko Jaurlaritza

Lankidetzarako eta Garapeneraren aldeko Funtza (LGF) -FOCAD, espainierazko sigletan- sortu zen garaian hasi ziren Euskadin lankidetzarako politikak aintzat hartzen, euskal gizar-teak eta GGKEek instituzio deszentralizatuaren aurrean eginiko aldarrikapenen eta Eusko Jaurlaritzaren beraren borondate politikoaren fruitu gisa. Aurrekontuen % 0,7a lankidetzara bideratzea izan zen aldarrikapen horien helburu nagusia.

LGF sendotu ondoren, aurrekontu operatiboaren % 0,7aren helburua lortzeko konpromisoa hartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta Lankidetzarako Zuzendaritza sortu zuen xede hari begira, Kanpo Ekintzarako Idazkaritzaren barruan. Hiru Aldundien parte-hartzea ere ziurtatu zen gainera.

Eusko Jaurlaritzak eta haren erakunde aholkulariek Hegoaldeko lurraldeekiko lankidetzak kontutan hartzeko duten modu dinamiko baten, eta GGKEen eta, oro har, gizarte zibilaren

beraren bilakaeraren ondorioa da LGF-ren aurreneko deialditik egungo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara arte bizi izan den bilakaera. Garapenerako Lankidetzaren arautzen duen 1/2007 Legearen onarpena inflexio-puntua izan zen, batere zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzak lankidetzari begira bultzaturiko politikan.

Legeari esker, garapenerako lankidetzaren kalitate handiagoz bideratzeko aukera ematen duen erreferentzia-esparru batez hornitu da euskal gizartea, eta Euskadiko GGKEen Kordinakundera bilduriko GGKEen gizarte-mugimenduaren aldarrikapen historikoa zen hurreneke. Euskal lankidetzaren berezko nortasunaz hornitu duten printzipioak⁹, helburuak¹⁰ eta lehentasunak zehaztu dira legean. Eredu horren xede nagusia da pobrezia estrukturala eta desberdintasunak errotik eraztea, epe luzean garatu beharreko prozesuen laguntzan oinarrituriko logika baten ikuspegitik.

Hona hemen, bestalde, legeak jaso zituen elementu aipagarri batzuk: instituzioen arteko erakundearen beharra, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren sorrera, gestioaz arduratuko den organo nagusi gisa, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua, Aholkularitza Batzorde ez horren eraginkorraren ordean hartuko zuena. Lehenengo aldiz hartu zen, gainera, aurrekontuaren % 0,7a lankidetzara bideratzeko konpromisoa, 2012. urtean hain zuzen ere. Azterketa honetan zehar ikusiko dugun bezala, konpromiso hori betetzetik urrun gaude egun ere.

Lege hau onartu ondoren egin ziren lehenengo aurrerapenak Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarako politikan. Aurrerapen haien fruitua izan zen lankidetzaren plangintza, Plan Estrategiko eta Zuzendarien eta Herrialdekako Estrategien bitartez¹¹.

9 Orientaziorako printzipioen artean, honako hauek aipatzen ditu, besteak beste, Lankidetzarako Euskal Legeak: *"elkartasun ez-interesatua; laguntzaren kontzeptua, edozein inposizio izpirik gabea; gizakiaren askatasunaren duintasunaren aitortza; justizia, askatasun eta berdintasunaren sustapena; gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea; sexu, arraza, kultura, ideologia edo erlijio arrazoiengatik ez diskriminatzeko printzipio orokorra, garapen ekonomiko iraunkorraren sustapena"*.

10 Lankidetzarako Euskal Legeak honako honetan oinarritzen du bere helburua: *"euskal gizarteak eta erakundeek tokian-tokian eta mundu osoan herrien giza garapen iraunkorra sustatzeko, bereziki pobrezia erazteko, eta giza eskubideak benetan betetzen direla eta nazioarteko harremanak justizian oinarritzen direla bermatzeko harturiko konpromisoan"*, helburu horien artean honako hauek daudela azpimarraturik: *"bizi-baldintza duinak izatea eragozten duten desberdintasunak erazten laguntzea, giza garapen iraunkorra sustatuz eta, zentzu zabalean, pobrezia eragiten duten egiturak eraldatzeko ahaleginak eginez; gizarte zibila sendotzeko ahalegina (...) elkartasun-balioak eta gizaki guztien duintasun balioak gauzatzeko orduan euskal gizarteak aktiboki parte hartzeko egin duen eskariari erantzun egokia ematea"*.

11 Azterketa hau prestatzen ari ginela argitaratu da Lankidetzaren Garapenerako III. Plan Zuzentzailea (2014-2017), oinarrian aurrekoaren segida baizik ez dena.

Garapenerako Lankidetzak arautzen duen 1/2007 Legearen postulatuak beterik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautu du 5/2008 Legeak. Politika publiko horren exekuziorako egitura eta tresnak egokitu beharra, politika horrek azken urteotan bizi izan duen hazkundera eta haren exekuzioa 1/2007 Legeak gogoan edukirik zabalkundeaz eta konpromisoan harturiko kalitateaz gauzatzea, horra administrazioaren barruan garapenerako lankidetzari begira erakunde espezifiko bat sortzeko eta eratzeko aintzat hartu ziren funtsezko arrazoi nagusiak¹².

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren mendeko erakunde publikoa da eta garapenerako lankidetzari begira bideratu beharreko politiken plangintza da haren ardura nagusia, bai eta haien koordinazioa, kudeaketa eta exekuzioa ere, pobrezia aurka borrokatzeko eta herri pobretuetan giza garapen iraunkorra sustatzeko. Haren sorkuntzari dagokionez, guztiz aipagarria da instituzio hau lehiaketa publikoen bitartez hornitzen dela bere langileez, eta oraingo honetan ibilbideko beste edozein unetan baino langile kualifikatu gehiago ditu Eusko Jaurlaritzak egiteko honi begira, eta egoera horrek ez du beti errazagotu eta bizkortu Agentziaren beraren kudeaketa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sorturik, berritu ere egin da Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua, haren egitekoa bizkortuz eta funtzio zehatzez hornituz.

2010. urtean zabaldu zen Agentzia, bada egun ez dago garapenerako lankidetzari begira partida egonkorrik, ez eta, Lankidetzaren Euskal Legeak dioen bezala, Eusko Jaurlaritzaren guztizko kontusailaren gutxienez % 0,7ko maila lortu duen aurrekonturik ere, arian-arian urtetik urtera murriztu egin baitira aurrekontu-sail horiek. Hona hemen, ondoko taulan, lankidetzara bideratu diren aurrekontuen bilakaera.


1. koadroa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren aurrekontuen bilakaera 2008-2014			
Urtea	Aurrekontua (€)	Urtea	Aurrekontua (€)
2008	45.000.000,00	2012	50.685.165,00
2009	51.000.000,00	2013	32.470.630,00
2010	51.000.637,00	2014	35.526.890,00
2011	50.976.137,00		

Iturria: Geuk egina, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Euskadiko lankidetzak publikoaren azterketa 2008-2010: Lankidetzak deszentralizatuari begirada bat txostenaren datuak erabilia.

12 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautu duen 7/2008 Legearen Zioen Aurkezpena.

1. grafikoa


Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren aurrekontuen bilakaera (2008-2014)



Iturria: Geuk egina, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Euskadiko lankidetzaren publikoaren azterketa 2008-2010: lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat txostenaren datuak erabilita.

2. grafikoa

Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzara bideraturiko aurrekontuaren portzentajea



Iturria: Geuk egina, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emaniko datuak erabiliz.

2008. eta 2014. urteen bitartean, 10.000.000 €an murriztu da ia-ia aurrekontua, % 21etik gora. 2013an azaldu zitzaigun egoera konplexuena, garapenerako proiektuetara bideraturiko diru-kopurua duela hamar urteko balioetara murriztu eta programetarako deialdia eta erakundeetan ekitatearen alde aldaketak egin ahal izateko deialdia bertan behera geratu baitziren. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak banatu beharreko funtsetan

gertatu zen murrizte izugarri honek oso eragin negatiboa eduki zuen Hegoaldeko GGKE bazkideetan bezala Iparraldeko elkarteetan, biziro sentitu baitzuten azken hauek eragin hura beren jardueran.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak berak emaniko datuen arabera, 2015. urteari begira aurrekontu-sailak 40.000.000 €ko diru-kopurura emendatzea da asmoa, 2008. urtetik aurreko kopuruetan utziz. Positiboa da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren aurrekontuan bideratu nahi den emendioa, baina ez nahikoa, gure ustez.

Foru Aldundiak

Hasieratik hartu dute parte Foru Aldundiek lankidetzarako euskal politika deszentralizatuan. LGF 1990an sortu zelarik, zati berdinetan parte hartzen zuten Eusko Jaurlaritzak, alde batetik, eta hiru Aldundiek, bestetik. Euskadiko gastuei begira aintzat harturiko koefiziente bakoitzaren arabera ekarria egiten zuten instituzio hauek.

Huraxe izan zen foru lankidetzaren hasiera eta, ordudanik, etengabe eskaini diote lankidetzari beren aurrekontuaren portzentajea jakin bat. Aldundiek lankidetzari eman dioten laguntza logika desberdinetan oinarritu da eta, beraz, banan-banan aztertuko ditugu foru instituzioak, bakoitzaren ekarriaren berri jakiteko.

Arestian adierazi dugun bezala, Aldundiek LGF-n hartu zuten hasieran parte, baina 2004tik aurrera osorik hartu zuen haietako bakoitzak lankidetzarako zituzten aurrekontuen kudeaketaren ardura, zeinek bere deialdia eginez. Aldi berean, maila desberdinetan, beren erreferentzia-esparruak prestatzen hasi ziren, zein bere aldetik, hiru instituzioak, aldundi bakoitzak garapenerako bideratuko duen lankidetzak orientatzeko.

Aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen 2007an: lankidetzarako zuzendaritzak eratu ziren hiru Aldundietan, foru ekintza osoaren mailan lankidetzari dagokiona goratuz eta, batez ere, lurralde historikoen ezaugarrietara doitu eta egokituriko lankidetzak politiken diseinurako tresnaz eta bitartekoz hornituz.

Esparru bateratu bat zehaztu zen hasieran, eta elementu komunean oinarrituko zen eta, aldi berean, aplikazioan lurralde bakoitzaren autonomia babesteko zuen lankidetzak politikak abiaraztea erabaki zen haren arabera¹³.

2009an onartu zen hiru Foru Aldundien Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzendaria 2009-2011 delako plan bateratua. Ordura arte Aldundietan lankidetzarako egiazko politikarik, bateraturik nahiz partikularrik, ez zela izan esan genezake argi eta garbi.

13 Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzendaria 2009-2011. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2009.

Plan Zuzendari haren asmoa zen lankidetzaren deszentralizatua lankidetzarako estrategia alternatibo gisa indartzea eta sendotzea, eta hurbildu ere egin zituen elkarretara hiru Foru Aldundiak politika bateratu bati ekiteko momentuan. Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ikuspegitik, eredu eta aukeratzat hartu zen foru lankidetzarako politika bultzatzeko ekimen hura, instituzioen artean ezinbestekoa den plangintza eta koordinakunde mailan aurrera egiteko eta, batez ere, GGKEek, lankidetzaren eragile nagusiak garen aldetik, geure lana eraginkortasunez garatzeko orduan topatzen ditugun zailtasun praktikoak gainditzeko.

Plan Zuzendari bateratu haren indarraldia igaro eta zeinek bere strategiaren arabera orientaturiko politika bideratzea erabaki zuten hiru Foru Aldundiek. 2013an onartu zizuten Bizkaiko¹⁴ eta Gipuzkoako¹⁵ Foru Aldundiek beren Plan Zuzendariak, eta Arabako Foru Aldundiak ez du berririk sortu. Atzerakada izan da hori, politiken koordinazio eta artikulazioari dagokionez, eta argi erakusten du zeinen konplexuak diren politika hauek.


Aurrekontu mailan, oso desberdina izan da aldundi bakoitzaren jokabidea, hirurek lankidetzarako aurrekontu-sailak murriztu dituzten arren. Gipuzkoako Foru Aldundiak 0,8 milioi euroko murriztea bideratu zuen, Bizkaikoak 6,5 milioikoa eta Arabakoak 2 milioikoa. Gainera, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak aldaketa sumatu du lankidetzarako politika publikoen kudeaketan, kudeaketa opakoa inolaz ere: aurrekontuetan bideraturiko murrizteez gainera, pisu handiagoa eman zaio zuzeneko lankidetzari, eta aurrekontuen exekuzioa ez da guztiz bete.

14 Bizkaiko Foru Aldundia. Bizkaiko Lankidetzako II. Gida Plana 2013-2015.

15 Gipuzkoako Foru Aldundia. Garapenerako Lankidetzaren Foru Plana 2013-2016.

3. grafikoa


Foru Aldundien lankidetzarako aurrekontuen bilakaera



Iturria: Geuk egina, Foru Aldundien eta Euskadiko lankidetzeta publikoaren azterketa 2008-2010: lankidetzeta deszentralizatuari begirada bat txostenaren datuak erabilita.

4. grafikoa

Hiru Foru Aldundiek lankidetzara bideraturiko portzentajea



Iturria: Institutio publikoek berek emaniko eta Euskadiko lankidetzeta publikoaren azterketa 2008-2010: lankidetzeta deszentralizatuari begirada bat txostenetik ateratako datuak erabilita.

Ondoko koadroan ikusi ahal izango dugun bezala, 2014. urtera bitarte eutsi dio Arabako Foru Aldundiak lankidetzarako aurrekontua murrizteko joerari. Urte horretan, berriro handiagotu da aurrekontua, baina 2008ko aurrekontu-sailaren herenera baizik ez da orduan ere iritsi. Arabakoa da Hegoaldeko herrialdeetara bideraturiko aurrekontua gehien murriztu duen Aldundia, eta 2012. eta 2013. urteetan helburu horietarako bereizirik aurrekontu-sailak hiriburu ez diren hiri batzuetako udalenen parekoak izan dira, horra Getxo eta Irun. 2008. urtea erreferentziazat hartuz gero, urte batzuetako aurrekontua urte hartakoa baino bost eta sei bider txikiagoa izan dela ikusten dugu. % 0,7ko konpromisoari dagokionez, betetzetik oso urrun dago Arabako Foru Aldundia: 2014. urtean, esate baterako, lurralde hartako aurrekontu osoaren % 0,25 baizik ez da Hegoaldearekiko elkartasunera bideratu.

Aldundiak 2015. urteari begira emaniko informazioaren arabera, aurrekontu-sailari 2014ko mailetan eusteko asmoa agertu dute bertako agintariek. Halatan, hobetu egingo dira 2012. eta 2013. urteetako aurrekontuak, baina urrun geldituko dira duela lauzpabost urte lankidetzara bideratzen ziren kopuruetatik.

2. koadroa: Arabako Foru Aldundiaren garapenerako lankidetzarako aurrekontua			
Urtea	Aurrekontua (€)	Urtea	Aurrekontua (€)
2008	3.156.258,70	2012	650.565,23
2009	2.819.505,00	2013	563.369,43
2010	2.558.981,00	2014	1.029.788,72
2011	1.884.521,32		

Iturria: Geuk egina, Arabako Foru Aldundiaren eta Euskadiko lankidetzaren publikoaren azterketa 2008-2010: lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat txostenaren datuak erabilia.

Ondoan aurreztuko dugun koadroan, argi asko ikusi ahal izango dugu Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuen bilakaera eta joera ez direla, eurak ere, horren bihotz-altxagarriak ere. % 60tik gorako murriztea jaso dute aurrekontuek 2008tik aurrera. Murrizte horren isla garbia dugu elkartasunera bideratzen diren aurrekontuen portzentaje globala, 2014. urtean % 0,41eko balioa doi-doi gainditzen duena.

3. koadroa: Bizkaiko Foru Aldundiaren garapenerako lankidetzarako aurrekontua			
Urtea	Aurrekontua (€)	Urtea	Aurrekontua (€)
2008	11.019.000,00	2012	7.553.611,63
2009	11.746.260,00	2013	4.140.406,00
2010	10.788.624,00	2014	4.477.087,61
2011	8.585.969,29		

Iturria: Geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadiko lankidetzaren publikoaren azterketa 2008-2010: lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat txostenaren datuak erabilita.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, bestelako bilakaera eta joera erakutsi ditu, Euskadiko beste bi Aldundien aldean. Izan ere, instituziotik Hegoalderekiko elkartasunera bideraturiko aurrekontu orokorretik zuzenean kudeatu den portzentajearen gaineko azterketa alderatzailea egin ondoren, garbi ikus daiteke portzentajeak mantentzen direla edo hobetzeko joera ageri dutela, konpromisoan harturiko % 0,70era iristen ez diren arren: 2014. urtean, % 0,6ra iritsi zen ia-ia Gipuzkoako Foru Aldundia.

Hiru Foru Aldundien artetik, Gipuzkoakoa da aurrekontuetan joera egonkorrena ageri duena. Gainera, bertako Foru Aldundiak aditzera eman duenaren arabera, 2015. urteari begira aurrekontu-saila handiagotzeko asmoa du, baina ez dugu oraindik haren munta ezagutzen eta, beraz, ez dakigu instituzioaren aurrekontu orokorraren portzentajea zertan den.

4. koadroa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren garapenerako lankidetzaren aurrekontua			
Urtea	Aurrekontua (€)	Urtea	Aurrekontua (€)
2008	4.558.648,37	2012	4.089.649,00
2009	4.501.399,00	2013	3.848.120,00
2010	4.475.933,90	2014	3.950.840,00
2011	4.778.116,00		

Iturria: Geuk egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko lankidetzaren publikoaren azterketa 2008-2010: lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat txostenaren datuak erabilita.

Euskal Fondoa

1996an sortu zen Euskal Fondoa–Euskadiko Tokiko Lankidetzaren Erakundearen Elkarteak, Euskal Herriko lankidetzaren deszentralizatuaren sustatzeko eta koordinatzeko tresna gisa, udalek berek

1980. urteen hamarkadan, garapenerako ekintzak eta interbentzioak modu koordinatuago batez proposatuko lituzkeen udalen gaineko erakunde baten premiaren inguruan bideratu zuten hausnarketaren ondorio gisa. Honenbestez optimizatuko zen tokiko eragile desberdinen lana.

Euskal Fondoaren helburu nagusietako bat da lankidetza deszentralizatuan tokiko erakundeen parte-hartzea sustatzea eta haien arteko koordinazioa indartzea eta sendotzea, bai eta tokiko erakundeei garapenerako lankidetza eta kanpo harremanekin loturiko gaietan aholkuak ematea ere. Tokiko erakundeen ahaleginak bateratzeko asmoaz sortu zen Euskal Fondoa, zeinek bere nortasuna galdu gabe, ahalik eta kalitate hobere-neko ekintzak bultzatzeko.

Lankidetzarako funts honek ez du irabaziak lortzeko asmorik eta bere baitara biltzen ditu udalak eta beste instituzio eta erakunde publiko eta pribatu batzuk, pobreturiko herrialdeen garapena sustatzea eta haien aldeko sentsibilizazio kanpainak antolatzea beste helbururik ez duela.

Harturiko konpromisoari segida emanez, instituzio bazkideek garapenerako lankidetzara bideratu duten aurrekontu-sailaren % 10eko diru-kopurua eman behar diote gutxienez Euskal Fondoari ekarpen gisa. Konpromiso honen betetze maila oso bestelakoa da, erakunde bakoitzak garapenerako lankidetzara bideratzen dituen aurrekontuak ere oso bestelakoak diren heinean.

Azken lau urte honetan, krisi ekonomikoagatik ere, handiagotu egin da aurrekontua, hala kuoten sailean nola instituzio bazkideek eta ez bazkideek egiten dituzten diru-ekarpenen sailean. Azkenaldi honetan, ahalegin berezia egiten ari da Euskal Fondoa ohiz kanpoko finantzatzaileak lortzeko, betiko bazkideak funtsaren parte izaten segitzeko adoretzen dituen bitartean.

5. koadroa: Euskal Fondoaren aurrekontua 2011-2012-2013			
Urtea	Diru-izendatzeak (€)	Kuotak (€)	Guztira (€)
2011	1.837.796,80	175.715,00	2.013.511,80
2012	1.933.499,01	207.786,91	2.141.285,92
2013	2.341.228,43	213.201,82	2.554.430,25

Iturria: Geuk egina, Euskal Fondoak emaniko datuak erabilita.

Udalei barreiatze geografikoa saihesteko eginiko gomendioez gainera, Euskal Fondoa ahaleginak lehentasunezko bost herrialdeetara biltzen saiatzen ari da. Hona hemen zein diren: El Salvador, Guatemala, Nikaragua, Kuba eta Mendebaldeko Sahara. Saharako Errepublika

Arabiar Demokratikoko pertsona errefuxiatuen kanpamenduen ageriko kasuaz gainera, Giza Garapen Indize¹⁶ (GGI) ertaineko herrialdeak dira lehenetsiriko gainerako herrialdeak, goi mailakoa Kubako kasuan.

Urte hauetan zehar, askotariko erakunde politikoa izatea lortu du Euskal Fondoak, eta indar politikoen korrelaziotik kanpoko dinamika baten arabera jarduna bultzatu du, alderdi politikoen mendean ez jardutea lorturik (ez da hori Estatuko beste lankidetzak funts batzuetan gertatu). Bestalde, bere egiteko koordinatzaileari eutsi dio, eta etengabe ahalgindu da lankidetzari horren eraginkorra izaten uzten ez dioten barreiatzeak saihesten (geografikoak, arloen arabera, eta abar).

Udalak

Udala da herritarren parte-hartzerako bide zuzenena eta hurbilena, eta bera da, orobat, elkartasunerako politiken premia jasotzen duen lehen instituzioa. Bestalde, sentsibilitate handiagoa ageri ogi dute udalek herritarren eskaeren aurrean eta, beraz, askotarikoa izaten da nazioarteko lankidetzak lurraldeetatik orientatzen eta bultzatzen den modua. Udaletako errealitate soziopolitikoa bezain askotarikoa eta aldakorra izan ohi da tokiko eta lurraldeetako erakundeetatik bultzaturiko lankidetzak.

Oro har, konpromiso handiagoa, denboran egonkorreagoa bestetan baino, sumatzen da Gipuzkoako udalerrietan, Araba eta Bizkaikoetan baino.

Bereizi egingo ditugu ondoren, Hegoaldeko herrialdeekiko elkartasunerako konpromisoa eutsi dioten udalerriak eta konpromiso horretan ahuleziak ageri dituzten udalerriak.

Hitzarmenari eutsi dioten udalerriak ditugu aurreko urteetako aurrekontu maileri eutsi dietenak edo, garapenerako lankidetzarako aurrekontuak murriztu badituzte ere, murrizte horiek beren udal aurrekontu orokorretan bideraturiko murrizteen parekoak izan direlarik, antzeko portzentajeari eutsi diotenak. Egoera osoa azaltzeko, esan dezagun udal batzuek eutsi diotela % 0,7arekin zuten konpromisoari, eta ez da gainera portzentaje hori gaitu duenik falta, zoritxarrez gutxi badira ere. Garapenerako lankidetzarako aurrekontuak murriztu dituzte udal gehienek, modu kezagarrian zenbaitetan, eta bada sail hori aurrekontutik guztiz ezabatu duenik.

Aurrez adierazi dugun bezala, oso bestelakoa eta heterogeneoa da tokiko euskal erakundeek garapenerako lankidetzara bideratzen dituzten jardueren errealitatea. Aurreneko iragazkia gure lurraldeko hiriburu diren udalerriak bereiztea; izan ere, erabiltzen dituzten baliabideen

16 Euskal Fondoak 2013. urtean lehenetsitako herrialdeen GGla: El Salvador (0,662); Guatemala (0,628); Nikaragua (0,614); Kuba (0,815); eta Mendebaldeko Sahara.

bolumena dela-eta, badute eurek ere beren marko instituzionala eta beren lankidetzarako politika. Halatan, lankidetzarako zerbitzuak, aurrekontu-sail espezifikokoak, lankidetzarako udal kontseiluak, geografiaren eta arloen araberrako lehentasunak, diru-laguntzetarako deialdi publikoak eta zuzeneko lankidetzeta esperientziak baliatzen eta bideratzen dituzte.

Gainera, giza baliabide espezializatuz hornitu dira urteetan barrena, politika horien nondik norakoa gidatzeko eta orientatzeko. Baliabide horietaz hornitu dira hiru euskal hiriburuak, haietako bakoitzean bilakaera hori oso bestelakoa izan bada ere (zenbaitetan ez oso positiboa azken urte hauetan).

Bilboko Udala

Bilboko Udalak 1995. urtetik hartu ditu aintzat lankidetzarako aurrekontu-sailak eta 2001. urtetik esleitzen ditu nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak, Berdintasun, Garapenerako Lankidetzeta eta Bizikidetzeta arloak kudeatzen dituenak. 2004. urtean eratu zen Lankidetzarako Udal Kontseilua.

2006. urtetik aurrera, plan zuzendari batzuen bitartez orientatu da Bilboko garapenerako lankidetzarako politika. Egun, 2010-2013 bitarteko Plan Zuzendaria da betiere erreferentzia. Bilboko Udalak 2007an bere ohiko gastuaren aurrekontuaren % 0,7a Hegoaldearekiko elkartasunera bideratzeko konpromisoa hartu bazuen ere, konpromiso hori inoiz ez da bete.

Tamalez, aurrekontua murrizteko joera erakutsi du Bilboko Udalak azkenaldi honetan, hala kopuru absolutuetan nola aurrekontu orokorrarekiko portzentajeari dagokionean. 2009. urtetik, milioi bat euro gutxiago, hau da, aurrekontuaren herena gutxi gora-behera, bideratu da lankidetzara.

Udalak berak emaniko informazioaren arabera, 2015. urtean 1.998.204 €ko aurrekontuari eutsiko dio Bilboko Udalak lankidetzari begira, 2013an bezalaxe.

Donostiako Udala

Donostiako Udalak lankidetzari begira kontutan hartu zituen aurreneko ekimenek 1980. urteen hamarkadara eramango gaituzte. Gizartearen eta herritarren aldarrikapenen fruitua izan ziren, Saharako herriaren aldeko kanpainak ziren orduan gehienak. Eskari haien ondorio dugu Donostiako Hiriaren eta errefuxiatu sahararren Bojador Daira kanpamendu lekuaren arteko senidetzeta. 1994. urtean hasi ziren geroko Lankidetzarako Negoziatuaren oinarriak finkatzen eta Lankidetzeta, Gizarte Ongizate eta Mugikortasunerako Ordezkaritzaren barruan dago egun.

Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako Kontseiluaren aurrekariak 1996. urtean kokatu behar dira. Dena dela, Nondik Nora partaidetzeta prozesua (2003-2005) gauzatu

eta gero erabaki zen Kontseilua berrabiatzea lehentasuntzat hartzea, eta araudi berri bat, denon artean kontrastatua eta adostua, ezartzea. Partaidetza prozesu horretan garai hartan lankidetzan aritzen ziren Donostiako erakunde guztiek esku hartu zuten helburu honekin: Udalaren lankidetzak politika hobetzeko lehentasunezko lan ildoak denon artean ezartzea.

Azkenik, formalki berrabiatu zen eta 2008an funtzionatzen hasi zen Lankidetzak eta Garapenerako Hezkuntzako Udal Aholku Kontseiluaren arautegian oinarrituta, 2008ko otsailak 26an onartu eta urte bereko apirilaren 2an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

2011. urteko bukaeran, Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzari begira aintzat hartu zen aurreko Udal Plana ebaluatu zuen Donostiako Udalak, eta Plan Zuzendaria 2012-2015 onartu zen ondoren. Ebaluazioan argi eta garbi onartu zen Udalak ez zuela bere sarreraren lehen kapituluetakoa aurrekontuaren % 0,7 garapenerako lankidetzarako bideratzeko hartu zuen konpromisoa bete. Bere indarraldian onartuko eta gauzatu diren aurrekontuen % 0,7 lankidetzarako bideratzeko agindua zehaztu du egun indarrean den Plan Zuzendariak. Konpromiso hori ere ez da bete.

Egun, garapenerako lankidetzari begira udal politikak bideratzen eta bururatzen ahalegintzen ari dira gai honetan parte hartzen ari diren politika eta gizarte eragileak, beren gestioaren berri emanez, politiken oinarrian datzan ideologiaren gainean hausnartuz, jarduerarako ereduak proposatuz eta erabakien jarraipena eginez. Gune horretan kopuru esanguratsuan hartzen dute parte hiriko GGKEek, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak ere ahotsa du bileretan.

Garapenerako lankidetzarako aurrekontu-sailak hein txiki batean murriztu dira azken urte hauetan, baina hiriko aurrekontu orokorrekiko proportzioari gutxi gora behera eutsirik.


Gasteizko Udala

Gasteiz izan zen, estatu osoan, aurrekontuaren % 0,7 garapenerako lankidetzarako bideratu zuen aurreneko udala, 1998an hain zuzen ere. Aitzindaria izan zen lankidetzarako zerbitzu berezi batez hornitu zenean eta lankidetzarako Udal Kontseilua¹⁷ abiarazi zuenean, bai eta lankidetzarako tresna batzuk landu zituenean ere. Aitzindari izan zen, halaber, garapenerako hezkuntza sustatzeko momentuan eta genero berdintasunaren aldeko sentsibilizazioan.

17 Lehen lankidetzarako eragileen parte-hartzearen eredu bazen ere, lankidetzarako Udal Kontseiluak biziki murriztu ditu egun bere bilera-deialdiak eta informazioarako gunea baizik ez da. Izaera hau dela eta, arras murriztu da GGKEen parte-hartzea bertan.

Tamalez, goitik behera aldatu zen hiriburu honen jarrera 2012an¹⁸, lankidetzarako ekarpenak ordura arte sekula ezagutu ez ziren mailetara beharatu. Murrizteek beren horretan iraun dute eta 2015. urteko aurrekonturako 56.000 €¹⁹ baizik ez dira izendatu garapenerako lankidetzari begira. Aurrekaririk gabeko murrizteen aurrean gaude, beraz, 2012koa baino aurrekontu txikiago batez.

Zera nahi dugu, konklusio gisa, Euskadiko GGKEen Koordinakundetik azpimarratu, Gasteizko Udala Hegoaldearekiko elkartasunerako konpromisoan jarraitu beharreko eredia izatetik krisi ekonomikoa lankidetzaren aurkako ideologia politiko baten alde erabili eta instrumentalizatu duten batzuen adibide negatiboa izatera igaro dela.



Iturria: Geuk egina, instituzioek berek emaniko datuak erabiliz.

Beste udal batzuk

Hona hemen hiriburu ez diren euskal udalerrien gaineko azterketa. Lan honetan aintzat hartu diren udalerrri gehienek izendatua dute lankidetzarako aurrekontu-sailen bat, 2011 eta 2014 urteen bitartean aurrekontu horiek murrizteko joera nabaritu den arren.

18 2012. urtean, hiriburu ez diren beste hiri batzuetakoen antzekoa, are txikiagoa, zen Gasteizko lankidetzarako aurrekontua (horra Getxo eta Irun).
 19 Aurrekontu honetan ez dira lankidetzarako diru-sailaz arduraturiko langileen soldatak sartu.

Udal horien zati esanguratsu batek Euskal Fondoaren bazkide izaten segitzen dute eta funts horretara bideratzen dute lankidetzarako dituzten aurrekontuen zati bat, nahiz, arestian adierazi dugun bezala, haien ekarria askotarikoa eta oso bestelakoa den. Izan ere, funts horren erronka nagusietako bat da tokiko erakundeek lankidetzarako konpromisoari eustea.

Badira, halaber, Euskal Fondoaren bazkide izan gabe funtsera aldiaren behin edo une jakinetan ekarpenak egiten dituzten udalak. Laguntza garrantzitsua dira ekarpen horiek. Euskal udalerrri gehienek bat daukaten ezaugarrietako bat dugu, hain zuzen ere, lankidetzarako politikak gizarte zerbitzuetarako departamentuetan edo antzekoetan diluitzen direla²⁰. Bada departamentu horietako teknikarien kargu egoten dira politika horiek -emakumeak izaten dira eskuarki teknikari horiek-, eta beste erantzukizun askorekin batera hartzen dute ardura hori.

Udaletan ari diren profesionalak oso ezagutza eta motibazio maila desberdinak dituzte lankidetzari dagokion honetan; inplikazio maila handiko pertsonekin topo egin dezakegun bezala, lankidetzaren beren lanean behar ez zen gaitzartat hartzen duten profesionalak ere ari dira eginbide honetan.

Krisi ekonomikoak eragin handia eduki du, batere zalantzarik gabe, euskal udalerrietan, eta denek ikusi dituzte beren aurrekontu orokorrak murrizturik, egoera berrira egokituko baziren. Egokitzeko ahalegin horretan, lankidetzari begira duten konpromisoari eutsi diote udal batzuek. Hori bai, txikiak eta aurrekontu apalekoak dira horiek guztiak. Beste batzuek, aldiz, egoera ekonomiko konplexuaren aitzakiaz baliatu dira aurrekontu-sail horiek murrizteko edo ezabatzeke, haien posizionamendu politikoa eta ideologikoa argiro islatuz.

Tokiko erakundeek igorri genien galdeketa azken atalean, zuzenean galdetu genien udalei 2015ean lankidetzarako aurrekontu-saila handiagotu, bere horretan eutsi edo murrizteko asmoa ote zuten²¹. Galderari erantzun zioten udal gehienek aurrekontu-sailari eusteko borondatea agertu zuten eta udal multzo txiki batek adierazi zuen handiagotu egingo zuela²². Udal bakar batek ere ez du aurrekontu-saila murrizteko edo ezabatzeke asmoa azaldu, baina gure ustea da, horrelakorik egonez gero, galdeketa galdera horri erantzun ez zioten udalen artekoa izango dela.

Berriro ere, konpromiso maila handiagoa sumatu dugu Gipuzkoako udaletan, alde bat utzirik haien tamaina eta aurrekontu orokorra. Kezkaz ikusten dugu udal gehienek lankidetzarako aurrekontu-sailak handiagotzea kontutan hartu ez izana, azken lau urte honetan gutxi gora-behera % 20 murriztu badira ere.


20 Bereziki aipatu beharra dago kasu honetan Getxoko Udala, berezko Lankidetzaren Zerbitzua baitu, Lehendakariaren Arloaren barruan.

21 Kasu gehienetan, galdeketa erantzun zioten garaian 2015erako udal aurrekontuak onartu gabe zeuden udal gehienetan, horregatik agertu zuten asmoa, eta ez erabakia.

22 Hona hemen 2015ean lankidetzarako aurrekontu-saila handiagotzeko asmoa agertu duten tokiko erakundeak: Azkoitia, Eibar, Hondarribia, Ordizia eta Zumaia.

6. grafikoa

Udalek 2015ean garapenerako lankidetzara bideratuko dituzten aurrekontu-sailen aurreikuspena (€)



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.


Gutziz frogatu dugu zeinen zaila den Euskadin lankidetzara guztira bideratu den diru-kopurua zehaztea. Metodologiaren gaineko atalean azaldu dugun bezala, lankidetzarako aurrekontuak dituzten instituzioen % 75ek hartu dute parte azterketan, eta horien artean daude Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, hiru Foru Aldundiak eta hiru hiri-buruetako Udalak. Halatan, analisisian udal batzuek parte hartu ez izanak inolaz ere ez ditu emaitzak modu esanguratsuan bihurritu edo faltsutuko, haien lankidetzarako ekarpenak oso portzentaje apala dakartelako.

Kopuru absolutuei dagokienez, Euskaditik garapenerako lankidetzara bideratzen den diru-kopurua murriztu egin da arian-arian: 2014. urtean ez ziren 54 milioi eurora iritsi, 2011ko 77 milioi euro pasa baziren ere.

Kopuru globalak aintzat hartuz gero, argi eta garbi ikusten dugu Euskadiko garapenerako lankidetzara bideratzen den diru-kopurua 25 milioi euro murriztu dela 2008tik hona, hau da % 22tik gora, eta balio hori dezente handiagoa dela BPGa murriztu den portzentajea baino.

7. grafikoa

Krisiaren ondorioak Euskadin lankidetzaz bideraturiko guztizko diru-kopuruan (€)



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

2013. urtea bereziki korapilatsua izan zen Euskadiko lankidetzarako, batez ere Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bere aurrekontuan bideratu zuen murriztearengatik, 13 milioi eurora mugatu baitzuen bere aurrekontua.

% 0,7aren aldeko konpromisoari dagokionez, urrun gaude lortzetik; areago, konpromiso hartatik urruntzeko joera nabaritu da azken urte hauetan. Lurraldeetako errealitateei bagagozkie, alde garrantzitsuak sumatzen dira elkarren artean eta Gipuzkoa da, oro har, nazioarteko erabaki hori lortzetik hurbilen ari dena.


Eusko Jaurlaritzak % 0,7tik urruntzeko joera gero eta nabariagoa ageri du: % 0,35 baizik ez zuen iritsi 2014an, 2011n ia % 0,5era iritsi eta gero.

Aberastasunaren % 0,7 lankidetzaz bideratzeko nazioarteko konpromisoak indarrean dirau betiere eta ez da betetzen ari Euskadin, ez eta Estatuan ere, baina Europako herrialde batzuek, horra Irlanda eta Erresuma Batua, lankidetzarako aurrekontua handiagotu dute, krisiaren eraginagatik ere. Lankidetzaz deszentralizatuaren esparruan, hortxe dirau % 0,7ko zerumugak eta horixe da betiere lankidetzarako Euskal Legeak agintzen duena. Hala eta guztiz ere, bereziki azpimarratu behar dugu berriro ere portzentaje horiek instituzioen guztizko aurrekontuaren arabera direla, eta nazioarteko agindua BPGaren arabera dela. Parametro hori kontuan hartzen badugu, Euskadik bere BPGren % 0,13 bideratuko luke, gure kalkuluen arabera, 2015ean lankidetzaz.

Euskadiko administrazio maila bakoitzak 2014. urtean eginiko ekarpenak kontuan hartuz gero, argi eta garbi ikusiko dugu guztizko kopuru horren erditik gora bideratzen duela Eusko Jaurlaritzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez, % 64, hain zuzen ere.

8. grafikoa

Garapenerako lankidetzaren banaketaren portzentajea instituzioen arabera 2014. urtean



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

Erakunde desberdinen arteko banaketak egonkor dirau, gutxi gorabehera, denboraren emanean baina, pixkana-pixkana bada ere, handiagotuz doa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren portzentajea.

Oraingo honetan krisiak Euskadik lankidetzara bideraturiko diru-kopuruetan eduki duen eragina aztertzen ari garen bezala, epigrafe oso bat opatuko diegu geroago krisiak sektorean, lanean ari diren pertsonengan, eduki dituen ondorioei.

2.3. Laguntza nola banatzen den

2.3.1. Laguntza nola kudeatzen den: zuzeneko lankidetzaren eta zeharkako lankidetzaren

Ondoko epigrafean saiatuko gara garapenerako lankidetzaren azken lau urte honetan nola kudeatu den ikusten. Zuzeneko lankidetzaren kudeaturiko laguntza aipatu eta aztertuko dugu lehenbizi, eta zeharkako lankidetzaren kudeaturikoa ondoren.

Zuzeneko lankidetzaren

Zuzeneko lankidetzaren dugu instituzioak zuzenean bideratzen duena. Lankidetzarako Euskal Legeak zehazten eta arautzen du, haren portzentajea bideratu nahi duten instituzioek guztira bideratuko dituzten lankidetzaren % 10era mugatuz.

Zuzeneko lankidetzak da Iparraldeko tokiko erakundeek Hegoaldeko gobernuekin edo erakunde publiko nahiz pribatuekin zuzeneko laguntzari begira duten lotura baten bitartez (hau da, beste GGKEen edo erakunde mota batzuen bitartekaritza gabe) bideratzen duten lankidetzak mota. Lotura horri esker, zuzenean hartzen dute parte ekimenen identifikazioan eta exekuzioan.

Lankidetzak mota honetan giza baliabide eta bitarteko ekonomikoen transferentzia hartzen da kontutan, eta tokiko gobernuek garatzen dituzten politika publikoen esparruan bideratzen dira eskuarki, ez ordea beti.

Zuzeneko garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa dira Iparraldeko instituzioak zuzenean finantzatzen eta bururatzen (edo bururatze prozesuan laguntzen) dituen arloak. Jarduera horiek beste instituzio eta garapenerako eragile batzuekin koordinaturik bideratzen ditzake Iparraldeko instituzioak, baldin eta tokiko administrazioak modu eraginkorrean hartzen badu parte ekimenen identifikazioan, finantzazioan edo exekuzioan.

Arestian egin duen bereizketatik ere, zuzeneko lankidetzaren barrukotzat hartu ditugu GGKEekin diru-laguntzetarako deialdi publikorik egin gabe izenpetu diren hitzarmenak. Arrazoia izan da datuen jasotze prozesuan instituzio gehienek diru-laguntzetarako deialdi publikoetako diru-kopurua baizik ez dutela ezagutzera eman, gainerako modalitateei dagokien kopurua batera emanik, hitzarmenak egin diren edo ez zehaztu gabe. Iruditu zaigu horixe zela gure azterketarako funtsezko ziren kopuruak ez galtzeko modu bakarra.

Zuzeneko lankidetzaren arrisku nagusietako bat da haren balizko erabilera alderdikaria, instituzio jakin batzuk batez ere kideatasun politikoak/ideologikoak direla medio bultzatuz. Hegoaldeko aldaketa politikoak bat-batekoak izan daitezke eta ez dezagun ahanztza Euskadiko errealtate politikoa ere dinamikoa dela eta lotura politikoan edo ideologikoan oinarrituriko lankidetzak mota hori aldaraz dezaketen lidergo-aldaketak gerta daitezkeela, honako edo harako lankidetzak beti herritarren presioaren pean egongo den arren.

Arrisku horiengatik guztiengatik ere, beti uste izan du Euskadiko GGKEen Koordinakundeak esperientzia mota horiek irakurketa positiboa eduki dezaketela baldin eta metaturiko ezagutzak eta gestio-esparru espezifikotan eta udal estrategietan sorturiko gaitasunak behar bezala baliatzen badira, tokiko esparruekin zuzeneko lankidetzarako modalitateen bitartez erlazionatuz eta instituzioen beste arloetako proiektuetan parte hartuz. Halaz ere, beti azpimarratu izan dugu zuzeneko lankidetzak gehiago eta hobekiago arautu beharra, esleitzeko irizpideak zehatz-mehatz jasotzeko, kontuan harturik plan zuzendarien araberakoak behar luketela izan. Horrelakorik izanez gero, gardentasun osoz gauzatu ahal izateko, haien gaineko informazioa lankidetzarako kontseiluetara emanez. Lankidetzarako Euskal Legeak berak lankidetzarako dituzten funts guztien % 10eko muga zehaztu die, 9.3 artikuluan, lankidetzarako proiektuak zuzenean bideratu nahi dituzten instituzioei.

Zuzeneko lankidetzarako tresnak:

- **Senidetzeak:** Tokiko erakundearen arteko loturak dira (udalak dira eskuarki, baina eskualdeak, mankomunitateak, barrutiak, eta abar izan daitezke). Askotariko ekintzak eta jarduerak antolatzen dira haien izenean, udal bi edo gehiagoko pertsona askoren partaidetza bideratuz. Epe tokiko agintarien arteko epe ertain-luzeko konpromisotzat hartuak dira, proiektu zehatz baten exekuzioaren arabera elkarlan puntualetik harantzago doan zerbait izanik. Epe luzerako duten bokazioa dela eta, birdefinitu behar izaten dira haien oinarriak senideturiko erakundearen testuinguru dinamikoaren beharretara aldiro egokitzeko. Formatu horri jarraiki, nazioarteko lankidetzarako programak bideratzen hasi ziren udal batzuek lotura berezia –politikoa, ideologikoa, soziala, edo beste molde batekoa– zuten lurraldeetan. Euskadiko joera nagusia izan da euskal erakundeak SEADeko Dairekin eta Erdi Amerikako udalekin senidetzea.

Hauek oso onarpen zabala jasotzen dute udalerrira senideetako herritarren artean, batez ere neurri ertain eta txikiko udalerrietan, eten gabe eutsi baitzaie senidetzei horrelakoetan, loturak hertsia egotuz. Berezi aipatzekoak dira SEADeko Dairekin eginkoak, haurren harrerarako programen bidez osatuak baitira, herritarren parte-hartzea eta konpromisoa indartuz.

- **Lankidetzaren teknika:** Ezagutzen transferentzia da protagonista nagusia, eta baliabide ekonomikoekin batera bideratzen da transferentzia hori. Uki ditzakeen arloak bezain askotarikoa da lankidetzaren teknika eta Hegoaldeko erakundearen premien eta Iparraldeko erakundearen gaitasunen arabera izaten da neurri handian. Lankidetzaren mota honetan zuzenean hartzen dute parte Iparraldeko eta Hegoaldeko tokiko administrazioetako teknikariek. Gure ustez, elkarren ikaskuntzarako tresna da, askoz gehiago bultzatu eta sustatu beharko litzatekeena.
- **Ekarpenak lankidetzarako funtsetara:** Lankidetzarako tokiko funtsek aukera interesgarria eskaintzen dute ahaleginak batzeko, ahalegin ekonomikoak ez ezik, administrazioak eta teknika ere. Horrez gainera, ekintzen eta jardueren koordinazioa eta osagarritasuna bultzatzen dituzte, kalitate eta eragin handiagoko proiektuak bururatzeko eta haien iraunkortasuna segurtatzeko. Euskadin, horien adibidea dugu Euskal Fonda.
- **Zeharkako lankidetzarako beste tresna batzuk** dira euskal GGKEekiko eta herrialde jasotzaileko GGKE edo gizarte mugimenduekiko hitzarmenak.

Zeharkako lankidetzaren

Instituzio publiko baten zeharkako lankidetzaz mintzo garelarik, funts publikoaren bitartez bideratzen den lankidetzaz ari gara. Hona hemen, Lankidetzarako Euskal Legeak lankidetzaren eragile gisa ezagutzen dituen erakunde motak: garapenerako gobernuaren kanpoko erakundeak eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuk.


Zeharkako lankidetzaren mamiaz ongi jabetzeko, ongi ulertu beharra dago instituzio batek finantzatzen duela eta euskal gizarte zibileko lankidetzarako beste eragile batek, herrialde jasotzaileko erakundeekin batera, bururatzen duela lankidetzaz eta haren gaineko kontuak ematen dituela.

Zeharkako garapenerako hezkuntza eta/edo sentsibilizazioa dugu erakunde publiko batek legezko eragile batek, GGKEek gehienetan, garapenerako hezkuntzari eta/edo sentsibilizazioari begira aurkeztu eta bururatu beharreko ekimenaren finantzazioan parte hartzen duen lankidetzaz mota. Diru-laguntzetarako deialdi publikoa dugu zeharkako lankidetzaz bururatzeko gehien erabiltzen den formatua.

GGKEek bideratzen eta bururatzen duten lankidetzaz kontrol zorrotz baten jomuga izaten da prozesu guztian zehar. Halaz ere, zuzeneko lankidetzaren kasuetan ez dira aintzat harturiko ekintza eta jardueren gaineko kontuak ematen. Horrexegatik uste dugu, GGKEek kudeaturiko lankidetzaz kasuetan gertatzen den bezala, modu ahalik eta gardenenean kudeatu behar dela, iritzien araberrako jarrera alderdikari guztiak saihestuz.

9. grafikoa

Lankidetzarako aurrekontu-saila kudeatzeko era Euskadin (%)



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.


Grafikoaren araberraz, euskal lankidetzaren zati handiena, % 90 inguru azkeneko lau urte honetan, GGKEen bitartez kudeatzen da, diru-laguntzetarako beharreko deialdi publikoa egin ondoren.

Grafiko hau eta Euskadin oro har garapenerako lankidetzari buruz egin diren gainerako guztiak ongi ulertzeko kontuan hartu beharra dago Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emaniko datuak direla aurrekontu-kopuru handien dutenak eta, beraz, grafiko horien guztien joera markatzen dute. Adibide gisa ikus dezakegu nola 2013. urtean Euskadiko zuzeneko lankidetzaren guztira % 7ra murriztu zen: bada instituzio horrek urte hartan lankidetzaren mota hori finantzatu ez izana dugu murrizte horren arrazoia.

Hasieratik beretik ondoriozta dezakegun konklusioa da hiriburu ez diren udalerriek zuzeneko lankidetzaren modalitatea lehenesteko joera ageri dutela, eta gainerako instituzioek diru-laguntzen bitartez bideratu eta GGKEek kudeatu beharreko zeharkako lankidetzarako tresnen aukera egiten dutela betiere.

10. grafikoa

Euskadiko zazpi instituzio publiko nagusien lankidetzarako aurrekontuen kudeaketa moduak (%)




Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

Udal txiki gehienek, Euskal Fondon duten partea betetzeaz gainera, diru-laguntza txikiak ematen dituzte, zeinek bere gaitasunen arabera. Koadroan ikus dezakegun bezala, udal batzuek zuzeneko lankidetzaren aldeko hautua egiten dute, GGKEekin hitzarmenak eta akordioak sinatuz eta beste modalitate batzuk indartuz, adibidez; Saharako eta Sobiet Batasun ohiko haurren, neska eta mutikoen harrerarako programak. Udalek zuzeneko lankidetzaren alde egin duten aukera honen zuzeneko ondorioa da deialdi publikoen bidezko diru-laguntzen bolumena gero eta txikiagoa izatea.

11. grafikoa

Hiriburu ez diren udalerrien garapenerako lankidetzarako aurrekontuak kudeatzeko moduak



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

2.3.2. Lankidetza motak

Euskadin hiru lankidetza mota bereizten dira tokiko erakundeek lankidetzarako aurrekontua kudeatzeko eta gauzatzeko unean: garapenerako lankidetza, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa, eta ekintza humanitarioa eta larrialdietarako laguntza.

6. koadroa: Garapenerako lankidetza motak 2013-2014		
	2013 (%)	2014 (%)
Ekintza humanitarioa eta larrialdietarako laguntza	3	8
Garapenerako lankidetza	78,4	79
Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa	14,6	11
Beste batzuk	4	2

Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

Garapenerako lankidetza

Garapenerako lankidetzara biltzen dira bizi-baldintzak hobetzeko eta bizimodu duina eta autonomoa lortu arte beren gaitasunak osotasunez garatzeko laguntza behar duten

pertsona, herri, lurralde eta herrialdeekiko elkarlanari begira aintzat harturiko politikak, ekintzak, jarduerak, proiektuak eta programak²³.

Estatuko gainerako lurraldeetan ere gertatzen den bezala, nazioarteko lankidetzarako proiektuak dira nagusi euskal lankidetzan, oinarritzko laguntza mota gisa.

Esku hartze hauetan prozedura guztiz zorrotza bideratu beharra dago helburuak eta emaitzak identifikatzerakoan eta definitzerakoan, adierazle egiaztagarriak lantzerakoan, eta aurrekontuen plangintza, ekintzen jarraipena eta ondoko ebaluazioa proiektuaren zikloaren metodologiaren arabera bideratzerakoan, hori baita egun gehien erabiltzen dena.

Nazioarteko lankidetzaren dugu presentzia handien duen modalitatea, eta ez da hezkuntzarekin edo sentsibilizazioarekin edota ekintza humanitario eta larrialdietarako esku hartzeekin nahasi behar. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren kontutan harturiko jarduerak beren baitara biltzen dute garapenerako lankidetzarako guztizko aurrekontuaren zati handiena: 2014. urtean Euskadiko instituzioen aurrekontu guztien baturaren % 78,4 bideratu zen modalitate horretara.

Lankidetzaren bideraturiko aurrekontu-sailak kudeatzeko modua ere desberdina da instituzio batzuetan eta besteetan. Deialdiak baliatzen edo aurrekontu-sailak urteko exekuzioa eta, beraz, irismen mugatuko eta helburu oso zehatzetako proiektuetara bideratzen dituzte euskal administrazio publiko gehienek. Proiektu askok segidarik ez dutelarik, ezin formula daitezke epe ertain edo luzeko garapen-ekintzak. Honi guztiari beste zailtasun bat erantsi behar zaio, proiektuak garatu beharreko ekintzen arabera formulatu behar direlako eta denbora-epe jakin batera mugatu beharra dagoelako. Honez gainera, lankidetzaren ekintzaren neurketa eta ebaluazioa zailtzen ditu honek guztiak, garapenerako lankidetzaren kalitatean berealdiko eragina edukiz.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lankidetzaren programetarako tresna berri bat sortu zuen 2007an epe luzeko prozesu integralak sustatzeko asmotan. Programa hauen denbora eta finantza helmena handiagoa da, beren bizitzako ziklo osoan jardueraren egokia, identifikaziotik ebaluaziora arte ziurtatzeko. Haiei esker, prozesuak askoz ere modu estrategiko eta koherenteagoetan planteatzen dira eta haien eragina beste tresnek eskaintzen dutena baino handiagoa da epe luzean. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak garai batean haren aldarrikapen gartsua egin zuen arren, hartan sartzeko eta irauteko dituen baldintza murriztaileak berrikusteko eskaera egin du egun, emaitza estrukturalak benetan lortu ahal izateko. Laguntza horien jasotzaileak dira, beren espezializazio maila handiagatik eta beren gizarte, finantza, estrategia eta gestio gaitasunagatik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak alde aurretik horietarako aukera izan dezaten izendatu dituen euskal

23 Celorio Díaz, Gema eta López de Munain, Alicia (koord.) (2007), Diccionario de Educación para el Desarrollo. Vitoria-Gasteiz. Hegoa.

lankidetzak-erakundeak. Tresna honen konplexutasun burokratiko handia da eta hartan parte hartu ahal izateko eskatzen diren baldintzak gehiegizkoak: oso gutxi dira, beraz, modalitate honen bidetik jo ohi duten GGKEak. Honez gainera, bereziki aipatu nahi dugu 2013an ez zela programen diru-laguntzetarako deialdirik egin.

Proiektuaren ziklo osoari erantsi zaion burokrazia karga gero eta handiagoak behartu ditu GGKEak giza baliabideetan indartzera, laguntzaren kalitateari begira garrantzitsuagoak diren beste esparru batzuetarako, hau da, esku hartzeen diseinu, jarraipen eta ebaluazioarekin loturiko alderdietarako, finantza bideak erreserban utziz.

Aurrerago aztertuko ditugu xehekiro Euskadiko instituzio publikoek lankidetzarako proiektuak onartzeko aintzat hartzen dituzten lehentasunak eta laguntzen egiazko jomuga.

Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza

Garapenerako hezkuntzaz hitz egitea giza eskubideen, bakearen, justiziaren eta pertsona eta gizartearen duintasunaren alde konpromisoa harturiko hezkuntza eragile batez hitz egitea da. Iparraren eta Hegoaren arteko harremanen errealitatea ulertzen, jarrera arduratsuak garatzen, zentzu kritikoa gureganatzen, aurreiritziak desarmatzen eta herri pobretuen aldera jarrera solidarioak sustatzen laguntzen gaitu.

Hezkuntza prozesutat hartzen dugu betiere garapenerako hezkuntza (formala, ez-formala eta informala), ezagutza, jarrera eta balioen bitartez, herritartasun globalerantz etengabe bideratua den hezkuntza prozesua. Sentsibilizazio, ikerketa, prestakuntza eta ekintzetarako proposamenak planteatzen ditu herritarrak gizartearen aldaketan modu eraginkorrean parte har dezaten, eta giza eskubideak bultzatzen ditu mota guztietako desberdintasunen salaketan parte hartzeko. Parte-hartze komunitarioa sustatzeko eta, harekin batean, emakumeen eta kolektibo ahulen ahalduzko prozesua sendotzeko konpromisoa hartu du, giza garapen iraunkorren ezinbesteko faktore bultzagileak diren aldetik. Prozesu honetan ez dira ekintza puntualak aintzat hartzen, baizik eta guztiz planifikatu eta askotariko jendeagana bideratu diren proiektuen osagarri gisa ulertzen da.

Horrexegatik uste dugu garapenerako hezkuntza gizartearen aldaketarako funtsezko elementua dela, pertsonen, zein jatorrikoak diren erreparatu gabe, jarrerak eta gaitasunak aldatzen lagunduz, justizia sozialaren alde.

Terminoaren beraren eta gure jardueraren bilakaeraren barruan hasi ginen gizartearen aldaketarako hezkuntza terminoa erabiltzen. Horrenbestez, errealitatearen gaineko azterketarako irizpideak eta tresnak eta pobretzearen egiazko arrazoien gaineko informazioa eskaintzen dizkigun prozesu gisa ulertzen dugu hezkuntza. Balio eta jarrera solidario eta kritikoen garapena eta barneratzea sustatzen ditu prozesu honek, pertsonak beren ekin-tzen erantzule eta jabe izan daitezzen eta, beren aldetik, balio eta jarrera horien garape-

na beste esparru batzuetan bultzatzen. Urratu eta zabaldu nahi ditu, horrenbestez, gizartearen parte-hartze eta mobilizaziorako bideak Iparraldeko herritarren artean pentsamendu kritikoa sustatzeko. Gizartearen aldaketa bakoitzarekin konpromisoa harturiko hezkuntza da, pertsonak bizitzeko gune bihurtuko dituen paradigma-aldaketaren aldeko ekinean, gero eta gizarte justuagoak eta ekologikoagoak sortzeko.

Gure helburua izango da sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren mugari berriak ulertzea, garapenerako lankidetzaren eta instituzio nagusien ikuspegi desberdinetan txertatzea, eta haietako bakoitzean lehentasuna duen zerbaitez hartuak izatea.

Azterketaren emaitzen arabera, Euskadin garapenerako lankidetzara bideratu zen guztizko kopuruaren % 14,6 erreserbatu zen sentsibilizaziorako eta garapenerako hezkuntzarako 2013an, eta 2014an % 11.

Gure ustez, euskal lankidetzaren deszentralizatuaren balio erantsietako bat da antolaturiko gizarte zibilarekiko lotura, eta helburua da gizarte zibila garapenerako eragile gisa sendotzea, giza eskubideak, justizia eta ekitatea nagusituko diren egoera berri batean.

Administrazio publikoek tradizioz jokatu duten paperaren arabera, garapenerako lankidetzarako funtsen hornitzaileak izan dira bereziki eta, garapenera loturik, berek bideratu dute, halaber, uneen uneko aurrekontua banatzeko orduan kontutan hartzen diren oinarri eta irizpideen arautze normatibo eta juridikorako prozesua. Hain zuzen ere, alde eta desberdintasun garrantzitsuak topatu ditugu aspektu horietan administrazio publiko desberdinen artean, sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza fokatzeko eta lehenesteko orduan.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak aurrekontuaren % 6-8ko balioa egokitu dio. Garrantzitsua da kontuan hartzea deialdi espezifikoaz gainera, instituzioak bultzaturiko programetan osagarri bat kontuan hartzen dela, ezinbestez eta beti, garapenerako hezkuntzari begira.

Hiru Foru Aldundien Plan Zuzendari bateratuak aurrekontuaren % 10 erreserbatzen zuen garapenerako sentsibilizazio, prestakuntza, eragin politiko, ikerketa eta hezkuntzarako proiektuen finantzaziorako. Portzentajea horri berari eutsi diote Bizkaiko lankidetzarako indarrean dagoen Plan Zuzendarian. Aitzitik, Gipuzkoako Foru Aldundiak % 20ra goratu du garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntzarako proiektuak finantzatzeko aurrekontua.

Hiru hiriburuei dagokienez, bestelakoak dira aurrekontuetan sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzari begira harturiko konpromisoen eta eginiko erreserben mailak. Donostiako Udalak %30eko erreserba egiten du eta Gasteizko Udalak eta Bilboko Udalak ez dituzte beren aurrekontuetan lankidetzaren mota horretarako gutxienezko portzentajerik zehazten.

Konpromisoa desberdina da, halaber, beste lurralde eta instituzioetan. Zenbaitetan, xede horri begira aurrekontu-lerro bereziak badiren arren, horixe da Gasteizko Udalaren kasua, ez da Plan Zuzendarian erreferentziarako portzentajerik finkatzen.

Sentsibilizatorako ekintzetan dagoen inplikazio mailari dagokionez, guztiaz aipagarria da arlo honetan tokiko erakundeek joka dezaketen papera. Udalerriak gune pribilegiatuak izan litezke herritarren sentsibilizazioari begira, instituzioen eta herritarren arteko hurbiltasun maila estuagoa baita udal esparruan.

GGKEen ustez, Hegoaldeko garapenerako proiektuak bezain garrantzitsuak dira Iparraldeko sentsibilizazioa eta kontzientziatzea, egun ahaleginak batez ere Hegoaldeko garapenerako lankidetzaren proiektuen aldeko finantza-baliabideen lorpena bideratzen badira ere.

Instituzio publikoetatik askoz ere gehiago sustatu eta bultzatu behar dira garapenerako hezkuntza eta sentsibilizatorako jarduerak. Horretarako, komenigarria litzateke lankidetzarako proiektuak eta sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzarako proiektuak hasierahasieratik bereiztea, azken hauetara kopuru zehatz bat erreserbatuz. Era berean, deialdi hauen exekuziorako behar diren bitartekoez hornitu behar dira, baliabideak eta epeak kontuan harturik. Izan ere, hezkuntzaz ari bagara, epe luzeko esku hartzei buruz ari gara eta ez urte bateko ekintza puntualei buruz. Garapenerako hezkuntzara bideratu beharreko funtsak gehiagotzek ez du esan nahi garapenerako lankidetzarako edo ekintza humanitarioetarako laguntzak murriztu behar direnik.

Bestalde, deigarria da betiere Euskadiko diru-hornitzaile garrantzitsuenak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, orain arte garapenerako hezkuntzari begira inolako estrategiarik diseinatu ez izana, azterketa honen erredakzio garaian instituzioa estrategia hori lantzen eta prestatzen ari den arren.

Ekintza humanitaria

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen iritziz, babes eta laguntza kontzeptuak hartzen ditu bere baitan ekintza humanitarioak. Izenburu horren pean biltzen ditugu krisi humanitarioei eman beharreko berehalako erantzunak, prebentzio proiektuak, arriskua eta ahultasuna murrizteko prestakuntza eta arintze ekintzak, eragin politikorako ekintzekin batera, hala tokiko edo herrialdeko esparruan nola nazioartekoan.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ustez, ekintza humanitarioaren helburua da *"bizitza salbatzea, sufrimendua arintzea, giza duintasuna babestea, eta hondamendien eraginpeko pertsonen eskubideak babestea, etorkizuneko garapenerako oinarriak ezarritik, giza eskubideak sustatuz, eta bakearen eraikuntza sustatuz, kalteberatasuna*

*murriztuta eta biztanleriaren gaitasunak handituz*²⁴, eta banatu beharreko funtsen % 6-8 erresebatu ditu ekintza humanitarioetarako.

Helburu hori lortu ahal izateko, bi tresna berezi inplementatu ditu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak. Alde batetik, finantzazio iraunkorrerako lerroa, urtean zehar gertatzen diren krisien aurreko arretari begira, erakunde mota guztietara irekia. Bestetik, esparru-estrategien finantzaziorako lerroa, laguntza humanitarioaren esparruan espezializazio maila handiena duten erakundeentzat pentsatua.

Aurrekontuen ikuspegitik, hiru Aldundien Lankidetzarako Plan Zuzendaria 2009-2011 delakoak aurrekontuaren % 3 aurreikusitako GGKEek larrialdietarako laguntza eta ekintza humanitario gisa proposaturiko ekintzei erantzuteko. Bere horretan iraun du portzentaje horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren Plan Zuzendarian eta Arabako Foru Aldundiarenean, hala ulertzen dugu behinik behin, baina guztiz ezabatu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Zuzendarian, baztertu egin baitu bere planetik ekintza humanitarioa, gisa horretako laguntza mota bere eskumen eta baliabideetatik kanpo dagoelakoan.

Udalei dagokienez, Bilbokoak laguntza humanitarioaren eta/edo larrialdietako laguntza-aren arloetako ekintzetarako lerro bati eutsi dio, eta araudi bat onartu zuen laguntza horretarako irizpideak zehaztuz.

Donostiako udal planaren arabera, larrialdi egoeretako jarduerak larrialdien ondoko garaian dute zentzua funtsean eta, beraz, egoera puntaletan izan ezik, urteko deialdietan aurkezturiko proiektuen bitartez emango dira laguntzak.

Gasteizko Plan Zuzendariak uko egin dio zehatz-mehatz ekintza humanitariorako proiektuen eta esku hartzeen finantzaziorako tresna iraunkorrak edukitzeari, salbuespen bakar batekin, laguntza ematen segituko baitu SEADi, hala garapenerako nola ekintza humanitarioaren arloan. Halaz ere, ekarpenak egiten dizkio batzuetan Larrialdietarako Funts Arabarrari.

Gainerako tokiko erakundeek joera oso desberdinak erakusten dituzte eta mota hauetako ekintzei begira bideratzen diren funtsak zuzenean jasotzen dituzte gehienetan GGKEek, hondamendi humanitarioen kasuetan. Tokiko instituzio hauen arteko bakar batek ere ez du ekintza humanitario edota larrialdietako laguntzetarako deialdi berezi egonkorrik egingen. Gainera, ez dira gutxi ekintza humanitarioa eta garapenerako lankidetzaren oraindik ere nahasten dituzten udalak.

24 Eusko Jaurlaritza, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. 2008-2011ko Garapenerako Lankidetzaren Gida Plan Estrategikoa.

Garapenerako lankidetza moten koadroan ikusi dugu nola ekintza humanitarioak perfil baxukoa izaten segitzen duen, beste lankidetza modalitate batzuen aldean. Guztiz koherentea da datu hau Euskadiko lankidetza gidatzen duten politikkek egokitu dioten lekuarekin.

Zalantzarik gabe, datu aipagarriena dugu betiere zeinen luzea eta askotarikoa den urte bakar batean laguntza puntuala jasotzen duten herrialdeen zerrenda. Kasu askotan, laguntza horren jatorria ez da tokiko erakundea, eta laguntza hori ez du GGKE batek kudeatu. Hala gertatzeko arrazoi nagusia da tokiko erakundeek ekintza humanitarioetan bideratu duten esku hartzeen bide-orririk zehaztu ez izana eta, herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak izaki, askoz errazago sumatzen dute hedabideek hondamendi natural jakin batzuen aurrean bideraturiko presioa. Bereziki azpimarratu beharra dago esku hartze humanitarioak, dituzten ezaugarriak direla eta, oso kostu handiko ekintzak diren arren, lankidetza mota honetara bideratzen diren diru-kopuruak proportzioan oso apalak direla. Gainera, Eusko Jaurlaritzak eman zituen, esate baterako, 2014. urtean ekintza humanitarioetara bideratu ziren funts gehienak. Argiro erakusten du honek zeinen kontzentratu dagoen laguntza mota hau eta zeinen ahultasun maila handiz ageri den Eusko Jaurlaritzaren politika-aldaketen aurrean.

2.3.3. Plangintza estrategikoa

Hasieran, bultzatu nahi zuten lankidetza motaren gaineko gogoeta estrategikoa bideratu gabe, lankidetza hori zein geografia-lurraldetan, zein arlotan eta zer jende motarekin zehaztu gabe ekin zioten tokiko instituzioek lankidetza deszentralizatuari. Aldi berean, ez zuten Hegoaldeko herrialdeetan eta bertako biztanleekin lan egiteko tresna estrategiko egokirik.

Hegoaldeko lurralde eta herrialde jakin batzuekin zegoen gizarte, kultura, politika edo erlijio lotura batetik sorturiko premia/eskari bati erantzuteko sortu zein hein handi batean lankidetza deszentralizatua. Jatorriz ez da, beraz, non, nola eta zertan lagundu zehaztuko zukeen gogoeta estrategiko batetik sortu. Halatan, jatorri horretan lotura izan da premia bera baino garrantzitsuagoa, eta lankidetza lotura hura nabarienez ageri zen herrialdeetara bideratu da nagusiki.

Kalitatezko lankidetzarantz aurrera egin ahal izateko, beharrezkoa da helburu zehatzez hornituriko epe ertain edo luzeko estrategia, dauzkagun baliabide mugatu horien bitartez ahalik eta eragin handiena lortzen ahalegintzeko. Beharrezkoa da errealista izatea eta, bitarteko ekonomikoez gainera, eskain dezakegun laguntza mota guztiz kontuan hartzea, lankidetza deszentralizatuaren puntu sendoez eta ahulez eta gure aukerez eta gaitasunez guztiz jabeturik.

Plangintzaren helburua da erreferentziatzeko eredu teoriko bat finkatzea, epe ertain/luzeko bokazioaz, helburuak eta estrategiak argi edukiz, lankidetza-formatu ahalik eta egonkorrenak, ahalik eta kalitate eta eragin handienekoak eta denboran ahalik eta iraunkorrenak lortu ahal izateko.

Antzeko egitura dute plan estrategiko guztiek eta, alde edo moldez, honako atal hauek hartzen dituzte guztiak beren baitan:

- Esparru teorikoa;
- Helburuak;
- Ildo nagusiak;
- Eragileak;
- Tresnak;
- Geografia eta arloen araberrako lehentasunak;
- Zehar lerroak.

Plangintza estrategikorako dokumentuaren prestakuntza

Lankidetzarako berezko politika definitzeko aukera ematen du plangintza estrategikoak. Diagnostiko zehatza egiteko unea da hori eta, aintzat harturiko konklusioetatik abiatu ondoren, orduan iritsiko da jardueren proiektua zehazteko ordua, helburuak zehaztu eta emaitzak ebaluatzeko moduan aurreikusi ditugula. Kontua ez da estatuek bideraturiko lankidetzaren politikak eskala txikiagoan berritzea, baizik eta kontutan hartu beharreko politikak lankidetzaren deszentralizatuaren oinarritzko ezaugarrietara egokitzea, puntu sendoak eta ahulak kontuan harturik.

- Lotura afektiboari erantzun eta, gure gizarteko pertsonak hainbat lurralderekin partekaturiko historiaren bitartez, herrialde haietako errealitatea hobekiago ezagutu, lankidetzaren eta elkartasuna hertsiki lotuz.
- Ingurunearen ezagutza baliatu, zein premiari erantzutekoan, nola erantzun go-goan edukitzeakoan, lehentasunak benetako ahal eta gaitasunen arabera zehazteko. Beste entitate eta erakunde batzuekin aliantzak bideratu, gure instituziotik zuzenean aintzat har ez ditzakegun premiei nola erantzun aztertu ahal izateko. Helburu eta estrategia argiak zehaztu, eta haien aurreko erantzun egokia emateko behar den denbora-epea ongi mugatu.
- Ahalegina lurralde eta arlo zehatzetara bildu eta denboran laguntza iraunkorra eta egonkorra eskaini, gizarte zibilari GGKEen eta irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuen bitartez protagonismoa emateko, herritarren lankidetzaren eragileak diren aldetik. Puntu honetan ezinbestekoa iruditzen zaigu GGKEek lankidetzaren deszentralizatuaren funtsezko eragile gisa dituzten gaitasunak baliatzea.
- Hegoaldeko gizarte ekimenak indartu, ongi kontuan harturik parte-hartze prozesuak proposamenak lantzerakoan eta, horrenbestez, herrialde horietako gizarte zibila sendotu.

- Euskal herritarrek beren gizartearekin eta pobreturiko herrialdeetako gizarteekin duten konpromiso politikoa eta soziala indartu, gizarte zibilak gure herrian duen konpromisoa ere sendotuz.
- Garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren aldeko apustua egin, Iparraldean behar den gizarte aldaketari ekiteko bide bat bezala, desberdintasunaren alde, barrukoa eta kanpokoa, txikiagoa izan dadin.
- Hegoaldeko tokiko administrazioetan gaitasunen sorkuntza sustatu.
- Lankidetzek, eredu nagusiaren ondorioen aurkako ekintzak ez ezik, desberdintasunen kausa estrukturalen gaineko jarduerak ere indar ditzatela, generoaren ikuspegiari sarrera eginez, giza eskubideak bultzatuz eta iraunkortasun ekologikoa sustatuz egitako aurrerapenei eutsiz.

Euskadiko instituzio politikoek bilakaera desberdina bizi izan dute aspektu honetan.

Euskadiko lankidetzak deszentralizatua orientatu duten plan zuzendarietako batzuk aztertuko ditugu ondoren. Arestian adierazi dugun bezala, Eusko Jaurlaritzak izan zen plan zuzendari batez hornitu zen aurreneko instituzioa, 2005ean hain zuzen ere. Egun, instituzio batzuek, Arabako Foru Aldundiak esate baterako, eguneratu gabe daukate beren plan zuzendaria, 2009-2011 bitartean hiru Foru Aldundien Lankidetzarako Plan Zuzendari bateratuaren esperientzia bizi izan bazuen ere.

Euskal instituzio publikoek garatu zuten aurreneko plan zuzendariaren garaitik hona, dokumentu estrategikoetara ekarpenak egiteko aukera izan du Euskadiko GGKEen Koordinakundeak. Hala eta guztiz ere, ezin esan liteke egitako proposamenen aurrean halako eragina izan dutenik, GGKEek egitako ekarpenak inolaz ere ez baitira lotesleak. Instituzio publikoak erabakitzen du azkenean beti, beren dokumentuetan zer ekarpeni harrera egin.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen aldarrikapen historikoetako bat da plan zuzendarietan garapenerako politiken koherentzia jasotzea dadila, bai eta zuzeneko lankidetzak planaren eta gardentasunaren aldeko irizpideen arabera arautzea ere.

Hona hemen instituzio desberdinen plangintza estrategikoen bilakaera. Plangintzaren ibilbide historikoa azaltzea erabaki dugu, ongi kontuan harturik plan zuzendari berriak aurrekoen ebaluazioan oinarritzen diren etengabeko hausnarketa eta ikuskuntza prozesuen ondorio direla.

Eusko Jaurlaritzaren 2005-2008 bitarteko Plan Zuzendaria aurrerapen garrantzitsua izan zen, sarrera egin baitzitzaizen hartan elementu berri batzuei, hala esparru teorikoan nola tresnen alorrean:

- Oinarritzat hartu zituen lankidetzak eraldatzailea kontzeptua eta epe luzeko ikuspegi estrukturala.

- Tresnak berrikusi eta eguneratu zituen. Lankidetzarako programetarako deialdia izan zen berritasun garrantzitsua.
- Lehenetsunak zehazteko beharra hartu zuen aintzat geografian eta arloetan, eta herrialde-estrategia batzuen garapena planifikatu zuen.
- Sarrera egin zien zehar lerroei²⁵.

II. Plan Zuzendariak hobetu zituen I. Plan Zuzendariaren eskasietako batzuk, hala nola garapenerako hezkuntzarako estrategiarik eza eta zuzenean bideratu beharreko ekintzen edo jardueren plangintza Eusko Jaurlaritzaren esku uztea. Horrez gainera, beste urrats batzuk egin zituen II. Planak aurrera, genero politikaren tratamendua zehar lerrotzat eta lehenetsitako arlotzat hartu baitzuen.

II. Plan Zuzendariaren berritasuna izan zen, halaber, planaren ebaluazio prozesu parte-hartzailerako atak zabaltzea²⁶. 2012an abiaraziko zen bokazioz kontsulta-prozesua zena, eta lehengai nagusia izan dira haren emaitzak ondoko Plan Zuzendaria lantzeko orduan.

II. Plan Zuzendariaren²⁷ ebaluazioa positiboa izan zen oro har, euskal lankidetzaren jarraibideak finkatuko zituen dokumentua, erreferentziazko dokumentu bat alegia, eskaintzen zuelako. Alabaina, planaren edukia euskal eragileen artean ez zela behar bezain-beste ezagutu esan liteke nolabait. Ebaluazioak berak onartzen zuen planaren araberrako adierazleen neurketak ez zirela horren erraz ulertzen, adierazleak zehazteko erabili zen metodologia zela bide. Plan anbiziotsuegia zela esan zen eta, beraz, zati batean baizik ez zituela itxaropenak bete, praktikan "lurreratzen" oztopoak zituen dokumentu teoriko oso zaila zelako.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren II. Plan Zuzendariaren ebaluazioak argiro erakutsi zuen, eginiko ahaleginengatik ere, ez zela aurrerapen handirik egin tresnen alorrean. Erakunde askoren eskaera da hori, baina ez du erreferentzia garbirik eduki instituzio horrek sustaturiko lankidetzaren kalitatearen eta eraginkortasunaren hobekuntzaren gainean.

Bestalde, zurrunezi zela iritzi zitzaion planean egin zen geografia eta arlo mugaketari, erakunde gehienek beren plangintza estrategikoa neurri handian aldatu beharrik eduki ez zutelako adieraziko zuten arren.

25 Tokiko gaitasunak, parte-hartze eta antolakuntza komunitarioa; genero berdintasuna; garapena eta giza eskubideak; eta iraunkortasun ekologikoa.

26 Plan Zuzendariaren ebaluazioan parte hartu zuen gestio unitatean Euskadiko GGKEen Koordinakundeko bi kide egon ziren.

27 2008-2011 aldirako II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen Ebaluazio Parte-hartzailea.

Instituzioen jardura orientatzen duen plangintza estrategikoaz gainera, gutxienez 6 herrialde-estrategiaren garapenaren aldeko apustua egin zuen Eusko Jaurlaritzak. Herrialde-estrategia hauen helburua da inpaktuaren eraginkortasunaren eta kalitatearen aldeko urrats berriak egitea, lankidetzaren ikuspegi planifikatuago, koordinatuago eta balio erantsiaz hornitu batetik, aurrekontuaren gutxienerako kuota inoiz ere zehaztu gabe.

Gogoeta horien fruitu gisa sortu ziren Kubarekiko Garapen-lankidetzarako Euskal Estrategia²⁸ eta Guatemalarekiko Garapen-lankidetzarako Euskal Estrategia²⁹, eta lantze prozesuan geratu ziren 2008-2011 bitarteko Plan Zuzendariaren II. ildoan kontutan harturiko beste lau estrategiak. Estrategiak berrorientatzeko eta herrialde-estrategien beren balioa ikusteko aukera emango lukeen ebaluazio eguneraturik gabe daude oraindik bi estrategia hauek.

Azterketa hau bukatzen ari ginen garaian onartu zen Eusko Jaurlaritzaren III. Plan Zuzendaria (2014-2017), aurrekoaren segidakoa guztiz, nolabait esan. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren III. Plan Zuzendariaren helburua da giza garapen iraunkorrerako lankidetzaren kalitatea eta eragina hobetzea, nortasun eraldatzaile baten ikuspegitik. Euskal lankidetzak datozen lau urteetan edukiko dituen ezaugarri bereziak eta balio erantsia birdefinitzeko premia ondorioztatu den prozesu parte-hartzaile baten ondotik sortu da plana. Bitartean, erreferentziatzen hartuak dira aurreko Plan zuzendariaren ikuspegi nagusia eta joerak. Plan berriak ez du, aurrekoaren aldean, funtsezko aldaketarik bideratu, ez du antolakuntzaren oinarriak berrantolatzen harantz jo. Trantsizioa proposamen bat da, estrategiarako lehen lerroan lankidetzarako euskal eredia birpentsatzeko eta eguneratzeko helburua ezarriz, eta ebaluazioaren kultura³⁰ sustatzen eta instituzioen beraren gaitasunak³¹ indartzen ditu horretarako.

III. Plan Zuzendarian adierazi den bezala, Eusko Jaurlaritzak bere nortasun eraldatzailea sendotu nahi du, bultzatzen dituen ekimenen arloko banaketa bereziki zainduz, beste instituzio batzuek arloetan bideratzen dituzten lehenesten aldean. Bereziki aipatzen du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emakumeak ahalduentzeko eta herri ekonomia sustatzeko ekimenen alde eginiko apustua. Banatu beharreko funtsen % 20ko kuota³² finkatu du, bestalde, emakumeen ahalduntzea helburu nagusitzat duten jardueri begira.

28 2007-2011 bitarteko Kubarekiko Garapen-lankidetzarako Euskal Estrategia azukrearen industria sendotzeko ahaleginean ari ziren garaian sortu zen, Kubako Gobernuarekin batera, euskal lankidetzak mugatuko zen arloak eta eskualdeak lehenesteko bokazioaz.

29 Guatemalarekiko Garapen-lankidetzarako Euskal Estrategiak subjektu estrategikoen sendotze prozesuarekin koherentea den erreferentziako marko bat finkatu zuen, giza eskubideen aldeko logikaren arabera koordinaturiko egitura baten esparruan.

30 Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako III. Plan Zuzendariaren 2. lerro estrategikoa.

31 Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako III. Plan Zuzendariaren 3. lerro estrategikoa.

32 Portzentaje honen barruan dago tokiko bazkideak erakunde feministak diren ekimenei begira bereizitako % 5a.

Bestalde, aurreko planean finkatu ziren lehentasun geografikoei eutsi die III. Planak, salbuespen bakarrekin: lehenetsitako herrialdeetatik kanpo geratu da Angola, eta Senegalek hartu du haren ordea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren III. Plan Zuzendariaren esparruan betiere, Gizartearen Aldaketarako Hezkuntza Estrategiaren diseinua eta Eusko Jaurlaritzaren Ekintza Humanitariorako Estrategia aurreikusi dira.

Aurreko kapitulu batean azaldu dugun bezala, Plan Zuzendari bateratua landu zuten Foru Aldundiek 2009an, eta ondoren zeinek bere plana prestatu zituzten Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek. Atzerakada handia izan zen erabaki hura garapenerako lankidetzaren orientatzen duten foru politikak koordinatzen eta adosten ahalegindu zirenez, baina bidea zabaldu zuten, halaber, Foru Aldundiei, beren helburuak eta lehentasunak finkatzeko, kontsentsua zaila zuten aspektu batzuk alde bat utzi ahal izan zituzten aldi berean.

Hiru Foru Aldundien 2009-2011 bitarteko Lankidetzarako Plan Zuzendari bateratuak berezko papera jokatu nahi zuen lankidetzaren mota baterako estrategia alternatibo gisa indartu zuen lankidetzaren deszentralizatuaren. Haren ardatz nagusiak dira lankidetzaren bideratu beharreko lurraldeko gizateriaren garapena, generoaren ikuspegia, giza garapenerako premisa gisa, eta garapenerako hezkuntza, pobrezia eta desberdintasuna sorrarazten dituen injustizia-egoeraren aurrean kontzientzia kritikoa sustatu nahi duen tresna gisa. Dokumentuaren arabera, garapenerako lankidetzaren politika koordinatua eta kalitatezkoa garatzea da helburu nagusia eta, xede horri begira, pobrezia aurkako borroka, genero ekitatea eta gizarte kontzientzia kritikoa eta eraldatzailea sortzea dira eginbide nagusiak. Plan Zuzendariaren ikuspegia integrala eta izaeraz ez-unibertsala da, ez fokalizatua eta ez sektoriala; haren arabera, pertsona eta eragile onuradunak dira egiazko protagonistak, eta ez da lurralde geografikoen artean inolako lehentasunik kontuan hartzen.

Plan honek berak instituzioak sendotzea proposatzen du bere ildo nagusietan, Iparraldean bezala Hegoaldean. Postulatu honekin bat etorririk, lankidetzaren zehaztutako erakundeak sendotzeko helburua zuten diru-laguntza larriak bideratu zituzten hiru Aldundiek hasieran, generoaren ikuspegia sendotzearen aldeko apustu berezia eginez. Bat dator hau guztia Planean emakumeen ahalazte eta generoaren ikuspegia garatu beharreko esku hartzeen faseetan lehenesteko premia adierazten duten irizpideekin.

Planaren indarraldia bukatu bezain laster erabaki zuten Foru Aldundiek plangintza bateratua ez berritzea, baina Arabako Foru Aldundiak esparru estrategiko horretan berean dirauela uste dugu guk, orduan ez baitu plangintza estrategikorako beste marko edo esparrurik eguneratu. Hala eta guztiz ere, plan hori ez da betetzen ari, azterketa honek aintzat hartu dituen urteetako gobernu taldeak ez du kontuan eduki.

Ardatz bikoitzean egituraturiko lankidetzak politika berezi baten hasieratzat hartu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako lankidetzak plana 2013-2016 delakoa:

- Izaera egonkor eta iraunkorreko politika publikoa izango da, bere eginez herritartasun unibertsala eta elkarreantzekizun globala kontzeptuak eta elkartasun internazionalistan oinarritua.
- Nortasun eraldatzailea, giza garapen iraunkorraren, bazterkeriaren kausa estrukturalen aurkako ekinaren eta laguntzaren aldeko apustua egiten duena.

Printzipio gidarien artean, bereziki aipagarriak dira elkartasun internazionalista, giza garapen iraunkorraren eta munduko herritartasunaren aurreko kontzientzia kritikoaeren aldeko apustua eginez. Gainera koherentea da Plana oinarritzen duten bi ardatzekin, inpaktuetan kalitatea lehenetsiz, epe luzeko estrategien barruan, eta eragile desberdinekin koordinatuz (GGKEekin eta beraien Koordinakundearekin) eta Gipuzkoan bideratzen diren lankidetzak politikekin bat datozen beste euskal instituzio batzuekin. Honenbestez hartu du, aurreneko aldiz, Euskal Fonda ere aintzat.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Zuzendariak espresuki utzi du bere alor eta eginbideetatik kanpo ekintza humanitarioa, garapenerako lankidetzak, gizartea eraldatzeko hezkuntza eta ebaluazioa bere jarduera arlo nagusitzat hartuz.

Garapenerako lankidetzaren arloan, zuzeneko lankidetzari³³ ekitearen eta zehar lerroen³⁴ baremazioaren aldeko apustua egin du argi eta garbi; aurrekontuaren % 0,7 garapenerako lankidetzara bideratuko duela finkatu du, baina ez du argi zehaztu zenbat utziko duen zuzeneko lankidetzarako. Aldiz, apustu garbia egin du emakumeen ahalduntzearekin edo mugimendu feministen sendotzearekin loturiko ekimenen alde. Planaren laugarren ildoan indartu da ideia hori, haren helburua feminismoarekin konpromiso harturiko lankidetzak politika bat bultzatzea den aldetik.

Plan Zuzendariaren arabera, gizartean kontzientzia kritikoa gorpuzteko bide bat da gizartea eraldatzeko hezkuntza, herritarren mobilizazioa sustatuz eta eraldatzerako ekimenak eta esperientziak abiaraziz; haren iritzia da, bestalde, gizartea eraldatzeko hezkuntzak ez duela politikan aseztiko izan behar eta denboran etenik ez duten prozesuetan integratu

33 Lau jarduera-lerro zehazten ditu planak zuzeneko lankidetzari begira: 1) Emakumeen Mundu Martxa eta Via Campesina babestea; 2) Lankidetzak teknikorako ekimenak abiaraztea, Habanako Historiagilearen bulegoari lagunduz; 3) Estaturik gabeko herriei laguntzea: SEAD eta Palestina; eta 4) Gizartea eraldatzeko hezkuntzaren berezko jarduerak sustatzea.

34 Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako Foru Plana 2013-2016 delakoak honako zehar lerro hauek hartu ditu aintzat: genero ikuspegia; tokiko gaitasun eta parte-hartzearen ikuspegia; giza eskubideen ikuspegia; eta tokiko ikuspegia/ikuspegi globala.

beharra dagoela. Planak zehaztu duenaren arabera, aurrekontuaren gutxienez % 20 bideratuko du ekimen molde honetara.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromisoa gauzatu duten alderdi nagusietako bat dugu Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Zuzendaritza sortu izana.

Udalen mailan, Bilbokoa izan zen plan estrategikoa eduki zuen Euskadiko lehen Udala³⁵, 2006an hain zuzen ere. Donostia etorri zen ondoren eta berebat egin zuen Gasteizek 2010ean. Bilboko Udalaren 2010-2013 bitarteko II. Plan Zuzendaria aurrekoaren ebaluazioa egin ondoren sortu zen eta haren eite berberetako izateko joera garbia du. Aurrekoaren helburuei³⁶ eta eginbideari eutsi die Planak. Plan honetan, hiru lan ildo nagusien arabera lehenetsi dira kontutan hartu beharreko arloak: emakumeen ahalduz, tokiko boterea, eta sentsibilizazioa eta gizarte eraldatzeko hezkuntza. Geografia-lurraldeak lehenesteko aukera egin duen aurreko udal plan zuzendaria da, honako bi interes-arlo hauetara bildurik:

- Izaera orokorrez lehenetsitako herrialdeak³⁷, edozein motatako ekimenak jaso ahal izango dituztenak.
- Ikuspegi batzuen arabera lehenetsitako herrialdeak³⁸, Planean lehenetsitako lerroetan bideraturiko ekimenak baizik jasoko ez dituztenak.

Beste plan zuzendari batzuek ez bezala, sarrera egiten die Plan honek garapenerako eragile batzuei, ohikoez gainera enpresei eta hedabideei ere lekua eginez, GGKEek eragile garrantzitsuenak izaten segitzen duten arren. Azkenik, Bilboko Garapenerako Plan Zuzendariaren berezitasuna da garapenerako ekimenei begira aurrekontu-sail baten erreserba egin duela.

Donostiako Udalak giza garapen iraunkorrerako lankidetzaren eta hezkuntzako II. Plan Zuzendaria, 2012-2015 aldirako onartua, I. Plan Zuzendariaren ikaskizunetan oinarritzen da eta eutsi ere egin die hartan finkatu ziren esparru estrategikoari, definizioari,

35 Bilbokoa izan zen garapenerako plan zuzendaria eduki zuen Estatuko hirugarren udala, Madril eta Bartzelonako ondotik.

36 Bilboko Udalaren 2010-2013 bitarteko II. Plan Zuzendariaren helburua: pobrezia estrukturalaren aurkako borroka, tokiko gaitasunak eta emakumeen ahalduz Hego eta Iparraldeko eragileekin prozesu endogenoen aldeko ikuspegi batetik sendotuz.

37 Izaera orokorrez lehenetsitako herrialdeak: Bolivia, Kolonia, Ekuador, SEAD, Maroko eta Saharaz haraindiko Afrika.

38 Ikuspegi batzuen arabera lehenetsitako herrialdeak: Kuba, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Peru.

helburuei³⁹ eta irizpideei. Beste plan zuzendarietan ez bezala, uko egin dio lurralde geografiko jakin batzuetara mugatzeari, baina interes bereziko arloak⁴⁰ iradokitzen ditu, deialdietako baremazioetan puntu gehiago lortuko dituztela aurreratuz. Aipagarria da, azkenik, Planean berean uko egiten zaiola espresuki ekintza humanitarioetarako eta/edo larrialdietarako ekimenak sustatzeari, kasu jakin batzuetan izan ezik, eta SEADeko egoerari buruzko erreferentzia egiten du kasu honetan.

Udala azken urteotan lankidetzari begira bideratzen ari zen joerak eta irizpideak modu formalean jasoko zituen politika publiko batez hornitu beharraren gaineko hausnarketa egon zen Gasteizko 2010-2013 bitarteko Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzendariaren jatorrian. Une historikoan, egun parekorik ez duen momentu batean, sortu zen Plan Zuzendari hura, Gasteizko hiriak, kontsentsuan adosturiko erabakiari segida emanez, bere aurrekontuaren % 1 Hegoaldeko herriekiko elkartasunera bideratzen baitzuen, jakinik erabaki haren ondorioak hainbat legegintzalditan luzatuko zirela.

Plan honek Espainiako lankidetzarako III. Plan Zuzendaria hartu zuen erreferentziatzat bere egitekoa⁴¹ eta bere ikuspegia⁴² zehazterakoan, Udalaren ezaugarrietara egokituz. Planak berezko helburuak⁴³ xedatzen ditu, bi arlotan banatuak: garapenerako lankidetzak eta sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza. Hartan, uko egiten zaio espresuki ekintza

39 Donostiako Udalaren 2012-2015 bitarteko Plan Zuzendariaren helburuak: 1) Lankidetzak eta garapenerako hezkuntza eraldatzailea eta kalitatezkoa bultzatzea; 2) Donostian gizarte aldaketa bultzatzea, gizarte solidarioa eta berdintasunarekin eta justizia sozialarekin konprometituagoa lortze aldera; 3) Udal politiketan irizpide etikoak eta solidarioak zeharkako bihurtzea (koherentzia garapenerako politiketan); eta 4) Lankidetzan eta internazionalismoan lanean diharduten Donostiako GGKEak eta gizarte mugimenduak indartzea.

40 Donostiako Udalaren 2012-2015 bitarteko Plan Zuzendariaren arabera interes bereziko arloak: giza eskubideak; komunitateen parte-hartzea eta indartzea; genero ekitatea; elikadura burujabetza eta kontsumo kontzientea; eta arduratsua.

41 Gasteizko 2010. urteko Garapenerako Plan Zuzendariaren egitekoa: *"Pertsonen, kolektiboaren eta sozietateen tokiko garapen-prozesuetan laguntzea haien eskubide guztien erabateko erabilera lortzeko, beste eragileekin elkarlanean (tokikoak eta nazioartekoak), pobrezia aurka modu koherente, integral eta eraginkorrean borrokatzeko eta neurri apalean nazioarteko ordenaren eraldaketan lagunduko duen elkartasun-kultura sustatzeko gure hirian"*.

42 Gasteizko 2010. urteko Garapenerako Plan Zuzendariaren ikuspegia: *"Gasteizko Udalak egiten edo bultzatzen duen garapenerako lankidetzak tokiko giza garapenerako prozesuetan eta giza eskubideen errespetuan laguntzen du. Hiriko kolektiboaren eta pertsonen laguntza eraginkorra jasotzen du, kalitatezko eta eraginkortasunezko gutxieneko baldintzak biltzen ditu eta gure hirian elkartasun-kultura sortzen laguntzen du"*.

43 Gasteizko 2010. urteko Garapenerako Plan Zuzendariaren helburuak: *"1) Lankidetzari eta garapenerako hezkuntzari esker hirian elkartasun-kultura sustatzen laguntzea; 2) Hiriko pertsonen, kolektiboaren eta erakundearen (udala barne) esku-hartze eraginkorra eskatzen duten garapenerako eta elkartasunerako lankidetzak-programak eta lankidetzak-ekintzak egitea; 3) Hauek ekarriko dituzten tokiko giza garapenerako prozesuak laguntzea"*.

humanitarioetarako tresna iraunkorrak edukitzeari, alde batera utzirik Larrialdietarako Funts Arabarrera egiten diren ekarpenak. Lurralde geografikoen artean lehentasunak ez zehazteko aukera egiten du, baina bereziki jasotzen du Afrikarekiko lankidetzaren sendotzeko asmoa. Uko egiten dio espresuki GGKEen bitartez, diru-laguntzak esleituz, bideratzen den lankidetzaren arloen araberrako lehentasunen zerrenda zehatza egiteari, baina lehentetsi egiten ditu, nolahi ere, bere ildo nagusien araberrako ageriko desberdintasun-egoerak zuzentzeko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko asmoa duten esku hartzeak, bai eta merkataritza justuarekin loturik diren ekoizpen eta merkaturatze ekimenak ere.

Aitzitik, arloen araberrako lehentasunen zerrenda⁴⁴ guztiz zehatza finkatzen du udal izarrerako lankidetzari begira. Eusko Jaurritzarekin sinaturiko hitzarmenen bitartez bideratzen ditu ekimen horiek.

Hiriburu ez diren Euskadiko udalerriei inguruan, haietako bakar batek ere ez du bere lankidetzaren politikarako halako plangintza estrategikoa landu, baina bada salbuespen bat, Getxoko Udala hain zuzen ere, udal hartako Legegintzaldiarako Planean Lankidetzarako Arloaren helburu estrategikoak ere jasoak baitira. Bistan dena, ezin dute Udal guztiek Plan Zuzendariaren prestakuntza beren gain hartu. Alabaina, tokiko instituzio batek lankidetzarako ekintza bat bideratzen duen unetik beretik garbi dago beharrezkoa litzatekeela haren gaineko dokumenturen bat erredaktatzea, oso laburra izanagatik ere, ekimenaren helburuak eta bideraturiko bitartekoak hartan islatzeko. Halatan, argi eta garbi esan dezakegu plangintza gauzatzeko den zerbait dela tokiko erakundeetan.

Azkenik, arau hauengatik guztiengatik ere, instituzioak berak dira zenbaitetan beren araudia ez betetzen lehenak, aintzat hartu arren, gastuan beste lehentasun batzuk azaldu direla eta, aurrekontu jakin batzuen exekuzioari uko egiten zaionean, adibidez.

2.3.4. Lankidetzaren jomuga: geografien eta arloen araberrako lehentasunak

Proiektuetarako diru-laguntzen esleipena arautzen duten oinarrietan islatzen da plangintza estrategikoa, eta lehentasunak xedatzen ditu, zenbaitetan, landu beharreko arloak, lurraldeak eta beste zehazterakoan. Hiru hiriburukoek ez beste udalek ez dute plangintza estrategikorik eta deialdiaren oinarriak baliatzen dituzte –deialdi publikoak egiten direnean–, lehentasuna duten arloak eta/edo geografia lurraldeak mugatzeko. Egungo egoerari erreparatzen badiogu, berehala ohartuko gara udal askoren oinarriak oso zabalak direla, ez dutela egiaz inolako lehentasunik zehaztu, garapenerako strategiaren gaineko hausnarketa baino areago, udalerriko GGKEen eta elkarten eskariei erantzun baizik ez dietela askotan egiten.


44 Ura, saneamendua, ingurumena, hirien eraberritzea eta gizonen eta emakumeen berdintasunerako tokiko politikak.

Udalek geografia-lurraldeen eta arloen arabera bideraturiko sailkapenek Euskadiko errealitate sozio-politikoaren bezain emaitza heterogeneoa eskaintzen digute.

Sistema bat prestatu dugu lankidetzaren deszentralizatuaren helburuaren errealitate gehixeago hurbildu ahal izateko. Horretarako, udal guztiei eskatu diegu garapenerako lankidetzara bideraturiko aurrekontu-saila geografia-lurralde eta arloen arabera bereizteko. Aurrez adieraz dezagun udal asko ez direla laguntzen dituzten arloak zehazteko gauza, proiektu bakar batek bere baitan sailkapenerako eskaini genizkien arloetako asko hartzen zituelarik, oso zaila baitzen haietako bakar bat lehenestea.

Euskal lankidetzaren jomuga geografikoa

Hona hemen Euskadiko udalen laguntzaren jomuga azaltzeko landu dugun mapa. Argi eta garbi erakusten dugu garapenerako lankidetzaren atomizaturik dagoen. Laguntza jasotzen segitzen du betiere Latinoamerikak, SEADek eta Palestinak bezala.



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Latinoamerikako esku hartzeak, hala Erdi Amerikan nola Hego Amerikan, lehenesten dituzte, joera argia ageri dute haien alde. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldiz, ahalegin gehienak kontinente amerikarrean egiten dituen arren, bereziki indartu du azkenaldi honetan Saharaz haraindiko Afrikara garapenera begira bideraturiko lankidetzak.


45 Erabilitako programa informatikoak ez du SEAD ezagutzen, ondorioz Argelia markatu da bertan baitaude Saharar errefuxiatuen kanpamentuak.

Hiriburuei dagokienez, geografia-lurraldeen arabera banaketa desberdina den arren, Latinoamerikara biltzen da garapenerako lankidetzaren zati esanguratsua. Bilboko Udalak eta Gasteizko Udalak garapenerako zituzten aurrekontuen % 30etik gora bideratu zuten Saharaz harandiko Afrikako proiektuak finantzatzeko.

Euskadiko lankidetzaren osotasunean hartu baino lehen aztertu nahi izan dugu Udalen eta Foru Aldundien lankidetzaren geografia-lurraldeen arabera banaketa, Eusko Jaurlaritzak bere II. Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoan lehenetsi zituen 22 herrialdeek⁴⁶ markatua baita Euskadiren izenean eginiko lankidetzaren. Geografia-lurralde horiek ez datoz bat ezinbestez instituzio nagusiek lagunduriko herrialdeekin baina, duen aurrekontuaren bolumenagatik, berealdiko eragina du estatistika honetan Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, eta nabarmen sumatzen da haren pisua portzentajeetan.

Plan Zuzendariak berak zehaztu zuen herrialde horietara bideratuko zela garapenerako lankidetzarako aurrekontuaren gutxienez % 90a. Berrito ere zehaztuko du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Euskaditik tradizioz lankidetzaren bolumen garrantzitsua jaso izan duten geografia-lurraldeak laguntzen jarraitzeko joera. Izan ere, haiekiko harremanak oso sendoak dira, GGKEek ere oro har lehenetsitako herrialdeak baitira lurralde horietako gehienak.

12. grafikoa Euskadiko garapenerako lankidetzaren banaketa geografikoa 2014an (%)



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

46 Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren II. Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoan lehenetsi zituen herrialdeak: Guatemala, Kuba, El Salvador, Nikaragua, Mexiko, Honduras, Ekuador, Bolivia, Peru, Venezuela, Brasil, Kolonia, SEAD, Angola, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Ruanda, Burundi, Mozambique, Uganda, Boli Kosta, India eta Palestina.

Euskadiko zazpi instituzio nagusien memorietatik eta lankidetzarako diru-laguntzen gaineko ebazpenetatik jasoriko datuen arabera, Hego Amerika eta, haren ondotik, Erdi Amerika, Mexiko eta Karibeko herriak dira aurrekontu-sail gehienak jaso dituzten geografia-lurraldeak. Instituzio nagusien aurrekontuaren %13 baizik ez zen bideratu Saharaz haraindiko Afrikara 2014an. Horra hor udalen eta Euskadiko instituzio nagusien joeren arteko desberdintasun aipagarrienetako bat, areago kontuan hartzen badugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bere aurrekontuaren gutxienez % 20 bideratzen duela Saharaz haraindiko Afrikara. Beste instituzioek Agentziaren portzentajeak aldarazten dituzten adibide urrietako bat dugu hori, joera Agentziak zehazten baitu eskuarki.

Herrialdeen arabera alderatu ditugu garapenerako laguntzak eta argi eta garbi egiaztatu dugu, laguntza gehiena Latinoamerikara bideratu ez ezik, garapenerako lankidetzaren finantzazio globalaren % 54tik gora bideratzen dela hango 5 herrialdetara. Peru, Ekuador, Bolivia, Guatemala eta El Salvador dira herrialde horiek. Garapenerako lankidetzak atomizaturik azaltzen digun ideiarekin aurrean, errealitatearekin topo egin eta lankidetzarako ekimenak bereziki lurralde haietara bilduak direla ohartzen gara.

7. koadroa: Garapenerako lankidetzaren banaketa herrialdeen arabera 2014an	
Herrialdea	Garapenerako lankidetzaren portzentajea guztira
Peru	21
Guatemala	8
Bolivia	8
El Salvador	7
Ekuador	10

Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

2. mapa: Garapenerako lankidetzaren % 54 bost herrialdetara bildu izana azaltzen duen mapa



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

Bost herrialde horietako lankidetzaren jatorria ulertu arren, hori aintzat hartzerakoan kontuan hartu behar baitira historia komuna, kultura, erlijio, hizkuntza eta, areago, merkataritza loturak, biziki deigarria da, horratik, garapenerako lankidetzaren modu horretan bildu izana, gogoan edukitzean badugu, gainera, eremu horietan garapen maila ertaina eta/edo ertain-altua dela⁴⁷.

Bereziki ohartarazi nahi genuke orain erabakiak irizpide bakar baten arabera hartzeak dakarren arriskuaz. Adibidez, GGIaren irizpidearen aukera egiten badugu, posible da pobrezia poltsak dituzten errenta ertain/altuko herrialdeak zerrendatik kanpo geratzea. Horrexegatik, hain zuzen ere, Euskadiko GGKEen Koordinakundetik eskatzen dugu lehentasunak jartzea GGI txikiagoa duten guneak sostengatzea erabakitzen bada. Halaber, kontutan hartu beharko lirateke GGI altuagoa eduki arren eskubide urraketa jasaten duten indigenak edo pertsonen kolektiboak.

Balio erantsia eman nahi izan diogu azterketa honi, aurrekontua ahitu dela-eta finantzatu ez diren proiektuak ere aintzat harturik. Bada finantzaturiko proiektuen antzeko joera sumatu da haietan ere. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lehenetsitako herrialdeen zerrenda kontuan harturik, ezin frogatu izan dugu geografia-lurralde batzuek beste batzuek baino laguntza gutxiago hartu izana, Saharaz haraindiko Afrikan izan ezik.


47 Hona hemen herrialde horietako GGIta, 2014ko datuen arabera: Peru (0,737); Ekuador (0,711); Guatemala (0,628); Bolivia (0,667); eta El Salvador (0,662).

Gainerakoan, halako proportzio logikoa dago, antza, finantzaturiko proiektuen bolumenaren eta aurkezturiko proiektuen bolumenaren eta, azkenik, finantzatu ez diren proiektuen bolumenaren artean; oso antzeko joera ageri dute, gainera, Latinoamerika banatu eta kontuan hartu ditugun bi eremuek, portzentajeen artean alde oso txikiak azalduz.

GGKEek aurkezturiko proiektuen bolumenaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren II. Plan Estrategiko eta Zuzendariak geografia-lurraldeen alorrean bideraturiko logikaren arabera da finantzatu diren eta finantzatu ez diren proiektuen joera, alde bat utzirik Afrikako salbuespen garbia, onartu ez diren proiektuen portzentaje handiagoa baita alde hartan.

Ondoko grafikoan ageri da Euskadiko zazpi instituzio nagusiek garapenerako lankidetzari begira finantzatu ez dituzten proiektuei geografia-lurraldeen arabera dagokien portzentajea.

13. grafikoa Euskadiko 7 instituzio nagusiek garapenerako lankidetzari begira finantzatu ez dituzten proiektuei geografia-lurraldeen arabera dagokien portzentajea



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilia.

Ez dezagun ahantz euskal GGKEek lan tradizio handiagoa dutela Latinoamerikan. Guztiz aipatu beharreko datua dugu Asiarako eta Ekialdeko Europarako proiektuen bolumen txikia, alde bat utzirik hondarrekotzat jo genitzakeen adibide gutxi batzuk (India, Filipinar Uharteak eta Pakistan). Ekialdeko Europan⁴⁸ ez dago lankidetzarako proiekturik, herrialde haien GGla Latinoamerikakoen antzekoa den arren, eta pobrezia poltsak eskas ez badira ere.

48 GGla ertain/altua duten herrialdeak, Ekialdeko Europan: Moldavia (0,63); Errumania (0,78); Bulgaria (0,77); Turkia (0,75); Azerbaijan (0,74); Serbia (0,74); Georgia (0,74); Ukraina (0,73); Mazedoniako Jugoslaviar Errepublikak Ohia (0,73); Bosnia Hertzegovina (0,73); Armenia (0,73); eta Albania (0,71).

Aipagarria da, halaber, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko eta Palestinako herrienganako laguntza, tokiko lankidetzatik tradizioz lagunduriko lurraldeak izaki.

Instituzio batzuetatik ahalegin garbiak egin dira Saharaz haraindiko Afrikara funtsak bideratzeko. Euskal lankidetzaren % 12,3 geografia-eremu horretan bideratu zen 2014an, eta premiazkoa da euskal lankidetza kontinente horretan nola indartu hausnartzea eta gogoan hartzea.


Iritsi garen lehenengo konklusioak Euskadiko lankidetza herrialde askotara heltzen delakoa, oso atomizatua dagoelakoa, pentsarazten digun arren, herrialde bakoitzera guztira bideratu diren bolumenak kontuan hartu eta aurrekontuaren zati handi bat geografia-lurralde gutxi batzuetara bildua dela ohartuko gara.

Azterketaren atal korapilatsuenetako bat izan da arloen arabera banaketa, oso zaila baita askotan proiektu batean zein arlo lehenetsi den zehaztea. Hala eta guztiz ere, proiektuak arlo desberdinen arabera sailkatzeko eskatu diegu erakunde parte-hartzaileei. Emaitzak kontu handiz aztertu behar dira, baina informazio garrantzitsua eskaintzen digute gehien lantzen diren arloei eta azken urteotan nagusituriko joerei buruz.

Tokiko erakunde askok ezin izan dituzte datuak arloen arabera sailkatu eta, beraz, datu horiek egitasun handiagoa eskaintzen digutelarik, nahiago izan dugu Euskadiren ize-nean bideraturiko lankidetzan arloen arabera eginiko sailkapenera mugatu. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren arloen arabera banaketaren eragina jaso dute argi eta garbi datu horiek.

Metodologiari dagokionez, zortzi arlo lehenetsi genituen aurrenik eta beste arlo batzuen aukera utzi genien aurrekoen artean eroso egokitzen ez ziren proiektuei. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak tokiko boterea eta kultura nortasuna hartu zituen aintzat lehen mailako gizarte premien arloen artean. Beren metodologian kontutan hartu ez zuten aldagaia izanagatik ere, beste instituzioek eskainitako portzentajeak ere ez dira balio haietatik modu esanguratsuan aldendu.

14. grafikoa Garapenerako euskal lankidetzaren banaketa arloen arabera (%)



Iturria: Geuk egina, instituzio publikoek emaniko datuak erabilita⁴⁹.

Arlo batzuk beste batzuk baino askoz gehiagotan ageri dira argi eta garbi, horra emakumeen ahalduntzea eta elikadura burujabetza lehenetsitako arlo gisa hartzeko hautua. Euskadiko lankidetzeta deszentralizatuaren nortasun ikurra dugu arlo horien lehenestea.

Hona hemen zer proposatzen dugun Euskadiko GGKEen Koordinakundetik:

- Geografia-lurraldeen edo arloen arabera zehaztu diren lehentasunak direnak direla, ezinbestekoa da euskal instituzio publikoak datuen bilketarako sistema eguneratu batez horni daitezten. Alderagarriak izango dira, gainera, datu horiek, euskal instituzio desberdinen artean eta instituzio bakoitzaren barruan, eta lagundu behar dute euskal esparruan garapenerako eta lankidetzarako politika publikoak aztertzeko eta haien buruz eztabaidatzeko.

49 "Besteak" sailean kontuan hartu diren portzentajeak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lehenetsi baina Euskadiko GGKEen Koordinakundeak igorri zuen galdeketa kontutan hartu ez ziren arloei dagokie batez ere.

- Ez da nahasi behar, barreiatzea eragoztearren, lehentasun geografikoak ezartzea eta herrialdeen zerrenda itxia aurkeztea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak begi onez ikusten ez duen aukera. Prozesuak sustatu behar dira, gure ustez, proiektuetatik harago joango diren eta GGKEkin epe luzeko harreman egonkorretarako aukera eman go duten prozesuak, hain xuxen.
- Arloen arabeko lehentasunetako bat oinarritzko gizarte zerbitzuen garapena izatea proposatu dugun, % 20an gutxienez, 20/20 Ekimenari⁵⁰ jarraiki, tokiko administrazioek zerbitzu publikoen kudeaketan duten esperientzia ere baliatuz. Eskubideen ikuspegian oinarritu beharko litzateke arlo hau, giza eskubideen betetze osoa aintzat hartu beharreko ekintza espezifiko gisa bermatua izan dadin, haien artekoa baita oinarritzko gizarte zerbitzuetarako aukera edukitzea.
- Euskal instituzioen artean koordinazio eta osagarritasunerako mekanismoak artikulatzea lankidetzarako ahaleginen barreiatzea murriztu ahal izateko. Eraginkortasun handiagoa eta eragin hobea eduki dituzte horrenbestez lankidetzarako ekimenek, zalantzarik gabe. Osagarritasun horri esker, proiektuen exekuzioan ez da denborahutsunerik pairatu behar izango.

Lehentasun horizontalak

Euskadin nazioarteko garapenerako lankidetzari begira kontutan harturiko politika publikoaren esparru osoa bideratu da pobreziaaren aurkako borrokara eta zehar ardatz modura zehaztu dira hartan garapenerako proiektu guztietan presente egon behar duten aspektu batzuk. Zehar lerro horien artean, bereziki nabarmentzen da generoaren ikuspegia aintzat hartu izatea, kontuan harturik funtsezkoa dela garapenerako prozesuetan emakumeak premia eta interes desberdinak dituen kolektibo inbidualizatutzat hartzea.

Gainera, Euskadiko lankidetzaren orientatzen duten dokumentu desberdinek argi eta garbi xedatzen dute giza eskubideen errespetua kontutan hartu behar dela –eskubideen ikuspegia–, eta giza eskubideak bermatzeaz gainera tokiko kultura nortasunak errespetatu, ingurumenaren iraunkortasuna sustatu, bakearen eta gatazken aurreko irtenbide bakesuen aldeko ekimenak bultzatu, gizarte zibila sendotu eta garapenerako hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako ekimenak indartu behar direla.

50 20/20 Ekimena: Nazio Batuen Garapenerako Programan (NBGD) aurkeztu eta Kopenhageko 1995eko Gizarte Garapenerako Mundu Gailurrean onarturiko proposamena. Haren helburua da nazioarteko lankidetzaren eta nazioen aurrekontuak garapenerako bidean dauden herrialdeen oinarritzko gizarte inbertsioaren sostengura bideratzea, herrialde emaitzen eta herrialde jasotzaileen arteko akordioaren bidez. Hitzarmen horren arabera Garapenerako Laguntza Ofizialaren % 20 eta herrialde jasotzaileen gastu publikoaren % 20 oinarritzko gizarte zerbitzu unibertsalera bideratuko dira.

Euskal instituzioek molde horretako betekizunak hartu dituzte aintzat beren oinarrietan, ezinbestez bete behar dira batzuk eta programetatik bazter gelditzeko arriskuan gera daitezke hala egiten ez duena.

Adierazi den bezala, generoaren ekitatearen gainekoa da guztien artetik gehien nabarmentzen den lehentasun horizontala. GGKEek beren esku hartzeetan ahalegin handienak egiten ari den alorra dela esan genezake. Euskadiko GGKEen Koordinakundetik biziki balioesten dugu lankidetzak justuago baten alde egiten den ahalegin hori, hala administrazio publikoen aldetik nola lankidetzan aparte hartzen duten eragile guztien aldetik.

Iraunkortasun ekologikoaren aldeko ekina biziki aldatu da, halaber, azken urteotan eta garrantzi gero eta handiagoa hartzen ari da, beste lehentasun batzuek baino erritmo geldiagoan bada ere. Lankidetzaren sektorean gehiago eta hobekiago sentsibilizatu beharko genuke, bai eta gure burua arlo honetan prestatu, funtsezkoa baita hori. Arlo honetan benetan espezializaturiko profesionalak oso gutxi dira sektorean.

Iraunkortasun ekologikoaren alde eginiko apustua aldatuz joan da azken urte hauetan, gero eta garrantzi handiagoa harturik⁵¹. Mundu mailan aurre egin beharreko arazo ekologikoen gaineko hausnarketan kokatzen da egun ahalegin hori, eta arazo horiek Hegoaldeko herrialdeetan duten eragina –klima aldaketaren ondorioak– eta sorrarazten dituzten kausak hartzen ditugu hartan kontuan.

2.4. Kalitate handiagoko lankidetzak politiketarantz

Aurreko kapituluetan, aldeko ikuspegi batetik deskribatu dugu lankidetzak deszentralizatuak, haren balioa erantsia aipatuz, eta bereziki landu dugu, halaber, haren aurrekontuen alderdia.

Kapitulu honetan, aldiz, politika horretan gure ustez sendotu behar diren alderdi batzuen gaineko zertzelada batzuk jasotzeko nahi genituzke. Lankidetzak deszentralizatuaren puntu ahulen eta arriskuen barruan kokatzen dira elementu horiek. Eraginkortasunaren, esparru instituzionalaren atomizazioaren eta ekintzen koordinazio eta barreiatzearen gaineko eztabaidara bilduko ditugu orain gure begiak.

Koordinazioa

Desiragarria izaten da beti lankidetzako eragileek koherentzia, osagarritasun eta adoste maila handiagoen arabera lan egitea, eta garapenerako politika publikoak aintzat harturiko helburuekin lerrotzea, lankidetzarako laguntzaren kalitatea, haren eragina eta haren

51 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, esate baterako, askoz ere sakonago aztertu du iraunkortasun ekologikorako zehar lerroen eta arloen gaia Plan Zuzendari berriaren gaineko eztabaidan.

iraunkortasuna ahalik eta hoberenak izan daitezten⁵². Gomendagarriagoa da hori guztia lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan zeren, aurrekontuetan zalantzarik gabe egiten den ahaleginagatik ere, Euskadiko lankidetzaren ur tanta bat baizik ez baita nazioarteko lankidetzaren ozeanoan.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak ez du Garapenerako Laguntza Batzordeak lankidetzari buruz duen ikuspegi zentralista bere egiten, baina bat dator, ordea, harekin gure esparruko lankidetzaren beste instituzio zentralizatu batzuek bururaturiko kooperazioak koordinazioan eta koherentzian dituen defizit berberak dituela adierazten duenean. Zailtasunak zailtasun, instituzioek denboran eta espazioan elkar eragiteko aukera gehiago eskaintzen dituen espazio geografiko txikiago batez mintzo garelarik, uste dugu koordinazioak eta koherentziak, bai eta adostea ere, lankidetzaren zentralizatu baino askoz aukera gehiago dituztela gurean. Eragile gutxiago dira gurean, hurbilagoak eta ezagunagoak eta koordinazioan eta abarretan aurrez esperientzia dutenak.

Kostuetan behar ez den emendioa, ahaleginen bikoiztea, sinergien, esperientzien eta eginko ikasien baliatu ezina ditugu, besteak beste, koordinazio ezak ekartzen dituen ondorioak. Egoera honetan eduki lezaketen baino eragin txikiagoa dute gure ekimenek, eta horrenbestez galtzen dute motibazioa udal txikiek eta elikatzen da elkartasunen artean halako konfrontazio sentimentua⁵³.

Parisko Aldarrikapenak, lankidetzaren zentralizatu ahotan duen erreferentzia batean, politika publikoak kontutan harturiko helburuekin lerrotzea proposatzen du, bai eta erakunde finantzarien artean sistemak eta prozedurak adostea ere. Lehenetsun horiek ez ditu oraindik lankidetzaren deszentralizatuak bere egin: egoera horren erakusle ditugu plan zuzendaria hainbat izatea, koordinaziorako dauden oztopoak, politika publikoen koherentziaren alde horren urrats gutxi egin izana eta prozedurak eta tresnak adostu ez izana. Uste dugu, berriro ere, Euskadin lehenetsun hauek aintzat hartzea batere ez dela funtsik gabeko ideia

52 Parisen 2005ean Garapenerako Laguntzaren Eraginkortasunari buruz hitzartu zen Aldarrikapena Monterrey-ko Kontsentsuaren ondotik maila gorenetan aintzat hartu ziren ekimenen emaitza da. Honako erakunde hauen konpromisoa jaso zuen Laguntzaren eraginkortasuna sustatzea helburu duen Aldarrikapen honek: Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Antolakundeak/Garapenerako Laguntza Batzordea (LGA-GLB) garapenean dauden herrialdeak eta haiekin batera lan egingo duten herrialde emaleak, laguntza mota berriak kontutan harturik. Bazkide guztiei bost printzipioen inguruan lan egiteko deia luzatzen die, eta horietako bat da adoste printzipioa: emaleen ekintzak koordinatzea, etenak eta kostuak murrizteko eta gardentasuna sustatzeko.

53 EUSTATen azkeneko inkestek (2015) ez dute horrelakorik behin eta berriro azpimarratzen: Konpromiso politiko ahularen aurrean, bereziki nabarmentzen dute herritarrek elkartasunaren eta justizia globalaren aurrean ageri duten erantzukizuna. Egungoa bezalako krisi garaian ere, Garapenerako GGKEen bazkide diren pertsonen kuotek beren horretan dira eta boluntarioen mugimendua hazi ere egin da.

bat, borondate politikoaren eta administrazioen agendan lehentasuntzat hartzearen baitan dagoenez gero.

Gutxi aldatu da egoera azken urteotan. Euskadiko instituzioak lankidetzarako tresna eta mekanismo berberak erabiltzen ari dira (diru-laguntzetarako deialdiak GGKEen proiektuei begira) erakunde berberen bitartez, eta puntu ahula da hori, inolaz ere, lankidetzak zartatzen duelako eta haren eragina murrizten delako. Foru Aldundiek beren aurrekontua zeinek bere aldetik kudeatzeko erabakia hartu zuten, beren lankidetzak politika garatu ahal izateko, hiru instituzioek batera bizi izan zuten esperientzia baten ondoan. Udalek ere, beren deialdiak egiten dituzte kasu askotan, oso bestelako aurrekontuekin.

Koherentzia

Pobrezia errotik desagerrarazteko eta elkertasunari etengabe eusteko helburuak ez luke soil-soilik administrazioen lankidetzarako departamentuen erantzukizuna izan behar, kontuan harturik, gainera, uhartea direla askotan parte diren instituzioaren barruan. Beharrezkoa da, halaber, (instituzio publikoen lankidetzarako politiken helburuak sendotuko badira) instituzio horiek gainerako arloetan aurkako beste politika molde batzuk ez sustatzea. Hain agerikoa den hori lankidetzak deszentralizatuaren eta, oro har, lankidetzaren "Akilesean orpoa" da oro har. Erakunde publiko batek lankidetzarako politikak bideratzen baditu boterearen, aberastasunaren eta aukeren banaketa bidegabea haren ustez aldatu beharra dagoela uste duelako, jendaurrean eta publikoki adierazi beharko luke hori eta konbikzio horren arabera jokatu, instituzio osoa premisa horren pean ezarri. Gainera, Euskadin badira politika publikoen koherentzia adibide arrakastatsuak, hala nola Emakundek egindako lana eta Donostiako Udalaren politiken egokitzapena.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen iritziz, lankidetzarako politiken koherentzia osatzen du lankidetzaren eragin positiboa hobetzearen aldeko ekintzen multzoak, guztiz ziurtatuz betiere gainerako politikak giza garapen ekitatibo eta iraunkorraren aldeko eta pobrezia aurkako borrokan kontutan harturiko helburuen arabera direla⁵⁴.

Mira egiten dugu, berriro ere, administrazioek politika publikoen koherentziaren alde egin behar luketen apustu irmo bezain garbia, eta azken urte hauetan norabide horretan oso urrats gutxi egin direla sentitzen dugu. Lankidetzarako politiken koherentzia agenda politikoan sartzeko lehentasuna da Euskadiko GGKEen Koordinakunderako. Saiatu egin gara ikuspegi hori euskal instituzioetan bultzatzen, Lankidetzarako Euskal Legea bete dezatela berriro ere eskatuz. Izan ere, bere 16. 3. d) artikuluan, Garapenerako Euskal Kontseiluaren betekizun gisa adierazten du Legeak urtero erredaktatu beharko dela

54 Euskadiko GGKEen Koordinakundeak garapenerako politiken koherentziaren gainean landu duen eredu dokumentuari buruzko informazio gehiagorako, hona hemen online esteka hau: http://www.ongdeuskadi.org/documents_coord/documentacion/publicaciones/documento-marco/2%20Politiken_koherentzia.pdf

garapenerako politiken koherentzia printzipioaren betetze mailaren gaineko txostena. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak koherentziaren gaiari Eusko Jaurlaritzaren barruan ekiteko azaldu zituen asmoengatik ere, azterketa hau prestatzen ari garen uneon, oraindik ez dira agindu horren inplementazioari begira behar diren urratsak egin. Betebehar hori gobernu horren erantzukizuna den arren, gainerako instituzioek ahaleginak egin beharko lituzkete koordinatzeko, txosten hori ahalik eta lasterren ezagutzeko moduan egon gaitezen eta, beraz, berriro ere luzatzen diegu, honen bitartez, eskari hori.

Instituzio deszentralizatuek eskumen handiak dauzkate hainbat esparrutan eta horien artean badira, halaber, beren garapenerako politikak arautzen dituzten printzipioekiko koherenteak izan behar luketen politikak, herri ahulenen gainean eragin positiboa edo negatiboa izan lezaketen aldetik. Puntu honetan, uste dugu ez dagoela politika neutrorik eta politika guztiak direla eraiki nahi ditugun munduaren eta gizarte elkarbizitzaren konzepzioaren osagaiak.

Beraz, gobernu deszentralizatuen kasuan garapenerako lankidetzarako konpromisoa betetzea ez da soil-soilik proiektuak ekarriko dituen aurrekontu-sail bat izendatzea eta bideratzea. Ekintza hori guztiz osatzeko, egokitu egin behar dira halaber beste politikak, garapenerako politikekiko koherentzia maila ahalik eta gorena izan dadin. Modu horretan jokatura baizik ez dugu politika publikoek koherentziaz hitz egin ahal izango, eta asmo onak eta nazioarteko elkartasunerako konpromisoa aintzat hartzen diren uhartea izateari utziko dio lankidetzari.

Beharrezko da tokiko gobernuak dagokion lidergoa gauzatzea eta garapenerako lankidetzak beren agendetan betetzen duen lekua indartzea, barne politikan eragina duten prozesuen bitartez. Administrazio publiko bati politika egiteko moduan koherente izan behar duela gogoratzeak ez luke GGKEen papera izan beharko. Gainera, argi eta garbi erakusten digute adibide batzuek, hor daude Donostiako Udalak eginiko urratsak eta Emakundek eginiko lorpenak, hau guztia egingarria dela eta borondate politikoaren baitan dagoela, Euskadiko GGKEen Koordinakundetik horrenbeste aldiz errepikatu dugun bezala.

Adostea

Euskadiko lankidetzaren deszentralizatua sendotu bitartean, deialdi asko egin dira han eta hemen. Deialdi gero eta konplexuagoak dira, eta desberdinak dituzte ez gutxitan oinarriak, eskaera-inprimakiak eta jarraipen moduak. Prozesu honen paraleloan GGKEen profesionalizazio prozesua ere gertatu den arren, deialdi kopuru handia eta haietan bete beharreko inprimakien konplexutasuna direla medio, izugarri emendatu da erakundeen burokrazia eta administrazio lana, lankidetzak erantzun beharreko arazoaren gaineko gogoeta eta hausnarketari ekiteko betarik gabe gertatu dira erakunde horiek. Proiektuen formulazio eta justifikazio lanen espezialista bihurtu diren sententzia bizi dute GGKE askok, garapeneraren eragile aktibo gisa duten egiazko nortasunetik aldentuz.

Irizpideak ezin adostu izanaren ondorioz, desberdina da oinarri eta inprimaki bakoitza, eta gauzezin gertatzen zaie ez gutxitan erakunde askori. Gure ustez garbi dago oinarrietan eta inprimakietan galde egiten diren eskakizunen mailak altua behar duela izan, proiektuen kalitatea bermatuko bada, baina egiaz uste dugu zenbaitetan zorrotzgi jokatzeko delako plano formalean, eta formulazio horiei aurre egiteko gauza ez diren erakunde askoren potentzialitatea galarazten da horrenbestez. Beharrezkoa da irizpideak, oinarria eta inprimakiak dagokien neurrira ekartzea, erakunde finantzatzailearen eta haren ebaluazio taldearen eskakizunei bezala, aldiro aintzat hartzen den aurrekontuaren bolumenera egokituz.

Instituzio gehienek irizpideak adostea, antzeko inprimakiak bideratu ahal izateko, baina ez da oraindik azaldu aldaketa aitzinatuko duen instituzioa. Izan ere, ez dugu aurrerapen aipagarririk sumatu, kontrakoa baizik, udal txikiek hiriburu eta baten inprimakiak bere egin dituztenean adibidez, arriskuan gera baitaiteke horrenbestez tokiko GGKEen lankidetzak tradizionalak.

Gainera, diru-laguntzetarako deialdi publiko askok urtero aldatzen dute argitaratze data, eta erakundeetan segurtasun eza baizik ez du jokabide honek sorrarazten, lan kontuen eta pertsona aferen artean eduki behar den oreka kaltetzeaz gainera, ez baitakite noizko eduki behar dituzten beren proiektuetarako proposamenak prest.

2.5. Generoaren ekitatearen aldeko konpromisoaren bilakaera euskal lankidetzan

Generoaren aldeko konpromisoak euskal lankidetzan bizi izan duen bilakaeraren azterketan ezin aipatu gabe utzi dugu agintari publiko nagusiek eta GGKEek generoaren ekitatearen alde egin duten apustua. Elkar elikatu dute biek garapenerako euskal lankidetzaren aldeko ekimenetan generoaren ikuspegia lehenesteko momentuan, estatu mailan erreferentzia bihurtu duen prozesuan. Kapitulu honen helburua da, hain zuzen ere, konpromiso horrek euskal lankidetzan bizi izan duen bilakaera eta hartu duen norabidea aztertzea.

1990. urteen hamarraldian hasi ziren Eusko Jaurlaritzak generoaren zehar izaera indartzeko, GGKEen eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearen aldarrikapenak bultzatuz, aurreneko ahaleginak egiten, lankidetzak politikaren funtsezko oinarrien artean *"ekintzen formulazioan, exekuzioan eta ebaluazioan generoaren ikuspegia kontutan harturik eta bultzaturik"*, baina 2002ra arte ez zen generoaren ikuspegia aintzat hartu ez izana proiektu deialdietatik kanpo uzteko irizpidetzat hartzen hasi.

Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzendaria onartu zelarik bururatu zen prozesua, emakumeak ahalduntzeko helburu nagusiaren barruko atalatzat hartu baitzen hartan generoaren ikuspegiaren zehar izaera diru-laguntzen bitartez bultzatu beharreko ekimen guztietan indartzeko betekizuna. Halatan, koherentziari

utsirik, aurrekontuaren gutxienez % 20 erresebatzen du Plan horrek "emakumeen erakundeetara edo helburu zehatz gisa emakumeen ahalduntzea eta/edo generoaren ekitate mailen hobekuntza dituzten proiektuetara bideratzeko", aurreko Plan Zuzendaria ere aurreikusi zuen bezala.

Hiru Foru Aldundien Plan Zuzendari bateratuak (2009-2011) aurrerapena ekarri zuen generoaren ekitatearen aldeko konpromisoaren alorrean, hau Planaren hiru ardatz nagusien artean oinarritzat hartuta. Beste bi tresna ere sortu zituen arlo honetan, baina aurrerago mintzatuko gara horietaz.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2013-2016 bitarteko Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzendaria aurrerapena ekarri zuen generoaren ekitatearen aldeko konpromisoaren bilakaeran, generoaren ikuspegiari bere zehar izaeran eta, kontutan hartzen ez denean, bere izaera baztergarrian eutsi ez ezik, emakumeen ahalduntzearen aldeko neurriak ere hartu dituelako, bere aurrekontuaren arabera betiere. Plan horren laugarren ildoaren helburua da feminismoarekin konpromiso harturiko lankidetzaren politika bultzatzea. Feminismoarekin espresuki harturiko konpromiso hori egiazko mugarria da Euskadiko Foru Aldundien plan estrategikoen ibilbidean.

Euskal lankidetzaren generoaren ekitatearen aldeko konpromisoaren bilakaeran egin den funtsezko urratsa dugu GGKEek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bultzaturik, generoaren ekitaterako tresna bereziak sortu izana, erakunde mailan bideratu beharreko aldaketei begira. Prozesu hauek ongi ulertuko badira, Hegoaldean ez ezik Iparraldean ere bururatu beharra dago aldaketa. Erakunde barruko aldaketa horiek erakundearen barruan hausnarketari begira bideratu beharreko jarduerak dira, orain arteko lan egiteko eta pentsatzeko moduak baitira aldatu beharrekoak. Helburua da erakundearen zeinahi jardura-esparrutan gerta daitezkeen genero desberdintasun guztiak ezabatzea: estrategiak, egiturak, lan-sistemak, politikak, erakunde kultura, eta abar.

Azterketa honen aldi berean bideratzen ari dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak erakundeetan genero ekitatearen alde bultzaturiko aldaketa prozesuetarako tresnariaren ebaluazioa. Ez dira oraindik ebaluazio horren konklusioak argitaratu eta ezin izan ditugu beraz lan honetan kontuan hartu, baina aurrerapen gisa esan dezakegu prozesua burura eramane duten 21 erakundeak euskal erakunde garrantzitsuenen gune nagusiko kideak edo, behinik behin, aurrekontu gehien erabili ohi duten erakundeen artekoak direla. Gure kalkuluen arabera, Euskadiko instituzio nagusien diru-laguntzen aurrekontuaren %35etik gora erabili zuten 21 erakunde horiek 2013an, baina ongi kontuan hartu beharra dago, halaber, kontraturik hiru edo hirutik gora lagun dituzten erakundeek baizik ez zezaketela deialdi horretan parte hartu.

Ez da gure helburua Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak erakundeen barruko aldaketa bultzatzeko sortu duen tresnaren eragina neurtzea, baina prozesua bukatu on-

doren halako joera nabaritu dugu 21 erakunde horien artean emakumeen ahalduzaren aldeko proiektu gehiago aurkeztearen alde. Prozesu hauek arautzen dituzten eskakizunak noiz leunduko diren zain gaudela, badirudi egun gutxi lirakeela diru-laguntza horretarako aukera luketen erakundeak, baina instituzioak ere bere prozesua noiz bururatuko duen zain gaude era berean.

Euskal Lankidetzan generoaren ekitatearen aldeko konpromisoa indartzen laguntzen ari diren tresnen artean, ezin aipatu gabe utziko ditugu Bizkaiko Foru Aldundiak tokiko kontraparteek genero ekitatearen aldeko erakunde aldaketa errazteko, generoaren ikuspegia garapenerako lankidetzarako proiektuen barruan bideratzeko edo sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza bultzatzeko proposatu dituen tresnak. Batere ez da harrizkoa 2014. urtean bi diru-laguntza modalitate horien erakunde onuradun ia erdiak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ekitatearen alde erakunde barruan ere aldaketa prozesua bidera dezaten bultzaturiko ekimenen parte hartu izaniko erakundeak izatea.

Iritsi garen konklusio nagusietako bat da, hain zuzen ere, ekitatearen aldeko erakundeen barruko diagnostiko-prozesuetatik igaro ondoren, askoz ere handiagoa dela egun arlo honetan sentsibilizaturiko erakundeen kopurua. Gainera, haietako ez gutxi emakumeen ahalduzaren aldeko proiektuak aurkezten ari dira, aurrez aintzat hartuak zituzten lan-lerroak utzi gabe. Alabaina, emakumeen ahalduzera zuzenduriko proiektuen portzentaje globalak aztertzen baditugu, garapenerako lankidetzaren % 20 hartzen dutela ikusiko dugu.

Azterketan parte hartu duten erakundeen artean banatu dugu inkestan zuzenean galdetzen genien aldeei generoaren ikuspegia hartu ez izana proiektu bat bazter uzteko betekizuntzat hartua den ala ez. Zazpi instituzio nagusiak –aurrekontuaren % 90etik gora bideratzen dute euren artean– bat etorri ziren honetan generoaren ikuspegiaren aurrean "itsu" ageri den proiektua diruz ezin lagun daitekeela esaterakoan.

Nabarmen aldatzen da egoera hiriburu ez diren udalerrietan, haietako % 86k argi eta garbi adierazi baitzuten betekizun hori ezin dela baztertzaila izan. Haietako batzuetan baizik ez da hori gertatzen, baina ez daukagu informazio aski neurketa hori proiektuen baremazioan nola zehazten den zehazteko.

Beharrezkoa da GGKEek eta instituzio publikoek generoaren ekitatearen aldeko lan honetan aurrera batera segi dezaten, hiriburu ez diren udalerrietan batez ere. Zentzu horretan, sektore osoaren ardura da, gure ustez, tokiko erakundeek eta udalerririk gabeko GGKE txikiek laguntzea, beren ekintza eta jardueretan generoaren ikuspegia kontutan hartzeak duen garrantziak jabe daitezen.

Geografia-lurraldeen araberako banaketari dagokionez, Afrikan du Euskadiko lankidetzaz deszentralizatuak gainditu beharreko ikasgaia. Afrikan emakumeen ahalduzari begira

garatzen diren proiektuak askoz ere gutxiagotan errepikatzen dira Latinoamerikan baino. Badirudi, gainera, sektorean ez garela Afrikako genero harremanen berezitasunak behar bezain ongi ulertzen ari, eta ezin ditugu, beraz, haien aurreko esku hartze egokiak bideratu. Batez ere Latinoamerikan ikasitako parametroak segitzen dugu egun Afrikan bideratzen, kontuan harturik parametro horiek guretatik askoz ere hurbil daudela.

2.6. Gardentasuna eta kontuen ematea

Datuen bilketa izan da, hain zuzen ere, azterketa bitartean eduki dugun oztopo nagusia, instituzio gehienetan topo egin dugun jarrera nahikoa proaktiboa izan bada ere. Datuak lortu eta gero ohartu gara batere ez zela lan makala izango kontrastatzeko aukera emango liguketuen parametro objektiboak zehaztea, administrazio publikoek haien sistematizaziorako bideratzen dituzten irizpideak hain desberdinak izaki, datu horiek sistematizatzen diren kasuetan jakina. Ez dago datuak sistematizatzeko modu homogeneorik eta egoera horrek biziki zaildu du gure lana eta, seguruenik, datuak eskaini dizkiguten pertsona ere.

Gainera, legeak administrazioen datuak publikoak direla xedatu arren, datu horietarako sarbide errazagoak edo zailagoak eta datuen beren argitasun mailak mugatzen dute askotan eskubide horren egiazko betetzea. Instituzio batzuen kasuan, badirudi ez dutela datuak partekatzea gogoko, eta zeharkako edo interpretazio zaileko datuak ematen dituzte; zaila gertatzen zaigu, orduan, instituzio publiko batek lankidetzara bideratzen duen egiazko portzentajea zein den edo diru-laguntzetarako deialdi publikotik aparte eman den laguntza zenbatekoa izan den zehaztea.

Halako erresistentzia hauteman dugu berriro ere administrazio batzuetan eskaturiko datuak partekatzekoan. Alde batetik, datuak luzatzeko kultura eskasa dago Euskadin, baina badira, ordea, garrantzi gutxiago ez duten beste faktore batzuk, hala nola urtean zehar datu eske hurbiltzen garen erakundeoi –eta ez gara gutxi– datuak lehenbailehen eskainiko dizkigun sistematizazio bizkor komun baten falta, administrazio guztietan sumatzen dena. Hala gertatuko balitz, arinagoa izango zen teknikarien lan-karga, berez pisua izaten dena, kontuan harturik kasu askotan gertatzen den arazoa ez dela datuak emateko borondate falta baizik eta denbora falta.

Lankidetzaren aurrekontuak ageriegia uzteko erresistentzia nagusia dugu kritikaren beldurra, hala garapenerako lankidetzaren murrizte handia gaitzetsi dugun sektoreena, nola lankidetzaren aurkako sektoreena, gero eta gehiago baitira egungoa bezalako krisi unean Hegoaldearekiko elkartasunerako konpromisoa kritikatzeko ari direnak.

Erakunde askotan, lankidetzara bideratzen diren aurrekontuak ez dira sail bakar batera biltzen eta, areago, arlo desberdinetatik kudeatuak ere izaten dira batzuetan. Erreferentziazat daukagun pertsonak ez ditu askotan eskatu zaizkion datu guzti-guztiak ezagu-

tzen, eta fitzak berrikusi ondoren gogorazi behar izan dizkiogu ahanziak zituen kopuru batzuk. Bereziki gertatu da hau guztia Euskal Fondoari urtero ordaintzen zaion kuota arabera ekarpenak zehazteko orduan. Kasu horietan, agerikoa da inork ez dituela datuak ezkutatu nahi, baizik eta lankidetzarako teknikariek berek ere ez dituztela dauden instituzioaren datu guztiak ezagutzen.

Instituzio batzuek ez dituzte beren deialdien emaitzak argitaratzen, are gutxiago zuzeneko lankidetzarako proiektuei dagozkionak, herritarrek haiek ezagutzeko eskubidea duten arren. Gainera, erakunde askok ez dute onartu ez dituzten proiektuak zenbat diren adierazten. Halatan, datu gure ustez oso garrantzitsua ezagutzeko aukerarik gabe geratzen gara, ezin kalkulatu baitugu zein den Euskadiko lankidetzan egin den finantza eskaera guztia.

Gardentasunean sumatzen den jokabide laxo hau are eta kezagarriagoa da zuzenean, diru-laguntzetarako deialdietatik kanpo, bideratu diren hitzarmenen kasuan. Administrazioek nahi ez badute, ezinezkoa da praktikan datu hauen berri edukitzea.

Errazagoa da datuak Euskadiko instituzio nagusien aldetik jasotzea, haietan deialdi publikoen emaitzak eta ebazpenak, urteko memoriak eta sektorean kontuan hartu beharreko beste dokumentu batzuk argitaratzeko kultura handiagoa eta datuen sistematizazioa hobea delako. Hala eta guztiz ere, datu batzuk ez dira zenbaitetan dokumentu horietan agertzen, edo ulertzen zailak izaten dira.

GGKEak instituzioen eta gizartearen aurrean kontuak ematera behartuta gaude –eta halaxe dugu jaso gure jokabiderako kodean–. Berebat espero dugu administrazio publikoetatik, halatan, arin, bizkor eta besterekin erraz alderatzeko moduan eman beharko litzateke informazio hori.

2.7. Pertsonen egungo egoeraren ondorioak

Garrantzitsua iruditu zaigu instituzioetako, GGKEetako eta Hegoaldeko erakunde bazkideetako giza eta teknikari taldeetan ari diren pertsonen egungo egoera dokumentu honen kapitulu batean erakustea. Iparraldean bezala Hegoaldean, giza talde aski eduki behar dituzte garapenean diharduten erakundeek. Hala eta guztiz ere, egungo egoerak oso eragin negatiboa du itxuraz guztiz logikotzat hartu beharko litzatekeen hornikuntza horretan.

Aurrekontuen gainbeherak ondorio negatiboa eduki du garapenerako esku hartzeetan eta oso egoera eskasean utzi du sektorea. Bertan lan egiten duten pertsona askoren lan baldintzak ezegonkortu egin dira eta lantalde teknikoaren lana gailentzen da Hegoaldeko eta Iparraldeko instituzioetan.

Sektorean goi kalifikazioko pertsonak ari dira lanean; emakumeak dira gehienak, profesional unibertsitarioak dira, gutxienez gradu-ondoko baten jabeak eta hainbat hizkuntza

eledunak. Hala eta guztiz ere, azken urteotako joera izan da aldiz eta prestakuntza eta kalifikazio maila handiagoak eskatzea, ordainsarrietan eta lan baldintzetan hobekuntza nabariak eskaini gabe.

Euskal GGKEetan baliabide ekonomiko gutxiago edukitzearen zuzeneko ondorioetako bat da erakunde batzuen itxiera eta soldatapeko langile gutxiago eduki beharra, hasitako jardura asko ganoraz bukatzeko izan dituzten zailtasunez gainera.

Instituzio publikoetan, aurrekontuaren jeitsiera ez da lan bolumenaren murriztearen proportzioan gertatu, langile teknikariek nazioarteko lankidetzaren ez bestelako jardueraz arduratu behar izan baitute. GGKEetan ere nabaritzen da egoera hori.

Hegoaldean bezala Iparraldean, nazioarteko lankidetzara bideratu beharreko funtsen murrizteek giza kapitalaren araberako gastua murrizteko estrategietara bultzatu dituzte instituzioak, proiektuen exekuzio-sistemaren eta haien justifikazioaren araberako lan bolumen berari aurre egin behar izan dioten aldi berean. Erakunde batzuek beren teknikarien lanaldia eta soldata murriztea erabaki dute, boluntarioen lana aintzagotzat hartuz. Beste erakunde batzuek egoitzako langileak bidaltzen dituzte Hegoaldera atzerritarikoko langile gisa, beren lanpostuak funtzioak konbinatuz bermatu ahal izan ditzaten (proiektuen araberako atzerritarikoko langileen lanpostu berriak sortu gabe). Historian orain arte egoitzako langileek emaniko zerbitzuak kanporatzea erabaki dute beste erakunde batzuek.

Erakundearen boluntarioen poltsa barruan geratu dira aurrez kontratatatuak ziren pertsona asko.

Egoera hau erakutsi nahi izan dugu Euskadiko GGKEen Koordinakundetik, sektorean egonkortasun eza sortzen eta garapenerako erakundeetan eta, bereziki, GGKE guztietan, ezinbestez behar diren giza eta teknikari talde nahiko eta denboran iraunkorren bidez, bideratu nahi den lankidetzaren ereduak kaltetzen duelako.

3. Konklusioak eta gomendioak

Lankidetza deszentralizatua

Instituzio deszentralizatuak gune egokia eskaintzen dio garapenerako balio erantsiaz hornituriko lankidetza baterako, tokiko eta/edo deszentralizaturiko erakunde gisa berezko dituzten ezaugarriengatik eta espezializatuak diren lankidetza motagatik.

Lankidetza mota hori herritarrengandik askoz hurbilago dago, hala Iparraldean nola Hegoaldean, eta haren emaitzei esker tokiko garapenerako planek tokiko biztanleriaren egiazko lehentasunei erantzuten diete, herritarren parte-hartzea ziurtatzen duten prozesuen bidez. Horrexegatik dugu gizartearen aldetik zilegitasun maila handia jasotzen duen lankidetza mota, kontuan harturik, gainera, pobrezia eta desberdintasunen aurkako eta giza garapen iraunkorraren aldeko borrokan konpromiso harturiko gizarte kritikoa sorrarazten laguntzen duela.

Lankidetza deszentralizatuaren jatorrian Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeen arteko lotura eta konpromiso sendoak izan ohi dira eta, horrenbestez, ezagunagoak dira une oro haren eragileak, handiagoa da haien arteko artikulazio maila eta errazago ekiten diete eragile horiek proiektu berriei.

Lankidetza deszentralizatuak gizarte zibilaren parte-hartze handiagoa bideratzen du, herritarren ekina sendotuz, garapenerako eta/edo sentsibilizatorako hezkuntza ekintzen bitartez eskuarki. Gizarte aldatzea eta bizi eredu berri batzuk hedatzea dira helburuak.

Euskadiko garapenerako lankidetzaren % 32 da Udalen eta Foru instituzioen lankidetza; haren tamainaren neurria eskaintzen digu besterik gabe kopuru horrek. Baina baditu halarer puntu ahulak, hala nola instituzio batzuetan, hiriburu ez diren udalerrietan batez ere, mira egiten dugun hausnarketa estrategikoa, egitura sendoak ez edukitzearen, aurrekontuetako mugen eta borondate politiko ezaren ondorioz. Zuzeneko eragina dute faktore horiek esku hartzeen kalitatean, ekimenen eragina, eraginkortasuna eta emaitzak mugatuz.

Lankidetza mota honetan diharduten instituzioak halako joera erakusten ari dira zuzeneko lankidetza aldera, erakunde batzuekin zuzenean sinaturiko hitzarmenen, Hegoaldeko instituzioekiko hitzarmenen eta Euskal Fondora egiten dituzten ekarpenen bidez. Izan ere, zuzeneko lankidetza erosoago gertatzen bide zaie tokiko eskualdeei, baina zailagoa da fiskalizatzen eta beti dago haietan alderdikari jokatzeko arriskua. Lankidetza arautzen duen Euskal Legeak lankidetzaren aurrekontuaren % 10eko sabai gorena ezarri dio lankidetza mota honi, baina instituzio publiko batzuek maila horretatik gaindi dabilta.

Garapen instituzionala

Instituzioen ikuspegitik, honako paradoxa honen aurrean gertatu gara: lankidetzarako aurrekontuak kezkarriro murrizten ari diren aldi berean, inoiz baino sendo ageri dira, itxuraz, instituzio publikoak, garapenerako berezko lankidetzaren politikak sortuz eta bideratuz.

Hona hemen aztertu dugun epearen ezaugarri nagusiak:

- Garapenerako Euskal Agentziaren sendotze prozesua, aurreko Plan Zuzendariaren ebaluazioa eta, aurtengo ekitaldian berean, berri baten prestakuntza.
- Foru instituzioen mailan, hiru Foru Aldundien Plan Zuzendari bateratua ebaluatu zen, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek beren erreferentziazko dokumentua sortu dute zeinek bere aldetik, lehenetsunak zehaztuz eta nortasun berezia finkatuz.
- Euskal Fondoaren iraunkortasuna, alderdi politikoen mende egon gabe eta udalerri gehienak partaide edukirik.
- Euskadiko hiru hiriburuek beren politika publikoak sendotu dituzte, lankidetzaren norabidea zehaztuko duten plan zuzendariak bideratuz.
- Gainerako instituzio publikoetan ez dugu aldaketa esanguratsurik sumatu. Lankidetzaren ekintzak bestelako ezaugarri asko dituzten beste batzuen barruan egokitu dira, gizarte zerbitzuen menpean gehienetan.
- GGKEak dira Euskadiko lankidetzaren funtsezko eragileak, Garapenerako Euskal Legeak bere 9c artikuluan aitortzen duen bezala. Aurrekontuen murrizteak eragin handia du une honetan haren erakunde-egituraren garapenean. Itxi egin dute haietako batzuek eta lanean funtsezkoak ziren teknikariak gabe gelditu behar izan dute beste batzuek. Gainerakoek txerpolari gisa ari behar izan dute azkenaldi honetan jardueragastuen burdin hariaren gainean oreka ez galtzeko.



Gomendioak

- ~ Lankidetzaren deszentralizatuaren eragile guztien koordinazioa indartu, Lankidetzarako Euskal Legearen helburuen alde diharduten erakundeen arteko egiazko koordinazioa sendotuz.
- ~ Instituzio guztien artean, plan zuzendariak, araudiak eta deialdietarako eskakizunak batzeko ahaleginak egin. Foru Aldundiek plan zuzendari bateratuaren ildoetatik aurrera egiteko ideia bazterrean gelditu zen unetik aurrera, deitoratu beharra daukagu Arabako Foru Aldundia oraindik plan berririk ez duen Aldundi bakarra izatea. Euskadiko GGKEen Koordinakundetik biziki eskatzen diegu instituzioei planen plangintzarako helburuen artean politiken koherentzia har eta zuzeneko lankidetzaren arau dezatela.
- ~ Udalerriari hausnarketa estrategikorako guneak sor ditzatela adone eman. Euskadiko GGKEen Koordinakundetik biziki eskatzen diegu udalerriri eta mankomunitateei bultzatu nahi duten lankidetzaren motaren gaineko gogoeta eta hausnarketa guneak zabal ditzatela, udal lankidetzaren berezko departamentuan eta pertsona edo talde jakin baten kargura egon dadin. Kontua ez da udalerririk beren plan estrategikoak bideratzea, baizik eta hausnarketarako denbora gordetzea eta, horrenbestez, dauzkaten lehentasunak argi edukitzea eta lankidetzaren gaitetarako erreferentziarako pertsonak hautatzea, herritarrek berehala identifikatuko dituztenak.
- ~ Erakundeak indartu, GGKEak Euskadiko lankidetzaren eragile nagusitzat hartuz. Lankidetzaren eragile nagusiaren lan baldintzen eskasteak zuzeneko eragina du garapenerako lankidetzaren osoan. Halatan, ezinbestekoa da proiektuen eta programen zeharkako kostuak emendatzea, bai eta jarduerari segida eman ahal izateko aurrekontu-baliabide aski izendatzea ere, GGKEen talde teknikoaren gaitasuna handiagotuz. Horretarako, beharrezkoa da lankidetzaren bideratu beharreko aurrekontuak etengabe berreskuratzea.
- ~ Talde teknikoaren premiak ase, hala instituzioetan nola bertako GGKEetan eta erakunde bazkideetan, xede horretara beharreko finantza baliabideak aintzat harturik.


Laguntzaren banaketa: zuzeneko eta zeharkako lankidetzaren

Zehar bidez kudeatzen da Euskadiko garapenerako lankidetzaren gehiena eta GGKEek kudeatzen dituzten diru-laguntzetara biltzen da. Diru-laguntza horien % 90 kudeatzen dituzte zazpi euskal instituzio nagusiek.

Udalerrietan bada zuzenean kudeatu beharreko aurrekontu-sailak gehiagotzeko joera, Lankidetzarako Euskal Legeak molde horretako ekimenei begira mugatzen zehaztu zuen

% 10eko balioetik gora izan ere. 2014. urtean, lankidetzaren molde horren bidez kudeatu ziren hiriburu ez diren udalerrietako aurrekontuen % 40. Bere ezaugarriak eta berezitasunak ditu udalerririk bakoitzak, normala den bezala, eta joera hori ez da guztietan nabaritzen.

GGKEek bideratzen duten lankidetzaren mota kontrol zorrotzen mende dago; zuzeneko lankidetzaren ordea, jokabide alderdikarien bitartez kudeatzen da batzuetan eta kontuak emateko orduan opakotasuna da nagusi beste batzuetan.



Gomendioak

- ~ Zuzeneko lankidetzaren gizarte erakundeak parte hartzen duten planen barruan planifikatu, gobernu onaren eta garrantzitsuen arabera irizpideak kontutan harturik.
- ~ Esperientziak eta ikasketak elkarren artean trukatu, hainbat esparrutan metaturiko ezagutza eta tokiko gaitasunak baliatu, zuzeneko lankidetzaren deszentralizatuaren esparru horietako lankidetzaren modalitate gisa sendotzeko.
- ~ Lankidetzarako Euskal Legeak zuzeneko lankidetzaren bideratzen duten tokiko instituzio guztiei ezarritako % 10eko muga betearazi.
- ~ Era berean, zuzeneko lankidetzarako aintzat harturiko zehar lerroak GGKEek diru-laguntzetarako aukera edukitzeko parte hartzen duten deialdietan bideratzen den zorrotasun berberaz aplikatu.
- ~ Zuzeneko lankidetzaren gaineko kontuak ematean zorrotasun handieneko kulturaren alde jokatu, mota guztietako alderdikeriak saihestu eta modalitate horrek besteen plangintza, kalitate eta eragin parametro berberak eskaini ditzan.
- ~ Diru-laguntzetarako deialdi publikoa Euskadiko lankidetzaren gidatuko duen bitarteko gisa defendatu, kontuan harturik GGKEak lankidetzaren horren eragile nagusiak direla, Lankidetzarako Euskal Legeak jaso bezala.
- ~ Tresna burokratizatuak eta haiei darian administrazio-kargak sorrarazitako eraginkortasun eza gaineko hausnarketa eta eztabaida zabaldu, desegokiera horiek lankidetzaren eraginik eduki ez dezaten.

Lankidetzarako aurrekontuak

Krisi ekonomikoa gurean egokitu zenetik, erritmo oso bizian murriztu dira Estatu guztian garapenerako lankidetzaren bideratzen diren aurrekontu-sailak. Erritmo hori aurrekontu orokorren murrizte abiadura baino askoz biziagoa izan da eta, beraz, ez dago proportziorik

bi murrizteen artean. Krisi ekonomikoa instrumentalizatu egin da, nolabait, nazioarte-ko elkartasunerako konpromisoa alboratzeko, Hegoaldeko herrialdeekiko elkartasunerako konpromisoa garai onetan baizik aktibatzen ez den zerbait delako sentipena zabalduz.

Euskadiko egoera osoari dagokionez, Estatuko gainerako lurraldeek murrizteen alde-
ra erakutsi duten joerari eutsi diote lankidetzarako aurrekontuek, baina proportzio txi-
kiagoan. 2014an Euskadik 54.459.741,15 € bideratu zituen oro har lankidetzarako, eta
79.008.739 € 2008an. Hau da, % 30tik gorakoa izan da murriztea.

Instituzio bakoitzak eginiko ekarpenei bagagozkie, jakin dezagun Garapenerako Lankidetz-
aren Euskal Agentziak garapenerako lankidetzari begira guztira kontutan harturiko aurrekon-
tuen erditik gora jarri duela (% 68), eta haren ondotik datoz Foru Aldundiak eta udalak.

Azterketak aintzat hartu duen lau urteko epean egonkortasun eza oso handia izan da
aurrekontuetan, eta murrizte oso handiak bideratu dira haietan, 2012ko eta 2013ko eki-
taldietan batez ere. Murrizte horiek oso desberdinak eta bestelakoak izan dira instituzio
bakoitzean.


Instituzio guztiak dira, hein batean, egoera honen erantzule, baina garapenerako lanki-
detzarako konpromiso mailak desberdinak dira, eta haien arabera zehaztu da instituzio
bakoitzaren aurrekontuetarako joera. Euskadin dauden sentsibilitate eta posizio soziopo-
litiko desberdinen fruitua dugu egoera hau.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen beti esan dugu konpromiso hori borondate politi-
koaren araberako afera dela, alde bat utzirik instituzio bakoitzaren aurrekontu orokorra
zertan den. Azterketa hau bururatu dugun honetan, tesi hori berretsi baizik ez dugu egingo.

Neurri ertain eta txikiko udalerrri askotan ikusi dugu aurrez zegoen mailetan eutsi zaiola,
gutxi gorabehera, konpromisoari: % 0,7ra hurbiltzen ziren gehienek apustu berbera egin
dute krisi egoeran ere, desertzio burrunbatsu batzuk ere izan diren arren. Eta, logika berari
jarraiki, konpromiso hori betetzeko asmoa ageri ez zuten instituzio horietako asko are eta
urrunago daude egun helburu hartatik. Azkenik, ikusi dugu aurrez lankidetzarako aurre-
kontu-sailik ez zuten udalerrri gutxi batzuek urrats hori egitera animatu direla azken lau
urte honetan eta, aintzat hartu duten aurrekontua oso txikia den arren, garrantzi handia
du, gure ustez, ikur eta adibide gisa duen balioagatik, hartu duten erabakiak.

Salbuespena izan da Donostiako Udala, erakutsiz krisi ekonomikoaren garaian ere posible
dela elkartasunerako konpromisoari aurreko mailetan eustea, Lankidetzarako Euskal Le-
geak kontutan harturiko % 0,7ra iritsi ezin bada ere.

Herrialdeen araberako azterketara hurbilduz, garbi dago Gipuzkoa dela aurrekontua gu-
txien murriztu duen lurraldea.



Gomendioak

- ~ Lehen urrats eta tarteko helburu gisa, Euskadiko GGKEen Koordinakundetik eskatzen diegu euskal erakunde publikoei, indarrean dagoen legeak eta nazioarteko konpromisoek bete eta gauzaturiko aurrekontu osoaren % 0,7a lankidetzara bideratzeko, eta helburu horretara iristeko plangintza ere beren gain hartzeko, lankidetzarako ekarria Nazio Errenta Gordinaren % 0,7a izan arte, nazioarteko konpromisoetan aintzat hartua den bezala. Instituzio horiei guztiei eskatzen diegu elkartasunerako konpromisoa indar dezatela, lankidetzarako aurrekontuei eutsiz, bai eta lankidetzarako aurrekontua murriztu behar denean, murrizte hori aurrekontu orokorrean bideratu denaren eitekoa izan dadila ere.
- ~ Krisi ekonomikoa ez instrumentalizatzeko eskatzen diegu, era berean, lankidetzaren gizarte zerbitzuekin zuzeneko lotura duen zerbitzua hartu gabe. Izan ere, praktika horrek desinformazioa zabaltzen du herritarren artean eta konfrontazio giroa elkartasunen artean, aditzera eman nahi baitu aukera egin beharra dagoela: edo gure ingurune hurbileneko pertsonen premiei erantzuten diegu eta haien kargak arintzen, edo Hegoaldeko herrialdeetako pertsonenei erantzuten diegu.
- ~ Gure mezua eta gure estrategiak hobetu, herritarrek elkartasunari ematen dioten laguntza indartzeko.

Lankidetzaren motak

2014an, lankidetzaren proiektuek jaso zituzten betiere lankidetzarako aurrekontuaren zati handiena (% 79), beste lankidetzaren modalitateen aurretik, hala nola garapenerako hezikuntza eta sentsibilizazioa (% 11), eta ekintza humanitarioa eta larrialdietako laguntza (% 8).

Urtebeteko exekuzio-epea duten proiektuen helmena mugatua da, eta konplexuagoa da haien iraunkortasuna bermatzea. Lankidetzaren duen izaera eraldatzaitik ulertuz gero, epe luzeko prozesuak behar dira, proiektuen formatua urtebetekoa edo bi urtekoa bada, lankidetzaren proiektuak sorrarazten duen segurtasun eta egonkortasun eza handia baita. Instituzio nagusiek bi urteko proiektuak hartu dituzte kontutan azkenaldi honetan eta hiru urteko programa batzuk ere prestatu eta bultzatu zituzten Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak. Halaz ere, guri ez zaigu hau aski iruditzen, begien bistakoak baitira prozesuaren denbora eta aurrekontu-mugak. Ezinezkoa da praktikan denboran horren finantza-sistema mugatua duten garapen-estrategiak epe ertain eta luzeari begira lantzea eta bururatzea. Gainera, diru-laguntzetarako deialdi publikoak hain dira eskakizunetan zorrotzak eta burokrasian pisuak non ezertxo ere egiteko modurik ez dagoen epe luzeak izaten dituzten lankidetzaren prozesuei begira, eta presente da betiere lortutakoa, sostengurik ez dagoela-eta, diluitzeko arriskua.

Sentsibilizazioari eta garapenerako hezkuntzari dagokienez, instituzioek horien beharra ezagutu eta aitortu gabe segitzen dute, hau da, gizarte kritikoago eta eraldatzaile baten eraikuntzari begira, balioetan oinarrituriko hezkuntza bideratzeko ezinbestez behar den babes hori gabe segitzen dute betiere. Euskadiko GGKEen Koordinakundearen uste dugu lankidetzaren deszentralizatuaren funtsezko eta ezinbesteko osagaiak direla, eta horrexegatik ari gara aspaldi honetan behin eta berriro aldarrikatzen.

Instituzioetan ez dira sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza behar bezala bereizten. Lan-arlo honen halako instrumentalizazioaren arriskua nabaritzen ari gara zenbaitetan, hezkuntza eta sentsibilizazioa jomuga ez duten helburuak dituzten instituzio batzuen aldetik. Sumatu ere egiten da GGKEetan sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzarako jardueren garapenean ari diren lan-taldeetan lanaren aurreko aitortza falta.

Lan-arlo hauek behar bezala ezagutzen ez direlako eta instituzioen aldetik haietan giza baliabideak bideratu ez direlako galdu dute hezkuntzak eta sentsibilizazioak pisua lankidetzaren osotasunean, eta murriztu egin dira, beraz, haiei begira bideratu beharreko aurrekontu-sailak.

Ekintza humanitarioaren ezaugarri nagusia da instituzioek arloari heltzeko dituzten modu desberdinak. Administrazio batzuek bazter utzi dute zuzenean ekintza humanitarioa, garapenerako helburuen artekoa ez dela eta euren jarduerarako egiazko gaitasun errealetatik urrun dagoela iritzirik. Aurrekontu-portzentaje finkoak dituzte, aldiz, beste batzuek haiei begira. Ekintza humanitarioa lehentasunetan azkenekoa da lankidetzaren ereduaren artean eginiko azterketan, eta garapenerako lankidetzaren guztizkoaren % 3 baizik ez zuen eraman 2013an.

Ekintza humanitarioaren izaeraren araberako ezaugarri logikoa dugu herrialdeen atomizazioa, aurreko plangintzen ondorioa ez den aldetik. Oro har, aurrekusi ez diren krisi humanitario eta larrialdiei erantzuten zaie bide horretatik. Hala eta guztiz ere, bada lankidetzarako proiektuak abiaraziak diren geografia-lurraldeetan edo, beren izaera oso larriarengatik, hedabideetan oso presente dauden eta gizartearen kezka handia sortu duten krisi humanitarioetan parte hartzeko halako joera. Badira, halere, itzuri egiten dituzten krisi humanitario guztiz larriak.

Ekintza komunitarioetarako deialdiak desberdinak izan daitezke. Hor dago, esate baterako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lerro iraunkorra, eta bada, beste adibide bat jartzeagatik, Larrialdietarako Funts Arabarra, larrialdi humanitarioko egoeren aurrean erantzuteko tresna bizkor eraginkorra izan nahi duena.

Ekintza humanitarioaren eta larrialdietako egoerentarako laguntzen ezaugarri nagusietako bat da berehalako erantzunaren premia. Ahalegin guztiengatik ere, berehalakotasun honen premia dela-eta, euskal lankidetzaren ez da oraindik laguntza hori ahalik eta egokien eta eraginkorren emateko gauza.



Gomendioak

- ~ Garapenerako lankidetzaren alorrean lehiaketa bidezko diru-laguntza publikoen aldeko apustua egin, lehiatzerako irizpideak argiak eta gardenak eta haien ondoko ebazpenak araudiaren arabera izanik.
- ~ Proiektuen denbora-mugak gainditzeko modua bilatu, hala lankidetzan nola hezkuntzan, epe ertain/luzeko lankidetzarako aukera emango duten finantzazio eta exekuzio bideak urratuz.
- ~ Finantza erakundearen tresna desberdinak berrikusi eta eguneratu (sarrerak, kudeaketa, exekuzioa...).
- ~ % 10tik beherakoa izango ez den zenbatekoa garapenerako hezkuntzaren arloko ekimenetarako bideratu, hezkuntza, kontzientzia kritikoa eta elkartzaren sortzailea den aldetik, lankidetzarekin ezinbestez loturiko osagai gisa hartuz.
- ~ Mekanismo bizkorak eta karga burokratiko gutxiak bideratu, ekintza humanitario eta larrialdietako laguntzari begira.
- ~ Larrialdietarako Funtz Arabarra ebaluatu, Euskadi osora hedatu beharko litzatekeen aztertzeke.

Plangintza estrategikoa


Euskal instituzio publikoak plangintza estrategikorako tresnez hornitu dira azken urteotan, eta garapenerako lankidetzaren politikaren erreferentzia esparru dituen tresna horiek. Plangintza horiek guztiak beren egitura berdina xamarra dute eta haien abantaila handiena da, inolaz ere, garapenerako lankidetzaren jomugarantzko orientabideak finkatzen dituzte. Plangintza estrategikoa kontsulta eta parte-hartze prozesuak proposatzen ditu betiere, kontuan hartu gabe askotan erabaki politikoetarako maila desberdinetan esku hartzen duten elkarten gomendioak eta aldarrikapenak.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak aspaldidanik ari da bereziki azpimarratzen garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa plangintza estrategikoetan lehenetsi beharra, ez direlako behar bezala kontuan hartzen. Egoerak itxuraz hobera egin duen arren, ez zai- gu oraindik ere aski iruditzen. Azken urteotan garapenerako inoiz baino politika gehiago dauzkagula ikusten dugun arren, alde handiak daude irizpide garrantzitsu batzuetan eta politikaren artikulazioan urrats batzuk atzera egin dugulakoan gaude.

Azken lau urteko honetan, atzerapausoa egin dute Foru Aldundiek euren politikaren adoste eta koordinazioaren alorrean. Plangintza esparru komuna izatetik zein bere aldera jotzera

igaro dira, eta beren plan zuzendariak egin dituzte, banaturik, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak begi onez ikusten ditu, nolana ere, plangintza horiek, garapenerako lankidetzaren garapenerako estrategia baten barruan kokatzeko eta lankidetzari koherentzia emateko.



Gomendioak

- ~ Plangintza estrategikoak politika publikoetan eragina duten elkarrizketa-gune publikoetan sortu behar dira (lankidetzarako kontseilueta eta lan-taldeen, esate baterako), egiazko erabakimenaz hornituriko parte-hartze prozesuen bitartez. Gainera, aurreko plan zuzendarien ebaluazio prozesuen emaitzez elikatuko dira ezinbestez, horietan baitira plangintza berrirako lehengai garrantzitsuena. Plan zuzendarien ebaluazioak une egokian egin behar dira eta guztiz zaindu behar dira epeak plangintza denboran beharrik gabe luzatuko den prozesua gerta ez dadin, eta politika publikoetan hutsunak sor ez daitezzen.
- ~ Plangintza horietan garapenerako politiken koherentzia bideratzeko eta gauzatzeko moduak eta formak zehaztu behar dira.
- ~ Zuzeneko lankidetzari dagokionez, irizpide argiak eta gardenak jasoko dituzte plan zuzendariak, kudeaturiko funtsen portzentajea legeak lankidetzaren molde ezarritako mugaren arabera dela ziurtatuz.
- ~ Zailtasunak agerikoak diren arren, zeharkako lankidetzarako tresnak hautatzerakoan epe luzeko garapen-prozesuei ekiteko aukera emango dutenak aukeratuko dira, hala hezkuntzarako nola lankidetzarako proiektuetan.
- ~ Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza aintzat hartu eta balioztatu, instituzio publikoen plangintza estrategikoen garapenera begira, beharreko baliabide tekniko eta ekonomikoez hornituz.
- ~ Ekintza humanitarioak presente egon behar du beti plangintza estrategikoan, instituzio bakoitzaren gaitasun eta ezagutzetan oinarrituriko alternatiba errealistak eskainiz.
- ~ Beren aurrekontuen bolumenagatik, plan estrategiko osoak lantzen ikusten ez ditugun arren, bereziki eskatuko genieke udal txikiei nazioarteko elkartasunari ematen dioten sostengua modu estrategikoagoan orientatzeko balio lezaketen hausnarketa prozesuei ekiteko eta haien ondoko dokumentuak prestatzeko.
- ~ Beren araudia, hau da, plan zuzendariak diotena, bete dezatela instituzioek.

Generoaren ekitatearen aldeko konpromisoaren bilakaera euskal lankidetzan

Azken urteotan, urrats garrantzitsuak egin dituzte administrazio publikoek eta GGKEek emakumeak eta gizonak beren garapeneraren protagonistak izango diren mundu ekitatibo eta justuago baten sorrerara orientaturiko lankidetzaren moten aldeko konpromisoan, eta euskal lankidetzaren erreferentzia bilakatu da arlo honetan estatu mailan. Instituzio nagusien iritziz, proiektu guztien zehar ardatza eta bazter uzteko irizpidea da generoaren ikuspegia. Irizpide honen baremazioa desberdina da administrazio bakoitzean, estuagoa edo lasaia-agoa kasuen arabera, eta gogortzeko joera ageri dute haietako batzuek.

Generoaren arloan gero eta langile sentsibilizatuagoak eta prestatuak dituzte GGKEek eta, horrez gainera, urtero antolatzen dira Euskadin generoa garapenera gaitzen diren in- guruko jardunaldi, ikastaro eta mintegi ugari, instituzio publikoek, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta GGKEek berek bultzatuak eta antolatuak. Erakundeetan konpro- miso maila desberdinak suma daitezke eta, teknikarien eta tokiko bazkideen inplika- zioak eta ezagutzaz gainera, instituzioen borondate politikoa da, beraz, konpromiso hori neurtzeko giltza.

Euskadin, garapenerako lankidetzaren % 20 gutxi gorabehera, orientatzen da emakumeen ahalduzkoaren aldeko ekimenetara. Baina ez dugu ahantzi behar proiektu guztiek ezin- bestez hartu behar dutela kontutan generoaren zeharkako izaera.


Sektorean, hobekiago ezagutu eta ulertu behar dugu Saharaz haraindiko Afrikako eta herri indigenen testuingurua, generoaren ikuspegia garapenerako ekimenetan hobekiago txertatzeko eta emakumeen ahalduzkoaren aldeko ekimenak eta esku hartzeak konti- nente horretan eta beste herri batzuetan sendotzeko. Egun ere, gehiegi hartzen da aintzat Latinoamerikako erreferentzia, Afrikan nekez bidera daitekeena.

Garapenerako lankidetzaren Euskal Agentziak tresna berezia landu zuen GGKEen barruan ekitatearen eta erakundeak barrutik aldatzearen aldeko prozesuak sustatzeko. Tresna hor- rren aurrekaria dugu Euskadiko GGKEen Koordinakundeak bi urtez, eta aldi berean beste hamar GGKEekin, erakundearen barruko aldatetari begira bideratu zuen prozesua. Muga- rria izan zen hura bide hartan, aurretik proiektuetan ekitatearen aldeko genero harremanak bideratuta baizik ez baitziren aldatetarako gauzatzen. Hau da Hegoaldeko populazio subjek- tuaren esku uzten zen aldatetara. Tresna horri esker, aldatetara gure helburua ere bazela eta gure jokabideak eta jarrerak berrikusi behar genituela ulertu genuen Iparraldeko GGKEek. Zoritxarrez, tresna hori ez zen erakunde guztiei begira diseinatu eta indartsuenak baizik ez zituzten prozesu horien onurak jaso.

Ezin ahantz ditzakegu Bizkaiko Foru Aldundiak Hegoaldeko kontraparteen genero au- to-diagnostikoak sustatzeko sortu zituen tresnak, eta teknikari laguntzaile espezializatuen

kontratazioa, generoaren ikuspegia proiektuetan txertatzeko. Guztiz koherenteak dira ekimen horiek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta sektore guztia oro har arlo honetan egiten ari diren ahaleginekin.

Azkenik, ez dira gutxi generoaren ikuspegia beren deialdietako proiektuetan txertatzea ezinbesteko baldintza ez dela dioten tokiko administrazioak. Udal horietako batzuek ez dute generoaren ikuspegiaren kontzeptua bera ulertzen eta oso sentsibilitate desberdinak ageri dituzte haren aurrean. Jokabide honen aurreko erantzukizuna ezin izan daiteke soil-soil tokiko administrazioena izan, sentsibilizatu eta, gutxienez, lankidetzarako politiketan generoaren ikuspegia bidera dezaten behar diren lehengaiak hornitu behar dizkien sektore osoarena baizik.



Gomendioak

- ~ Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren barruan emakumeen ahalduntzea helburu duten proiektuetara funtsen gutxienez % 20ko portzentajea bideratu, erakunde finantzari guztien arlo nagusia izan dadin.
- ~ Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari luzatzen diogu ekitatearen aldeko tresna garapeneraren alde diharduten erakunde guztietara egokitzeko gomendioa, prozesu hori bideratu ahal izan dezaten.
- ~ Bizkaiko Foru Aldundiak proiektuetan generoaren ikuspegia txertatzeko aitzinatu dituen tresnei erakundeen arteko mailan ere jarraipena eman, beste aldundiei ere arestian aipaturiko deialdiak aintzat hartzeko dei eginaz, aukerak hiru lurraldeetan berdinak izan daitezten.
- ~ Biziki eskatzen diegu instituzioei koordina daitezela, generoaren ikuspegiaren instituzionalizazioaren alde aurrerapenak egiteko, hala GGKEetan nola instituzioetan, eta azkeneko hauek ere animatzen ditugu beren barruan ikuspegi hori kontutan har dezaten.
- ~ Udalerrien ezagutzak eta konpromisoa sendotu, garapenerako politikak generoaren ikuspegitik orienta ditzaten, instituzio bakar batek ere ez ditzan generoaren aurrean "itsu" ageri diren proiektuak finantzatu.
- ~ Instituzio guztietatik, garapenerako politikak generoaren ikuspegitik orientatzen dituzten erakundeak, Iparraldekoak nahiz Hegoaldekoak, lehenetsi.

Lankidetzarako funtsen banaketa

Ezin jakin dezakegu zehazki Euskadiko garapenerako lankidetzaren zenbat herrialdetara iristen den. Ez dago datuen sistematizaziorako bitarteko homogeneous orik eta neurketa horretan tokiko administrazioek sustaturiko proiektu askori buruzko datuak falta dira. Ez dago lankidetzaren orientatzeko irizpide komunik, ez eta funtsen banaketaren sistematizazio modu bateraturik ere.


Latinoamerika da geografia eremu lagundua, GGKEen lankidetzaren tradizioagatik eta kontinente horrek euskal gizartearekin duen loturagatik. Bereziki aipagarriak dira, halaber, SEAD eta Palestinarekiko lankidetzaren, tokiko instituzioen aldetik batez ere. Azken urteotan handiagotu egin da Saharaz haraindiko Afrikarekiko lankidetzaren, % 20ko maila iritsiz Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kasuan, baina gure sentipena da kasu horretan ezin landu eta bideratu dugula beste geografia-lurraldeetan eskaintzeko gauza izan garen kalitatea, ez behinik behin instituzio nagusien tresnetara eta plan zuzendarietara horren egokiturik. Gure sentipena da, nolabait ere, Latinoamerikako parametroen araberrako lankidetzaren eskaintzen ari garela Afrikan.

Tokiko administrazioen mailan herrialdeen atomizazioa izugarri handia den moduan, Euskadi mailan egoera horren ifrentzua agertzen zaigu, nolabait, bost herrialdetara bideratzen baita lankidetzaren % 60, eta Latinoamerikakoak dira bostak. Joera hau zehazten dute Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren proiektuen aurreko ebazpenek, baina gainerako instituzio nagusienaren antzekoa da inolaz ere. GGKEetara biltzen dira bost herrialde horietarako proiektuen proposamenak eta deialdietako lehiaketa prozesuaren emaitza logikoa dira beraz. Honela diogu ikusirik funtsik ez dagoela-eta finantzabiderik gabe geratu diren proiektuen joera ere horixe delako.

Antzeko joera ageri du, halaber, Euskal Fondoak, herrialde kopuru txiki batera biltzen baita funtsean haren ekinak; Latinoamerikakoak dira herrialde guztiak, SEAD izan ezik.

Instituzio nagusietako batzuek beren lankidetzaren geografia-lurralde eta arlo jakin batzuetara mugatzeko hautua egin dute, beste batzuetara hedatzeko aukera zabalik utzirik ordea.

Elikadura burujabetza eta emakumeen ahalduntzea dira euskal lankidetzaren bereziki lehenesten diren arloak, eta baztertuxe gelditu dira beste batzuk, hala nola ekoizpenerako eta gizarte zibila indartzeko proiektuak.



Gomendioak

- ~ Tokiko erakundeen arteko artikulazioa indartu, aurrekontuan muga handiak dituzten lankidetzak bakanak saihesteko.
- ~ Herrialde-estrategiak landu, eragile guztiek parte hartuz (GGKEak eta instituzio publikoak), garapenerako lankidetzaren zati handiena bildua den bost herrialdeei begira, gutxienez, ekimenen bikoiztea saihesteko eta euskal lankidetzaren kalitatea eta eragina sustatzeko.
- ~ Udalen arteko koordinazioa eta ekintza planak bideratu, senidetzeen bitartez, edo, behinik behin, jarduerarako gutxienerako irizpideak zehaztu.
- ~ Saharaz haraindiko Afrikarako tresna bereziak egokitu, instituzio publikoak gaitasun handiagoz hornituz eta haien politika orientatzaileetan kontinente hartako berezitasunak kontuan hartuz.
- ~ 20/20 Ekimenaren terminoen arabera, oinarrizko gizarte zerbitzuen garapena izan dadila arloen arteko lehentasun nagusietako bat, % 20ko aurrekontuaz gutxienez.

Garapenerako politiken adostea, koordinazioa eta koherentzia


Estatuko lankidetzak bezala, euskal lankidetzak deszentralizatuak koordinazio eta koherentzia gehiago behar ditu.

Lan egiteko modu eta ohitura berberak berritzen dira etengabe, eta eraginkortasun maila txikiko mekanismoak eta tresna oso konplexuak gertatzen dira azkenean. Horrenbestez zartatzen dira laguntzaren kalitatea, haren balizko eragina eta denboran iraunkor izateko aukerak.

Askotarikoa da oso gure instituzioen panorama, erruz ugaltzen dira deialdiak eta, elkarren artean desberdinak izateaz gainera, gero eta korapilatsuagoak dira haietan oinarriak, inprimakiak eta jarraipen-sistemak. Araudien barreiatze honek izugarri zailtzen du GGKEen lana eta proiektuen gaineko hausnarketari eta hobekuntzarako estrategiak lantzeari opa liezaieketen funtsezko denbora kentzen die. GGKEen sentipena da beren denbora puska handi bat proiektuak diseinatzen, formulatzen, haien jarraipena egiten eta justifikatzen ematen dutela, eta segitu nahi duten bideari buruz gogoeta egiteko beharko litzatekeen astirik gabe gertatzen direla. Funtsezkoa da hori, kontuan hartzen badugu GGKEak ez direla proiektuen gauzatzaile hutsak baizik eta, berez eta izatez, garapenerako eragileak.

Garapenerako politika publikoen koherentziari dagokionez, gure administrazioen zorra dugu hor betiere baina, salbuespenak salbuespen, horra Donostiako Udala, ez dirudi bide horretan aurrerapen handiegirik egin den.

Elkartasunerako politikak elkartasun-uharteak dira betiere administrazioen barruan, aurkakotzat jo litezkeen beste politika mota batzuk sustatzen dituzten aldetik.




Gomendioak

- ~ Koordinaziorako mekanismoak abiarazi, hala administrazio bakoitzaren barruko eta kanpoko mailetan nola instituzioen artean. Dagoeneko abian diren koordinazio-guneak baliatu.
- ~ Garapenerako politiken koherentziarako agindua bete, instituzioen sail eta departamentu desberdinen arteko koordinaziorako mekanismoak implementatuz, koherentziaren lorpenaren alde urratsak egiteko aukera emango digun esparru doktrinala eta politikoa zehazteko eta haren arabera neurri zehatzak hartzeko.
- ~ Diru-laguntzen oinarriak deialdiak alde bat utzirik eta gutxienez agintaldi bakoitzaren araberako indarraldiz argitaratu, haien egutegiratzea egonkortuz.
- ~ Diru-laguntzetarako deialdietako inprimakiak eta oinarriak adostu, administrazio prozedura malguagoetarako aurrerapausoak emanez.

Gardentasuna eta kontuen ematea

